

## XEDAPEN OROKORRAK

### ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

## 4561

*185/2015 DEKRETUA, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.*

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak bermatzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren prestazioak eta zerbitzuak lortzea esku-bide unibertsala eta subjektiboa dela, eta eskubide hori betetzea erreklamatu ahal izango dute, administrazio-bidean eta jurisdikzio-bidean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsalizatzeko Lege horrek ezartzen duen epea amaitzen denean (2016-12-25), Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren zerbitzu edo prestazio ekonomiko bakoitza lortzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituzten pertsona guztiek.

Eta eskubide hori benetan baliatzen dela bermatzeko, oinarrizko hainbat elementu txertatu ditu. Gauzak horrela, Lege horren 3. artikuluan eskubidearen titulartasuna zehazten da. Lege horren 25. artikuluan, oro har, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren prestazioak eta zerbitzuak lortzeko baldintzak definitzen dira. 19. artikuluan esku hartzeko oinarrizko prozedura ezartzen da, beste alderdi batzuen artean, prestazioak eta zerbitzuak jartzearekin ere lotuta dagoen prozedura. 21. eta 22. artikuluetan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa definitzen da, eta Katalogo hori garatzeko, 23. eta 24. artikuluetan Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa egiteari eta eguneratzeari buruzko alderdi batzuk aurreikusten dira.

Gizarte Zerbitzuei buruzko Lege horren aurreikuspenekin bat etorritz, Dekretu honen xedea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa arautzea da, baita prestazio eta zerbitzu horiek lortzeko baldintzak, irizpideak eta prozedurak arautzea ere. Eta, bide horretatik, Lege horretan aldarrikatutako eskubide subjektiboa ez ezik, aipatutako Zorroaren prestazio eta zerbitzuak eskaintzeari dagokionez euskal administrazio publikoek dituzten betebeharrak mugatzea eta edukia ematea ere.

Helburu hori izanik, Dekretu hau lau kapitulutan egituratuta dago. I. kapituluan xedapen orokorrak azaltzen dira; horrez gain, Dekretuaren xedea eta Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren aplikazio-eremua, helburua eta edukia zehazten dira, baita ematen diren diru-kopuruak eskaintzeko Dekretuan azaldu eta zehazten den eskumen-banaketa ere, betiere aipatutako Legean ezartzen diren prestazio ekonomikoen taldeak oinarri hartuta. Gainera, zerbitzu, zentro eta prestazio edo laguntza ekonomikoen bitartez prestazio teknikoak eta teknologikoak lortzeari buruzko alderdi batzuk lantzen dira, baita beste sistema edo politika publiko batzuetako prestazioak eta zerbitzu mistoak (soziosanitarioak edo soziolaboralak, adibidez) Zorroan antolatzen diren moduari buruzko alderdi batzuk ere. Azkenik, Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren eguneratzeari heltzen zaio.

II. kapituluan, Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren zerbitzuak eta prestazioak edo laguntza ekonomikoak lortzeko eska daitezkeen baldintza orokorrak eta espezifikoak, administratiboak eta premia-zerbitzuak arautzen dira, baita premia-baldintzak balioesteko tresnak eta baliabide jakin baten (zerbitzua, prestazioa edo laguntza ekonomikoa) edo baliabideen konbinaketaren egokitasun-maila erabakitzeko esku hartzen duten elementuak ere.

III. kapituluaren prozedurazko xedapen orokorrak biltzen dira, baita Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren sartzeko dauden bi prozedura motei (prozedura arrunta eta premiazko prozedura) buruzkoak ere.

IV. kapituluaren Zorroaren zerbitzu eta prestazio edo laguntza ekonomiko bakoitzaren edukia aipatzen da. Horiek guztiak I. eranskinean azaltzen dira fitxa indibidualetan, haiek emateko esku-mena duen erakundearen arabera bilduta: Udalak, foru-aldundiak eta Eusko Jaurlaritza, ordena horri jarraiki. Kapituluaren amaieran hainbat xedapen ezartzen dira lehen mailako laguntzaren eta bigarren mailako arretaren artean dagoen desbideratzea errazteko eta ordenatzeko. Era berean, II. eranskinean elkarrekotasun-taula bat azaltzen da, zeinetan zehazten den Zorroaren zer zerbitzu eta prestazio ekonomiko datorren/datozen bat Autonomiarako eta Mendetasunaren Arretarako Sistemaren zerbitzuekin eta prestazio ekonomikoekin, eta zeintzuk ematen duten haiek lortzeko eskubidea; III. eranskinean Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren zerbitzuen barnean sartzen diren prestazio teknikoak zehazten dira.

Dekretuaren amaieran hiru xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat daude. Xedapen horietatik guztietatik, alde batetik, bigarren xedapen gehigarria nabarmentzen da. Xedapen horretan Finantza Publikoen Euskal Kontseiluan finantza-lankidetzarako formulei buruzko akordioa aipatzen da, Dekretu honetan biltzen diren prestazio eta zerbitzu berriak emateko finantzaketa egokia bermatzeko. Bestetik, bi xedapen iragankorrak nabarmentzen dira; haietako batean Zorroaren prestazio eta zerbitzuak izendatzeari buruzko betebeharrak ezartzen dira, eta bestean, aldiz, prestazioak eta zerbitzuak emateari buruzko betebeharrak, baldin eta administrazio publiko eskudunek Finantza Publikoen Euskal Kontseiluan ez badute bigarren xedapen gehigarrian aipatzen den akordioa lortzen.

Hori guztia kontuan hartuta, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari jarraiki, eta Gobernu Kontseiluak 2015eko urriaren 6an egindako bilkuran alde zuzenetik eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

## XEDATZEN DUT:

### I. KAPITULUA

#### XEDAPEN OROKORRAK

##### 1. artikulua.– Xedea.

Dekretu honen xedea honako hau da: Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22. artikuluan araututako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa garatuz eta Lege horren 23. artikuluan eta lehen xedapen gehigarrian jasotako agindua betez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa arautzea.

##### 2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

Dekretu hau Prestazio eta Zerbitzuen Zorroan sartuta dauden eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren txertatuta dauden zerbitzu eta prestazioei aplikatuko zaie, baita, haien modalitate desberdinei ere, baldin eta badaude, kontuan izan gabe zerbitzuen edo ekipamenduen titulartasuna publikoa edo pribatua den.

### 3. artikulua.– Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren helburua.

1.– Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren helburua Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 2. artikuluan aitortzen den eskubide subjektiboari edukia ematea eta mugatzea da, eta eskubide hori baliatzea, haren edukia eta deskribapena Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 23. artikuluan aurreikusitakora egokituz honako honen bitartez:

a) Derrigorrezko prestazio ekonomiko eta hornikuntza-zerbitzu bakoitza definitzea –baita, baldin badaude, haien modalitateak definitzea ere–, zerbitzuen kasuan, sartzan diren prestazioak zehaztuz.

b) Hartzaileak mugatzea eta zerbitzu eta prestazio ekonomiko bakoitza lortzeko gainerako baldintzak zehaztea, baita preskripzio teknikoa, hala badagokio, eta zerbitzuen kasuan, prezio edo tasa publiko jakin bat ordaintzea, zer kasutan ordaindu behar den ezarriz.

c) Prestazioak eta zerbitzuak lortzeari buruzko prozedurazko xedapenak ezartzez gain, esku-bidearen eskaera eta ebazpena, atzera egitea, uko egitea, etetea eta iraungitzea, baita baimena emateko, ukatzeko, aldatzeko, eteteko edo iraungitzeko prozeduretan emandako ebazpenen aurka errekurtsioa jartzea ere.

2.– Gauzak horrela, euskal administrazio publikoen maila bakoitzak zerbitzuei eta prestazio ekonomikoei buruz duen betebeharra mugatzen du Prestazio eta Zerbitzuen Zorroak. Zerbitzu eta prestazio ekonomiko horiek derrigorrez eman beharrekoak izango dira eta euskal administrazio publikoaren eskumenekoak izango dira, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 40.3, 41.3 eta 42.4 artikuluetan aurreikusitako eskumen-banaketaren arabera eta prestazio ekonomikoei dago-kienz Dekretu honetako 5. artikuluan aurreikusten denaren arabera. Hori alde batera utzi gabe, kudeaketa publikoaren arreta, efikazia eta eraginkortasuna hobetzeko asmoz, euskal adminis-trazio publikoek agindu ahal izango dute beren eskumeneko zerbitzuak ematea ordenamendu juridikoan aurreikusitako tresnak erabiliz.

3.– Prestazio eta Zerbitzuen Zorroan bildutako zerbitzuak eta prestazioak lortzeko eskubidea pixkanaka aplikatuko da erabateko eraginkortasuna lortzen den egunera arte, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen lehenengo xedapen iragankorrean aurreikusitako baldintzetan.

### 4. artikulua.– Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren edukia.

1.– Prestazio eta Zerbitzuen Zorroan eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 22. artikuluan arautzen den Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan zerbitzu eta prestazio ekonomiko berak biltzen dira, baita haien modalitate desberdinak ere. Modalitate horiek badaude, I. eranskineko fitxetan adieraziko dira.

2.– Dekretu honen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira zerbitzu-modalitatetzat:

a) zerbitzu beraren aldagai desberdinak, erabiltzaileak zerbitzu hori lortzeko eskubidea bermatzeko alternatiba bat direnak;

b) zerbitzu beraren mota desberdinak, zerbitzu horiek aurreikusteko xede izan diren hartzaileen profilerako eta/edo egoerarako bermatu beharko dira.

3.– Prestazio edo laguntza ekonomikoak ondoren ikusiko den bezala banakatzen dira. Prestazio edo laguntza ekonomiko bakoitzerako fitxa bat dago (3.1.1, 3.1.2, 3.2.1, 3.3.1, 3.3.2 eta 3.4.1 fitxak) Dekretuaren I. eranskinean.

3.1.– Gizarteratzea eta/edo autonomia errazteko prestazioak, baita gizarte-larrialdiko edo gizarte-premiazko egoeren, mendetasun-egoeren edo babesgabetasun-egoeren ondorio ekonomikoak estaltzeko edo arintzeko ere:

– Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoak (3.1.1 fitxa).

– Ordainketa bakarreko prestazio ekonomikoa genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan aurreikusita dagoena (3.1.2 fitxa).

3.2.– Gizarte-laguntza informala eskaintzen duten pertsonen laguntzeko eta haiek konpentsatzeko, autonomiaz moldatzeko eta gizarteratzeko laguntza behar duten pertsonak zaintzen dituzten senideentzat bideratuta daudenak:

– Familia-inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa (3.2.1 fitxa).

3.3.– Prestazio teknologikoak eskuratzeko prestazio indibidualak, laguntza tekniko berreskurazekin lortzea edo ohiko bizitza-ingurunean egokitzapenak egitea errazteko:

– Berreskuratu ezin diren laguntza-produktuak eskuratzeko laguntza ekonomikoa (3.3.1 fitxa).

– Ohiko etxebizitzan eta ibilgailu partikularretan egokitzapenak egiteko laguntza ekonomikoa (3.3.2 fitxa).

3.4.– Zerbitzu pertsonalei lotutako prestazio indibidualak:

– Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa (3.4.1 fitxa).

4.– Berreskuratu ezin diren laguntza-produktuak eskuratzeko eta ohiko etxebizitzan nahiz ibilgailu partikularretan egokitzapenak egiteko ematen diren diru-kopuruak laguntza gisa arautu daitezke eta eskuragarri dagoen kreditua agortu arte eman ahal izango dira. Kreditua agortzen denean, betiere eskatzaileak laguntza lortzeko baldintzak betetzen baditu, eskatzailea itxarote-zerrendan sartuko da eta eskaerei erantzuteko behar den kreditua gaituko da; kreditua gaitzen den eguna eta, beranduenez, hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 1a hartuko da eskaera-datatzat. Hori guztia alde batera utzi gabe, beharrezkoa baldin bada, egiaztatu egingo da laguntza jasotzeko edo jasotzen jarraitzeko behar diren baldintzak betetzen direla.

5. artikulua.– Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren prestazio eta zerbitzuak emateko eskumena.

1.– Eusko Jaurlaritzak telelaguntza-zerbitzua (1.6), babesgabetasun-egoeran dauden haur eta nerabeentzako informazio-zerbitzua (2.7.1.1 fitxa), etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzako informazio- eta arreta-zerbitzua (2.7.1.2 fitxa), deribazio judizialaren bidezko familia-elkargunearen zerbitzua (2.7.3.2 fitxa) eta familia-bitartekaritzako zerbitzu integrala (2.7.3.3 fitxa) emateko eskumena izango du, baita genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako ordainketa bakarreko prestazioa (3.1.2 fitxa) emateko ere.

2.– Udalek eskumena izango dute Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 22. artikuluan zehaztutako lehen mailako arreta-zerbitzu guztiak emateko, telelaguntza-zerbitzua izan ezik.

3.– Foru-aldundiek eskumena izango dute Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren bigarren mailako arreta-zerbitzuak emateko, Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak direnak izan ezik, baita laguntza pertsonala emateko zerbitzua (3.1.1 fitxa), familia-inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko presta-

zioa (3.2.1 fitxa), eta prestazio teknologikoak eskuratzeko edo ohiko etxebizitza-ingurunean egokitzapenak egiteko prestazioak edo laguntzak (3.3.1 eta 3.3.2 fitzak) emateko ere.

4.– Euskal administrazio publiko guztiek eskumena izango dute zerbitzuari lotutako prestazioa emateko, prestazio hori lotzen den Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren zerbitzuetarako bada, eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 16. artikuluan ezartzen den tipologian bilduta aurreikus daitkeen beste edozein prestazio ekonomiko emateko eskumena izango dute, betiere unean-unean ezartzen den eskumen-erregimenaren arabera.

6. artikulua.– Prestazio tekniko eta teknologikoak lortzea zerbitzuen, zentroyen eta prestazioen edo laguntza ekonomikoen bitartez.

1.– Zerbitzuak gizarte-zerbitzuen unitate batek kudeatzen dituen antolamendu-unitateak dira, eta, orokorrean, prestazio tekniko bat, eta, hala badagokio, prestazio teknologiko bat baino gehiago biltzen dute. Era berean, prestazio osagarriak ere bildu ditzakete, esate baterako, garraioari (gizarte-zerbitzuak eskuratzeko aukera erraztera bideratutako garraio egokitua baztertuta dago prestazio osagarri gisa), ostatuari, mantenuari, arropa-garbitetari eta garbitasunari lotutakoak –edo arau bidez ezartzen diren bestelako prestazioa osagarriak–, baita arreta emateko beste sistema edo politika batzuen berezko prestazioak ere.

2.– Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren zerbitzu batzuek gizarte-zerbitzuen zentroak eratzen dituzte, zentrotzat honako hau hartzen delarik, ondorio horretarako: unitate organiko eta funtzional gisa eraturako higiezin oro edo higiezinaren zati oro, kokapen autonomoa eta identifikagarria duena eta gizarte-zerbitzuen prestazioak eskaintzen dituen edo prestazio horiek bertan antolatzen dituen.

3.– Prestazio tekniko eta teknologikoak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko prestazioak dira, eta prestazio horiek, normalean, Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren zerbitzuen bitartez lortzen dira, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 16.3 eta 17.2 artikuluetan bilduta dauden kasuetan izan ezik.

4.– Zerbitzuek eta zentroek pertsona guztientzako diseinu-estrategiak hartuko dituzte, eta estrategia horiek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren sartzeko prozedurari ere eragingo diete, irisgarritasun unibertsala sustatzearren.

7. artikulua.– Prestazio eta Zerbitzuen Zorroan beste sistema eta politika publiko batzuetako prestazioak eta izaera mistoko zerbitzuak antolatzea.

1.– Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta beste sistema eta politika publikoen arteko lan-kidetza eta koordinazioa –Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 45. aurreikusten dena–, hala badagokio, Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren esparruan antolatuko dira, fitxetan honako hauek sartuta: a) Sistema eta politika publiko horien berezko prestazioak, zer sistematakoak diren adierazita. b) Izaera mistoko zerbitzuak, berezitasun hori adierazita, baldin eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 45.3 artikuluan aipatzen diren zerbitzuen katalogorik edo zorro multzorik ez badago. Edo, eremu soziosanitarioari dagokionez, zerbitzu soziosanitarioen zorro bat edo arretaren egokitasuna bermatzen duten beste formula edo tresna batzuk antolatzen ez diren bitartean, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 46.4 artikuluan aurreikusten denaren arabera.

2.– Erabiltzaileen osasun-premien nagusitasuna eta intentsitatea kontuan hartuta, zerbitzu batzuek sistema sanitarioaren berezko prestazioak eskaini ahal izango dituzte administrazio eskudunek, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 45., 46. eta 56. artikulua betez, erabaki ditzaketen formulen bitartez.

3.– Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren zerbitzuen fitxetan biltzen diren zerbitzu eta prestazio sanitarioak Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kontura finantzatuko dira, eta, horretarako, Eusko Jaurlaritzak bere aurrekontu-proiektuan behar adinako zenbatekoak esleituko ditu urtero prestazio horiek ematearen ondoriozko gastuei aurre egiteko.

4.– Sistema Sanitarioak eta Gizarte Zerbitzuen Sistemak Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapan aurreikusitako premia soziosanitarioen plangintza eta ebaluazioa egingo dute elkarrekin urtero.

5.– Nolanahi ere, sistema sanitarioaren, hezkuntza-sistemaren eta bestelako sistema publikoen berezko prestazioak –Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren zerbitzuen esparruan aurreikusita daudenak– Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 56.3 artikulua arabera finantzatuko dira berezkoak zaizkien sistemen bitartez, eta/edo sistema horiek horrelakorik aurreikusten badute, erabiltzaileak finantzatu beharko ditu. Ondorio horietarako, ez dira beste sistema batzuetako berezko prestazioztat hartuko Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistemari (AMAS) dagozkionak.

6.– Adingabeak babesteko zerbitzuak –Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legean aurreikusita daudenak– eta Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistemaren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen bitartez lortuko dira.

7.– Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistemaren zerbitzu eta prestazioei dagokienez, hau da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren bitartez lortzen direnei dagokienez, Dekretu honetan aurreikusitakoa Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistema arautzen duen arauaren bilakaerara egokituko da, euskal erakundeek dagozkien eskumenak betez gizarte-zerbitzuen eremuan egin dezaketen arau-garapena alde batera utzi gabe.

8. artikulua.– Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa eguneratzea.

1.– Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 24. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzak eguneratu ahal izango du Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren partaidetzarekin eta gainerako euskal administrazio publikoekin dituen koordinazio-eskumenak betez, Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Organoaren bitartez, betiere Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 44.3 artikulua a) letran aurreikusitakoa kontuan hartuta:

a) Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa errealitate sozialean izan diren aldaketetara behar bezala egokitzen ote den erabakitzeke, Zorro horren aplikazioaren eta garapenaren inguruko ebaluazio orokorra egin ondoren. Ebaluazio hori gutxienez lau urtean behin egin beharko da eta Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren ebaluazio-esparruan, jarraipena eta ebaluazioa egiteko jarduntan genero-ikuspegia sartuta. Jardun horiek gauzatzeko sexuaren arabera eta berdintasunaren alorrean prestakuntza duten langileen lehiaketaren arabera bereizitako adierazleak beharko dira.

b) Edozein unetan, zerbitzu modalitate desberdinak ez ezik zerbitzuei eta prestazio ekonomikoiei dagokienez Dekretu honetako 3.1 artikuluan aipatzen diren gainerako elementuak ere sartuz, baztertu edo aldatuz, zerbitzu eta prestazio ekonomiko horiek biztanleriaren premia aldakorretara egokitzen direla bermatzeko eta etengabe modernizatuta egongo direla ahalbidetzeko, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 24.2 artikulua arabera.

2.– Horretarako, euskal administrazio publikoek eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak ikusten badute alderdi horietakoren bat sartu, baztertu edo aldatu behar dela, Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Organoaren bitartez proposatu ahal izango dute. Organo horrek proposamena aztertuko du eta erabaki bat hartuko du Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 44.3 artikulua a) letran aurreikusitakoaren arabera.



## II. KAPITULUA

## ZERBITZUAK ETA PRESTAZIO EKONOMIKOAK LORTZEKO BALDINTZAK ETA IRIZPIDEAK

9. artikulua.– Sistemaren zerbitzuak eta prestazioak lortzeko baldintza orokorrak.

1.– Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak lortzeko, eskatu egin beharko dituzte eta honako baldintza hauek bete beharko dituzte pertsonak:

a) Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 3. artikuluan aurreikusitako titulartasun-baldintzak.

b) Zerbitzuak eta prestazioak lortzeko baldintza orokorrak, kasu guztietan aplika daitezkeenak eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 25. artikuluan aurreikusita daudenak.

c) Administrazio- eta premiako baldintza espezifikoak, zerbitzu edo prestazio ekonomiko bakoitza lortzeko eskatzen direnak eta Dekretu honetan aurreikusita daudenak.

2.– Erroldatze-baldintzei dagokienez, kontrakoa adierazten ez den bitartean, Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren prestazioak edo laguntza ekonomikoak lortzeko, derrigorrezkoa da:

– Eskaera egiten den egunean erroldatuta egotea: a) zerbitzuak emango dituen tokiko erakundeari dagokion udalerrian edo erakunde hari dagokion lurraldeko udalerrri batean, tokiko erakunde batek ematen dituenak lortzeko; b) dagokion Lurralde Historikoko udalerrri batean, Foru Aldundiak ematen dituenak lortzeko; c) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean, Eusko Jaurlaritzak ematen dituenak lortzeko. Zerbitzuen arteko lekualdaketa kasuetan, erroldari buruzko baldintza zerbitzu berrian sartu zeneko data izango da eskaera-data izan ordez.

– Eremu geografiko berean erroldatuta egotea prestazioak edo zerbitzuak lortzen diren denbora guztian, Dekretu honetako 25. artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

3.– Mendetasuna, desgaitasuna, bazterkeria eta babesgabetasuna balioesteko eta diagnostikatzeko zerbitzua lortzeko, aurreko idatz-zatian aurreikusitakoarekin bat etorriz, nahikoa izango da balioespen-eskaera egiten den Lurralde Historikoko edozein udalerritan erroldatuta egotea eskaera egiten den egunean, eta, mendetasun-arriskuko egoeren balioespenei dagokienez, ez da aplikatuko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 3. artikulua 2. idatz-zatiaren bigarren paragrafoan aurreikusitakoa.

4.– Gainera, ezinbestekoa da lortu nahi den zerbitzua edo prestazio ekonomikoa egokia izatea pertsonaren edo familiaren premiei erantzuteko; horretarako, egokitasun hori erreferentziazko profesionalaren preskripzio teknikoan egiaztatu beharko da. Preskripzio hori beharrezko baldintza da Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren prestazio ekonomikoak eta zerbitzuak lortzeko: a) zuzenean lortzen diren zerbitzuak barne, preskripzioarekin lotutako balioespena sartzean edo ondoren egiten den kontuan izan gabe; b) eta informazio-, balioespen-, diagnostiko- eta orientabide-zerbitzuak (1.1, 2.1 eta 2.7.1 fitxak), gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua (2.6 fitxa) eta gizarte-zerbitzuen eremuko parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua (1.5 fitxa) kenduta.

5.– Euskal administrazio publikoek bermatuko dute honako hauek lortuko dituztela Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistemaren prestazioak eta zerbitzuak:

a) Adingabe orok, baldin eta mendetasun-egoeran edo mendetasun-arriskuan badago, adingabe horren jatorri nazionala edo aurreko administrazio-egoera zein den kontuan hartu gabe; eskubidearen titulartasuna ez du adingabe horren gurasoen administrazio-egoerak eragotziko, ezta administrazio-egoera erregularrean epe jakin batean egon dela ez egiaztatzeak ere.

b) Espainiako nazionalitatea lortu ondoren, bertan bizitzen benetan bost urte daramatela egiaztatu dezaketenek (bost urte horietatik bi eskaera-dataren aurreko segidako urteak izango dira).

c) Mendetasun-egoeran dauden Erkidegoko herritarrek eta Erkidegoaren erregimena aplikatu behar zaien pertsonak. Pertsona horiek eta estatukoak berdinak izango dira Sistemari sartzeari dagokionez.

6.– Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriak buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan, eta bereziki Lege horretako 17.1 eta 19. artikuluetan ezarritakoa betetzeko, genero-indarkeriaren biktima diren eta Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsona guztiek –emakumeek eta emakume horien guraso-ahalaren, zaintzaren eta jagoletzaren mende dauden adingabeek– Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren prestazioak eta zerbitzuak –esanbidez haien zaindaria direnak– lortu ahal izango dituzte (1.9.1, 2.4.6, 2.7.1.2, 2.7.3.1, 2.7.5 eta 3.1.2 fitxak), eta ez zaie administrazioko baldintzarik eskatuko, preskripzio teknikoak nahikoak izango baita.

10. artikulua.– Administrazio-baldintza espezifikoak.

1.– Prestazio eta Zerbitzuen Zorroan zerbitzu edo prestazio ekonomiko jakin bat lortzeko, zerbitzu edo prestazio ekonomiko horretarako I. eranskinean aurreikusitako administrazio-baldintza espezifikoak bete beharko ditu eskatzaileak. Baldintza horiek, hala badagokio, honako alderdi hauekin lotuta egon daitezke:

a) Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 3. artikuluan aurreikusitako aurretiko erroldatze-epe osagarriekin. Epe horiek zerbitzu edo prestazio ekonomiko jakin batzuei dagokienez zehaztuta daude, hala badagokio.

b) Kasu bakoitzean dagokion aitorpenarekin: mendetasun-arriskuaren edo mendetasun-egoeraren aitorpena; desgaitasunaren kalifikazioa; gaixotasun mentalaren diagnostikoa; babesgabetasun-arrisku edo -egoeraren aitorpena; bazterkeria-arrisku edo -egoeraren aitorpena.

c) Bizikidetzaren egoera eta/edo ahaidetasun-maila.

d) Adina.

e) Prezio publikoa ordainduko delako konpromisoa, koordainketari lotutako zerbitzuak badira.

f) Baimena, baliozkotasun juridikoaren baldintzetan adierazia, 15.b) artikuluan aurreikusitako lanbide-jardunak direnean izan ezik.

g) Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa eguneratzearen ondorioz sor daitezkeen bestelako alderdiak. Eguneratze hori 8. artikuluan aurreikusita dago.

2.– Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren zerbitzu batzuetan aurreikusitako koordainketa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioen eta zerbitzuen finantzaketan ordaintzera behartuta dauden pertsonen partaidetza ekonomikoaren irizpide orokorren arabera ezarri beharko da, baita prezio publikoak arautzen dituzten arauen arabera ere. Prezio horiek, irizpide orokor horiei dagokienez, euskal administrazio publikoek beren eskumeneko zerbitzuei buruz ematen dituztenak dira.

11. artikulua.– Premia-baldintza espezifikoak eta horiek balioesteko tresnak.

1.– Prestazio eta Zerbitzuen Zorroan zerbitzu edo prestazio ekonomiko jakin bat lortzeko, zerbitzu edo prestazio ekonomiko horretarako I. eranskinean definitutako premia-baldintza espezifikoak bete beharko ditu eskatzaileak. Baldintza horiek, hala badagokio, honako alderdi hauekin lotuta egon daitezke:

a) Premia-egoera egotea: mendetasun-arriskuko egoera, babesgabetasun-egoera edo bazterkeria-egoera; aitortutako mendetasun-egoera, babesgabetasun-egoera edo bazterkeria-egoera; diagnostikatutako desgaitasun edo gaixotasun mentala; gizarte-zerbitzuek erantzun diezaizketen gizarte-larrialdiko egoera.



- b) Eskatzen den arreta edo laguntza formal mota.
- c) Eskatzen den laguntza formalaren edo arretaren intentsitatea.
- d) Gizarte- eta familia-sareak emandako laguntzen erabilgarritasuna, hala badagokio (laguntza informala edo zaintza ez-profesionalak).
- e) Bizitokia egokitzea pertsonak bertan jarraitzeko edo zerbitzuak behar bezala esku hartzeko, hala badagokio.
- f) Zerbitzua edo prestazio ekonomikoa lortzeko bazterkeriari lotutako kasuak izatea ekarriko duten ezaugarriak edo zirkunstantziarik ez izatea.
- g) Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa eguneratzearen ondorioz sor daitezkeen bestelako alderdiak. Eguneratze hori 8. artikuluan aurreikusita dago.

2.– Premiazko egoera bat dagoela esateko, halakotzat hartu behar dute euskal administrazio publiko eskudunek, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 20. artikuluan aurreikusitako tresna tekniko komunak aplikatuz, edo, hala badagokio, horretarako baliozkotutako adierazle eta irizpide teknikoak aplikatuz.

3.– Mendetasunaren, babesgabeziaren eta bazterkeriaren eremuei dagokienez, tresna, adierazle eta irizpide tekniko horiek arrisku-egoerak mugatu beharko dituzte arriskurik ez dutenei dagokienez eta arrisku-maila gainditu dutenei dagokienez ere bai.

4.– Mendetasun-eremuan, Autonomia eta Mendetasunaren Arretarako Sistemaren esparruan estatuan indarrean dauden balioespen-tresnak aplikatu beharko dira nahitaez, eta tresna horien bitartez ezarriko dira mendetasun-arriskuko egoerak ere. Egoera horiek, Dekretu honen ondorioetarako, Mendekotasunaren Balorazio Baremoan (MBB) 23ko edo 24ko puntuazioa lortzen dutenak izango dira.

5.– Adingabeak babestearen eremuan, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen aplikazio-esparruan autonomia-erkidegoan indarrean dauden tresnak aplikatuko dira.

6.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak, edo bestelako sistemek, balioespen-tresnak aplikatzen dituztenean Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara bideratzeko asmoz, Sistema horrek aplikatzen dituen balioespen-tresnekiko baliokidetza-zubiak ezarriko dira.

12. artikulua.– Baliabidearen edo baliabide-konbinazioaren egokitasuna, eta preskripzio teknikoa.

1.– Aurreko artikuluan aurreikusitakoaren arabera, premia-egoera dagoela aitortzen bada, egoera horri erantzun diezaioketen Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren zerbitzua eta/edo prestazio ekonomikoa, edo zerbitzu eta/edo prestazio ekonomiko sorta ezarriko da.

2.– Hala badagokio, pertsonak lortu ahal izango duen baliabidea (zerbitzua eta/edo prestazio ekonomikoa) edo baliabide-konbinazioa –sorta horretan daudenen artekoa– detektatutako premiei erantzuteko baliabide horrek duen egokitasun-maila hartuko da kontuan.

3.– Premiei erantzuteko baliabideak edo baliabide-konbinazioak duen egokitasun-maila premiazko baldintza espezifikoekin lotutako honako elementuen arabera izango da:

a) Pertsonaren, familiaren, bizikidetasunaren eta harremanaren egoeraren egokitasun-maila handia edo txikia izatea, gizarte- eta familia-sareak emandako laguntza informalen eskuragarritasuna barne, eta, hala badagokio, etxebizitzaren ezaugarrien egokitasun-maila handia edo txikia izatea.

b) Eskatutako laguntza mota eta intentsitatea eskatzeko gaitasuna handiagoa edo txikiagoa izatea.

4.– Baliabidearen edo sorta horretatik hautatutako baliabide-konbinazioaren egokitasuna erreferentziazko profesionalaren preskripzio teknikoan justifikatu beharko da.

5.– Baliabidea ezartzeko, erreferentziazko profesionalak erabiltzailearen partaidetza izango du eta profesionalak kontuan izango du erabiltzaileak bere kasurako egokiena den zerbitzua –eta, hala badagokio, modalitatea– modu librean aukeratzeko eskubidea duela, baliabidearen eskuragarritasunaren arabera eta profesionalaren orientabidea eta preskripzio teknikoa aintzat hartuta, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 9.1 artikulua k letran aurreikusitakoaren arabera.

Halaber, profesionalak faboratuko du, betiere egokia bada, erabiltzailea bere ohiko ingurunean egotea ahalik eta gehien ahalbidetzen duen arreta eskaintzeko alternatiba edo alternatibak lortzea, betiere hori aukeratzeko bada, eta justifikatu egin beharko du ez dagoela erabiltzaileari betiko ingurunea utzarazi beharrik gabe arreta eskaintzeko beste modu egokirik, betiere Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 25.1.c) letran aurreikusitakoaren arabera. Gauzak horrela, sustatuko du pertsonak: a) beren bizitzari lotutako erabakiak hartzeko ahalmena erabiltzea, beren bizilekua eta non eta norekin bizi nahi duten hautatuz, bizitza-sistema espezifiko baten arabera bizitzera behartuta egon gabe; b) eta beren komunitatean bizitzeko eskubidea baliatzea, baldintza eta aukera berdinetan, komunitate horretan erabat sartuta eta partaidetza aktiboa izanik, erabiltzailea komunitate horretatik isolatzea edo bereiztea saihestuz. Horretarako, ahalbidetuko du pertsonak laguntza formalak izatea (Prestazio eta Zerbitzuen Zorroan aurreikusitako zerbitzuen eta/edo prestazio ekonomikoen artetik, betiere pertsona horrek haiek baliatzeko eskubidea badu) beren eguneroko bizitzako jarduerak garatzeko eta beren autonomiari eusteko, berreskuratzeko edo handitzeko, ahal den neurrian.

6.– Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren zerbitzuek laguntza formalen multzo bat eratzen dute eta laguntza horiek bateragarri egin daitezke elkarrekin laguntza integrala emateko eta esku-hartzea pertsona bakoitzaren premietara, gaitasunetara, eta, ahal den neurrian, lehentasunetara egokitzeko, baita pertsona horren testuinguruaren ezaugarrietara egokitzeko ere. Halaber, baliabide egokiena edo baliabide-konbinazio egokiena ezartzeko garaian, eta Erkidegoko ereduarekin bat etortzeko garaian, autonomiaren prebentzioko eta sustapeneko, komunitatean parte hartzeko eta bizi-kalitateko ikuspegiak hartuko dira kontuan.

7.– Horretarako, erreferentziazko profesionalak, erabiltzailearen (pertsona eta/edo familia) partaidetzarekin, Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren zerbitzuetatik eta/edo prestazio ekonomikoen artetik, hau da, pertsonak lortzeko eskubidea duten baliabideen artetik, pertsona edo familia hori gizarteratzea, bere bizi-proiektuak garatzea eta komunitatearen barruan duen partaidetza aktiboaren, bizimodu independentearen eta autonomia pertsonalaren maila ahalik eta handiena izatea, kasuak kasu, ahalbidetzeko baliabide egokiena edo baliabide-konbinazio egokiena hautatu beharko du.

8.– Prestazio ekonomikoak prestazio ekonomiko horietako bakoitzerako I. eranskinean aurreikusten den bateragarritasun- edo bateraezintasun-erregimenera egokituko dira.

9.– Bateragarritasun-kasuetan, gutxitzeak aplikatuko dira zerbitzuen intentsitatean eta/edo prestazio ekonomikoen zenbatekoan.

13. artikulua.– Zerbitzuak lortzeko eta zerbitzuetan jarraitzeko baldintzak malgutzea.

1.– Euskal administrazio publikoek, berez edo beren arteko akordioen bitartez, zerbitzuak lortzeko eta zerbitzuetan jarraitzeko baldintzak malgutu ahal izango dituzte; akordio horietan, lortzen

badira, baldintzak malgutu diren zerbitzuaren titularra den administrazioaren aldeko konpentsazio ekonomikoa ezarri beharko da.

2.– Malgutze-formula horiek:

a) arreta etengabe ematea eta komunitate-ingurunean gehien txertatuta dauden arreta-alternatiben erabilera, eta, beraz, arreta pertsonalizatuagoa, integralagoa eta hurbilagokoa ematea ahalbidetzera bideratuko dira beti;

b) formula horiek erabili ahal izango dira betiere egokiak badira artatutako pertsonaren premiei, eta, ahal den neurrian, lehenetsunean erantzuteko, baina formula horiek hartzeko preskripzio teknikoa beharko da, baita artatutako pertsonaren adostasuna ere.

### III. KAPITULUA

#### PROZEDURAZKO XEDAPENAK

14. artikulua.– Araudi aplikagarria.

1.– Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak jasotzeko prozedurak, bi motatako edozeinetan, Dekretu honetako xedapen orokorrak eta komunak eta Dekretu hau garatzeko xedapenak ez ezik, xedapen horietara egokituz, euskal administrazio publikoen eskumenekoak diren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak jasotzeko administrazio horiek ezartzen dituzten prozedura espezifikoak ere bete beharko ditu.

2.– Araudia aplikatzen denean, oro har:

– Bermatuko da, hizkuntza-araudia eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 7. artikuluan c) letran eta 9.1 artikuluan l) letran aurreikusitakoa betetzeko, erabiltzaileek euskara eta gaztelania erabiltzeko askatasuna izango dutela eta erabiltzaileek bi hizkuntza horietako edozeinetan artatuak izateko eskubidea izango dutela, norberak hobesten duenaren arabera.

– Era berean, zeinu-hizkuntzako interpreteen zerbitzuaren bitartez, bermatuko da zeinu-hizkuntza erabiliko dela zerbitzuak eta prestazio ekonomikoa lortzeko ohiko prozeduran eta premiazko prozeduran.

– Baliabide egokiak hartuko dira Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean administrazio publikoen eskuetan dauden datuak ez emateari dagokionez, biltzen diren aurreikuspenak errespetatzeko eta izapidetzean lortutako datuen konfidentzialtasuna errespetatuko dela bermatzeko, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legean aurreikusitakoaren arabera.

– Administrazio-eraginkortasunerako eta administrazio-ekonomiarako, sustatuko da, ahal den neurrian, zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen izapidetze telematikoa ezartzea.

15. artikulua.– Prozeduraren hasiera.

Bi modutan hasi ahal izango da zerbitzua edo prestazioa lortzeko prozedura:

a) Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 3. artikuluan aurreikusitako titulartasun-baldintzak betetzen dituen eta Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren prestazioen eta zerbitzuen esparruan estaldura-xede diren kontingentzia edo egoeraren batek eraginpean hartzen duen pertsonak eskatuta. Pertsona horrek zuzenean edo haren ordezkariaren bitartez aurkeztu ahal izango du eskaera.

b) Ofizioz, administrazio eskudunaren bidez edota agintaritza judizialak eskatuta, indarrean dagoen legerian aurreikusitako kasuetan. Adingabeen babesaren eremuko kasuetan, administrazio eskudunak haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen aurreikuspenetara egokituko dira. Babesgabetasun-egoeran dauden helduen kasuan, gizarte-zerbitzuetan eskumena duten administrazioek agintaritza judizialak eskatuta esku hartu ahal izango dute.

16. artikulua.– Prozedura motak.

Zerbitzuak eta prestazioak lortzeko prozedurak bi motatakoak izan daitezke: haiek lortzeko prozedura arrunta eta haiek lortzeko premiazko prozedura.

## 1. ATALA

### ZERBITZUA EDO PRESTAZIOA LORTZEKO PROZEDURA ARRUNTA

17. artikulua.– Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren bitartez lortzeko aukera.

Oro har, Prestazio eta Zerbitzuaren Zorroaren prestazioak, laguntzak eta zerbitzuak lortzeko, interesdunek beren bizilekuari dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzura jo behar dute, I. eranskinean zuzenean lortzen diren zerbitzu gisa definituta dauden zerbitzuen kasuan izan ezik.

18. artikulua.– Lehen mailako arretari buruzko balioespena eta gizarte-diagnostikoa.

1.– Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Udal Gizarte Zerbitzuko gizarte-langile baten edo zerbitzu horretako beste profesional baten bitartez, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 19.4 artikulua a) letran aurreikusitakoaren arabera, premien hasierako balioespen bat egingo du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esku-hartzea bidezkoa ote den erabakitzeko.

2.– Profesional horrek hartuko du bere gain esku hartzeko oinarrizko prozeduraren hasierako fasean aipatzen den eginkizuna, eta, bereziki, premien hasierako balioespena eta, hala badagokio, hasierako gizarte-diagnostikoa.

3.– Hasierako balioespen horren emaitza gisa, profesional horrek honako hau adierazi behar du:

a) Kasuak ez du eskatzen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak esku hartzea.

Hori horrela izanik, egindako kontsulta idatziz jasoko du, eta, hala badagokio, aurkeztutako premiari erantzuteko arreta-sistema egokienera bideratu dela, espedienterik ireki ireki.

b) Azaldutako premia Udalaren Gizarte Zerbitzuaren esku-hartze puntual baten bitartez estali daiteke, eta ez da jarraipenik egin beharko.

Kasu horretan, eskaera-orri bat emango dio interesdunari, hark bete eta sina dezan, eta dagokion dokumentazioa erantsi dezan. Ondoren, bidezko esku-hartzea egingo du eta, amaitu ondoren, amaiera emango dio espedienteari.

c) Litekeena da jarraipena egitea eskatzen duen esku-hartze bat beharrezkoa izatea.

Kasu horretan, erreferentziazko profesionalak hasierako gizarte-diagnostikoa egingo du, esku-hartze mota hori beharrezkoa dela egiaztatzeko, salbu eta Udalaren Zerbitzu Sozialaren ustez beharrezkoa bada balioespen eta/edo diagnostiko espezializatu bat egitea.

19. artikulua.– Bigarren mailako arretari buruzko balioespen eta gizarte-diagnostiko espezializatuak.

1.– Udalaren Gizarte Zerbitzuaren ustez ezinbestekoa bada Mendetasuna, Desgaitasuna, Bazterkeria eta Babesgabetasuna Balioesteko eta Diagnostikatzeko Foru Zerbitzuaren balioespena eta/edo gizarte-diagnostikoa (2.1 Fitxa) egitea, erreferentziatzeko profesionalak honako agiri hauek igorriko ditu Zerbitzu horretara: balioetsi eta/edo diagnostikatu behar den egoera bizi duen pertsonak sinatutako balioespen-eskaera eta premien hasierako balioespena, eta, egin baldin bada, hasierako gizarte-diagnostikoa, baita sakoneko gizarte-diagnostikoa ere; hori guztia Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko baliabideari buruzko maiatzaren 28ko 353/2013 Dekretuan biltzen denaren arabera.

2.– Foru-administrazio eskudunak balioespen espezializatua egingo du, eta, hala badagokio, diagnostiko espezializatua, eta, haietatik ateratzen diren emaitzen arabera, eskatzaileak lortzeko aukera izango duen prestazio ekonomikoen eta/edo zerbitzuen sorta ezarriko du, horretarako, premiei erantzuteko egokientzat hartzen dituen bigarren mailako arretako baliabiderea edo balia-bide-konbinazioa (zerbitzuak eta/edo prestazio ekonomikoak) zehaztuko du.

3.– Balioespen espezializatuaren barnean mendetasun-egoeraren, desgaitasun-egoeraren, bazterkeria-egoeraren eta babesgabetasun-egoeraren baremazioa sartuko da, edo hala badagokio, mendetasun-arriskuaren, bazterkeria-arriskuaren eta babesgabetasun-arriskuaren egoerak. Baremazio hori Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 20. artikuluan aurreikusitako balioespen- eta diagnostiko-tresna komunak arabera egingo da. Balioztatzen bada balioetsi behar diren egoerak bazterkeria-arriskuko edo babesgabetasun-arriskuko egoerak izan daitezkeela, Udalaren Gizarte Zerbitzuak egin ahal izango du baremazioa.

4.– Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 19.4 artikuluan a) letran eta 30.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, esku hartzeko eskatu zaien beste administrazio publiko batzuek hartutako erabakiak –eta bereziki balioespen eta diagnostiko espezializatuaren ardura duten profesionalak hartutako erabakiak–, dagozkien administrazio-organoen bitartez eman direnak, lotesleak izango dira erreferentziatzeko profesionalarentzat (kasuaz arduratu denarentzat) haien mendekoa den prestazioa edo zerbitzua lortzeko baimena ematea edo ukatzea erabaki behar dutenean.

5.– 30.2 artikuluan aipatzen denaren arabera, foru-aldundiek balioespen eta diagnostiko espezializatuaren eginkizunak gauzatzeko, koordinatu egin beharko dute eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren –eta bereziki informatzeko, balioesteko, diagnostikatzeko eta orientatzeko Zerbitzuaren (1.1 fitxa)– partaidetza izango dute, baita, hala badagokio, ordura arte erabiltzaileari eta/edo haren familiari orientabidea eman dion profesionalaren partaidetza ere, erabiltzailea eta/edo haren familia Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako kide den edo ez kontuan izan gabe.

20. artikulua.– Arreta Pertsonalizatuko Plana (APP) egitea eta esku-hartzeari jarraipena egitea.

1.– Balioespena eta hasierako gizarte-diagnostikoa (sakona eta/edo espezializatua) egin ondoren, eta balioespen nahiz diagnostiko horiek berresten badute jarraipena egitea eskatu duen esku-hartze bati hasiera eman behar zaiola, behin betiko erreferentziatzeko profesional bat esleituko zaio pertsona edo familia erabiltzaileari.

2.– Erreferentziatzeko profesionalak kasuaren koordinazioa hartuko du bere gain, Arreta Pertsonalizatuko Plana egingo du, Planaren helburuak eta jardunak zehatuz, aurreikusitako jardunak jarriko ditu abian eta esku-hartzearen jarraipena egingo du, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu guztiekin (lehen mailakoak eta bigarren mailakoak) –Arreta Pertsonalizatuko Planean sartuta dagoen pertsonak edo sartuta dauden pertsonak erabiltzen dituzten zerbitzuekin– koordinatuz.

3.– Era berean, konpromisoa hartuko du, hala badagokio, jatorrizko oinarrizko gizarte-zerbitzuan erreferente gisa jardun zuen profesionalari informazioa emateko, bereziki profesional horrek erabiltzailearekin edo familiarekin harremanetan jarraitzen badu arretaren beste eremu batzuetan; eta, hala badagokio, aurretiko esku-hartzea garatu duten profesionalekin elkarlanean lan egingo du, esku-hartze hori Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema osatzen duen zerbitzu baten barnean sartuta dagoen ala ez kontuan izan gabe.

4.– Arreta Pertsonalizatuko Planak esku hartzea eskatuko dutela aurreikusten diren zerbitzuen eta prestazioen multzoa definituko du balioespenaren eta diagnostikoaren arabera eskatzaileak lor litzakeela zehaztu direnen artetik. Ondoren, erabiltzaileak lortzen duen edo dituen zerbitzuak edo zerbitzuek programazio indibiduala egin ahal izango du edo dute esku-hartzea premia indibidualetara hobeto egokituko dela bermatzeko.

5.– Arreta Pertsonalizatuko Plana egiteko, atzeman diren egoeren (bazterkeria, babesgabezia, mendetasuna eta/edo desgaitasuna nahiz bazterkeria-arriskua, babesgabetasun-arriskua eta/edo mendetasun-arriskua) arreta goiztiarra sustatuko du erreferentziazko profesionalak, lau gertakizunen arteko elkarreragina egon daitekeela kontuan hartuta eta haien bilakaeraren jarraipena egingo du, eta, bidezkoa denean lehenengo baremazioa egin edo eskatuko du, edo hura eguneratu egingo du edo eguneratzeko eskatuko du. Era berean, arreta koherentea eta integrala emateko, pertsona edo familia berarekin hasitako beste plan batzuk –beste arreta-sistema batzuen esparruan egingandakoak– hartuko ditu kontuan.

6.– Arreta Pertsonalizatuko Plana, eta, hala badagokio, Plan hori garatuko duen programazio indibiduala eta jarraipena ez ezik, balioespina eta gizarte-diagnostikoa ere pertsona edo familia erabiltzailearen partaidetzarekin edo pertsona edo familia hori legez ordezkatzan duen pertsonaren edo erakundearen partaidetzarekin egin beharko dira, ahal den neurrian, arreta eskatu eta aurretiko baimena eman ondoren, 15. artikularen b) letran aurreikusitako kasuetan ofizioz jarduten denean izan ezik.

7.– Jarraipenean aldizkako ebaluazioak (jarraipen-balioespenak) egingo dira eta ebaluazio horiek planaren helburuak eta jardunak alda ditzakete. Horretarako, ez da balioespina eta gizarte-diagnostikoa (hasierakoak edo espezializatuak) eguneratu beharrik izango pertsona edo familia erabiltzaileari arreta emateko egoeran eta premietan aldaketa esanguratsurik ez dagoen arte.

8.– Jarraipenaren aldizkakotasuna pertsona edo familia erabiltzaileen egoerara eta haien bilakaerara egokituko da, kontuan hartuta gertakizunak (bazterkeria, babesgabezia, mendetasuna, desgaitasuna) konbinatuta azaltzen diren, eta mendetasuna duten pertsonen dagokienez, desgaitasun anitzeko egoerarik ote dagoen.

9.– Jarraipenaren esparruan egindako aldizkako ebaluazioen emaitzen arabera, beste alderdi batzuen artean, erreferentziazko profesionalak sustatuko du laguntzak (bereziki, Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren zerbitzu eta prestazioak) erabiltzaileen premien, gaitasunen eta, ahal den neurrian, lehenetsuen bilakaerara etengabe egokitzea, baita erabiltzaile horien testuinguruaren bilakaerara ere, erabiltzaile horien gizarte- eta familia-sarea kontuan hartuta bereziki.

10.– Prozedura horretan guztian, baloraziotik eta diagnostikotik hasita Arreta Pertsonalizatuko Plana eta jarraipena egin arte, genero-ikuspegia txertatuko da.



21. artikulua.– Arreta Pertsonalizatuko Plan bati lotutako zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak eskatzea.

1.– Behin Arreta Pertsonalizatuko Plana diseinatuta, Zorroaren zerbitzuak eta/edo prestazio ekonomikoak –Plan horretan aurreikusita daudenak– lortzeko, erabiltzaileak edo haren legezko ordezkariak, gai horri dagokionez erreferentziatzko profesionalak behar bezala orientatuta eta lagunduta, bere eskaera egin beharko du, 15. artikulua b) letran aurreikusitako kasuetan ofizioz jarduten denean izan ezik.

2.– Eskaerarekin batera, euskal administrazio publikoek beren eskumeneko zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak lortzeko xedapen erregulatzaileretan bideratzeko eta ebazteko aurreikusten duten dokumentazioa aurkeztu beharko du.

22. artikulua.– Ebazpena.

1.– Eskatutako zerbitzua edo prestazio ekonomikoa emateko eskumena duen administrazioak (udal-administrazioak, foru-administrazioak edota Autonomia Erkidegokoak) ebazpena eman eta eskatzaileari jakinarazi beharko dio, behar bezala argudiatuta, Dekretu hau garatzeko xedapenetan ezartzen diren epeetan. Epe horiek, nolana ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean oro har aurreikusitako gehieneko epeak errespetatu beharko dituzte.

2.– Epe horiek ez zaizkie aplikatuko, beren izaera direla medio larrialdi-egoerak artatu ditzaketen zerbitzuei, benetan gizarte-larrialdiko egoerak edo bestelako larrialdiko egoerak artatzen dituztenean, eta bereziki ez zaizkie aplikatuko 29. artikulua 4. idatz-zatian aipatzen diren zerbitzuei.

3.– Epeak zenbatzean, eskatzaileari egotz dakizkikeen arrazoiengatik espedientea etenda egon den denbora ez da kontuan hartuko.

4.– Autonomia-erkidegoko administrazioak edo foru-administrazioak emandako ebazpena bada, administrazio horrek dagokion Udalaren Gizarte Zerbitzuari jakinarazi beharko dio ebazpenaren edukia, eta baimena ematen bada, zerbitzua eta/edo prestazio ekonomikoa lortu zeneko data.

23. artikulua.– Atzera egitea.

1.– Alderdiak eskatuta hasitako prozeduraren edozein unetan, eta ebazpena eman aurretik, eskatzaileak, edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak atzera egin dezake bere eskaeran bere nahia jasota geratzea ahalbidetuko duen edozein bitarteko erabiliz, izapidetzearen ardura duen funtzionarioak sinatutako eginbidea barne, baldin eta funtzionario horri aurrez aurre edo bitarteko elektronikoen edo telematikoen bitartez esanbidez jakinarazi bazaio atzera egin nahi duela, betiere bermatzen bada Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 12ko 21/2012 Dekretuan ezarritako baldintzak betetzen direla jakinarazpen horiek baliozkotzat hartzeko.

2.– Eskaera artxibatuko da eta espedienteari amaiera emango zaio, ebazpena eman ondoren; atzera egitea formalizatuko da edo, halaber, eskaera atzera egintzat hartuko da, baldin eta:

a) Eskaera egin duen pertsonari aurkezpenean egindako akatsak zuzentzeko errekerimendua egiten bazaio, eta horretarako finkatutako epean zuzentzen ez baditu.

b) Prestazioa edo zerbitzua lortu nahi duen pertsonak balioespina edo diagnostikoa egiteko beharrezkotzat hartzen den jarduera orotan parte hartu nahi ez badu.

24. artikulua.– Uko egitea.

Alderdiak eskatuta hasitako prozeduran baimena emateko ebazpena eman bada, eskatzaileak, edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak uko egin ahal izango dio bere eskubideari bere

nahia jasota geratzea ahalbidetuko duen edozein bitarteko erabiliz, izapidetzearen ardura duen funtzionarioak sinatutako eginbidea barne, baldin eta funtzionario horri aurrez aurre edo bitarteko elektronikoen edo telematikoen bitartez esanbidez jakinarazi bazaio uko egin nahi diola, betiere bermatzen bada Administrazio Elektronikoa buruzko otsailaren 12ko 21/2012 Dekretuan ezarritako baldintzak betetzen direla jakinarazpen horiek baliozkotzat hartzeko.

25. artikulua.– Eskubidea eteteko eta iraungitzeko kausak eta prozedura.

1.– Oro har, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu edo prestazio ekonomiko baterako eskubidea aitortu eta erabiltzailearen izaera eskuratu ondoren, honako kausa hauengatik kendu ahal izango da eskubide hori:

a) Eskubidea onartzeko eskatutako betebeharren bat aldi baterako galduz gero.

b) Dagokion zerbitzuari edo prestazio ekonomikoari dagokionez espezifikoki aurreikusitako bazterkeria-arrazoien bat gerora agertu izana aldi batean.

c) Onuraduna Euskal Autonomia Erkidegoko beste udalerrri batera, beste Lurralde Historiko batera edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo lekuz aldatzea aldi baterako, salbu eta:

– Lurralde Historikoko udalerrri batetik beste batera aldatzen bada, foru-aldundiaren edo autonomia-erkidegoaren zerbitzuaren erabiltzailea bada edo Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historiko batetik beste Lurralde Historiko batera aldatzen bada eta autonomia-erkidegoaren esku-meneko zerbitzu baten erabiltzailea bada;

– bizilekuen arteko txandakate-kasuetan, zaintza informala, txandakatuta, beren gain hartzen duten senideak bat baino gehiago badira, betiere erabiltzailea lekuz aldatuko den bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen barnean badago; kasu horretan, dagokion zerbitzua edo prestazioa ematen zuen administrazioak zerbitzu edo prestazio hori emateaz arduratu behar duen administrazioa bidaliko du espedientea;

– lekuz aldatzen den pertsona edo pertsonak indarkeriaren biktimak diren emakumeak badira, segurtasun-arrazoientatik, eta emakume horien mendekoak direnak.

d) Egonez gero, prezio edo tasa publikoa ordaintzeko konpromisoak behin eta berriz ez betetzea.

e) Arreta Pertsonalizatuko Planaren esparruan hartutako konpromisoak behin eta berriz ez betetzea.

f) Zerbitzu edo prestazio ekonomikoaren onuradunei egotz dakiekeen falta oso astunagatik zehapena, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 93.5 artikuluan aurreikusten denaren arabera.

2.– Oro har, Zorroaren zerbitzu edo prestazio ekonomiko baterako eskubidea aitortu eta erabiltzailearen izaera eskuratu ondoren, honako kausa hauengatik iraungi ahal izango da eskubide hori:

a) Erabiltzailearen heriotza.

b) Erabiltzaileak uko egin izana, Dekretu honen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

c) Emakidari buruzko ebazpenean zerbitzurako edo prestazio ekonomikorako finkatutako epea igaro izana.

d) Zerbitzua edo prestazioa lortzeko eskatutako baldintza orokorrak edo espezifikokoak gerora eta etengabe bete ez izana.

e) Dagokion zerbitzuari edo prestazio ekonomikoari dagokionez aurreikusitako bazterkeria-arrazoiren bat gerora eta etengabe agertu izana.

f) Erabiltzailea beste udalerrri batera edo beste Lurralde Historiko batera edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo lekuz aldatu izana betiko, aurreko idatz-zatiaren c) letran aipatutako kasuetan izan ezik.

3.– Euskal Administrazio Publikoek eskubidea eteteko eta iraungitzeko prozedura arautuko dute beren eskumeneko zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak lortzeko araudian, eta erabiltzaileari bermatuko diote, besteak beste, prozeduraren izapidetzearen egoerari buruzko informazioa jasotzeko, alegazioak egiteko eta entzunaldi-izapidean entzuna izateko eskubidea duela.

26. artikulua.– Datu pertsonalak ematea eta haien tratamendua.

1.– Datu pertsonalak biltzerakoan, erabiltzaileei informazioa eman behar zaie Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan eskatzen diren alderdiei buruz, baita bereziki babestutako datuei dagokienez 7. artikuluan biltzen diren aurreikuspenei buruz ere.

2.– Datu pertsonalak eskatzeari eta tratatzeari dagokionez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak ematen parte hartzen duten euskal administrazio publikoek eta erakunde pribatuek bermatuko dute datuen kalitatearen eta segurtasunaren printzipioak –Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 4.1 eta 9. artikuluetan, hurrenez hurren, arautzen direnak– beteko direla. Babes hori, azken kasu horretan, abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 79. artikulutik 114. artikulura bitartekoetan osatzen da.

3.– Uko egiteari edo atzera egiteari dagokionez, baldin eta gertatzen badira, datu pertsonalak ezereztu egingo dira Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 4.5 artikuluan aurreikusitakoaren arabera; horretarako, informazioa blokeatu egingo da, eta ondoren, ezabatu.

## 2. ATALA

### ZERBITZUA EDO PRESTAZIO EKONOMIKOA URGENTZIAZ LORTZEKO PROZEDURA

27. artikulua.– Arreta urgentziaz lortzeko prozedura eta arretaren edukia urgentziaz lortzeko egoeretara egokitzea.

1.– Arreta urgentziaz lortzeko prozedura eta arretaren edukia aldatu egingo dira baldin eta erantzuna eman behar zaien egoerak honako hauek badira:

a) gizarte-larrialdiko egoerak; larrialdiko lehen arreta berehala lortzeko aukera antolatuko da, denboran oso mugatua izango da, eta ostatu emateko alternatiba lortzea eskatzen bada, arreta hori amaituko da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren ostatu-zerbitzu batera edo egoitza-zentro batera bideratzen denean;

b) edo urgentziaz lortzeko bestelako egoerak, aldi baterako arreta arrunta premiaz eta lehen-tasunez lortzeko aukera antolatuz. Arreta horretan, hala badagokio, Gizarte Zerbitzuen euskal Sistemaren ostatu-zerbitzu bat edo egoitza-zentro bat lortzea sartuko dira.

28. artikulua.– Sarbidea gizarte-larrialdiko egoeretan.

1.– Honako hau hartuko da gizarte-larrialdiko egoeratzat: kausa naturalak edo eragindakoak direla medio aurreikusi gabeko gertakari batek eragindako egoera, gaitasun pertsonalak, bizirau-teko baliabideak eta bitartekoak, gizarteko eta familiako harremanak edo sareak, eta segurtasuna eraginpean hartzen dituen eta estuasunean jartzen dituen, eta horren ondorioz, eraginpeko pertsonak babesgabetasun-egoera larrian geratzen direnez, larrialdiko lehen arreta, berehalakoa eta ezinbestekoa behar dute, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak gertakari horietatik eratorritako gizarte-premiei erantzuteko eta egoera hori ez larriagotzeko eta kalte handiagorik ez eragiteko. Gertakari horiek pertsona bat, familia bat edo bizikidetzaren unitate bat, batzuk edo biztanleriaren zati esanguratsu bat har dezakete eraginpean, kasu horretan, hondamendiak edo larrialdi handiak dira, eta dauden larrialdi-planen esparruan hartu beharko da esku, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak plan horien esparruan edo ondoren antolatu behar dituen esku-hartzeak alde batera utzi gabe.

2.– Gizarte-larrialdiko egoeretan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema Udalaren Gizarte Zerbitzuen edo Gizarte Larrialdietarako Koordinazio Zerbitzuaren bitartez lortuko da (2.6 fitxa) eta bi zerbitzu horiek emango dute larrialdiko lehen arreta, ondorengo idatz-zatietan aurreikusiko denaren arabera.

3.– Urgentziatzko lehen arreta edo berehalako arreta premien behin-behineko balioespena – ondorengo balioespenarekin lotuta egongo dena– egitea izango da, betiere beharrezkoa bada: a) gizarte-larrialdia gertatu den lekura joatea larrialdi horren eraginpeko pertsonak in situ artatzeko; b) premia-egoerak in situ atzematea; c) eraginpeko pertsonari edo pertsonen osasun-zentroetara, polizia-bulegoetara edo bulego judizialek edo beste bulego batzuetara laguntzea; d) beharrezkoa denean, kasuaren arreta dagozkion zerbitzuetara bideratzea, al bait lasterren, eta, bereziki eta hala badagokio, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren ostatu-zerbitzuetara eta egoitza-zentroetara bideratzea.

4.– Urgentziatzko lehen arreta emateko ez da beharrezkoa izango Gizarte Larrialdietarako Koordinazio Zerbitzura jotzea ez esku hartzeko, ezta balioesteko ere, egoerak udalaren gizarte-zerbitzuak irekita dauden ohiko ordutegian gertatzen direnean eta ostatu emateko alternatiba lortzea eskatzen ez badute, edo eskatzen duten ostatu emateko alternatiba harrera-etxebizitza bada (1.9.1 fitxa).

5.– Gainerako kasuetan, gizarte-premiako larrialdi bat atzematen bada, berehala jakinaraziko zaio Gizarte Larrialdietarako Koordinazio Zerbitzuari zerbitzu horrek esku hartzeko prozedura abian jar dezan eta urgentziatzko lehen arreta gauzatu dezan.

6.– Nolanahi ere, Udalaren Gizarte Zerbitzua zuzenean jarriko da harremanetan dagokion Foru Aldundiarekin honako zerbitzu hauek berehala lortu nahi badira: a) adingabeentzako egoitza-zentroak (2.4.4 fitxa), urgentziatzko harrera-programan, adingabeak direnean; b) etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroak / berehalako harrera-zerbitzuak (2.4.6 fitxa, 1 mota), etxeko tratu txarren biktima diren eta berehalako harrera-zerbitzua behar duten emakumeak direnean; c) foru-aldundiaren eskumeneko bestelako egoitza-zerbitzua.

7.– Ostatu emateko berehalako alternatiba eskatzen ez duen beste edozein egoeratan, atzemandako gizarte-premiako egoera artatzeko behar diren neurriak hartuko dira.

8.– Urgentziatzko lehen arreta aldi baterakoa da beti, eta al bait lasterren amaituko da. Arreta hori Oinarrizko Gizarte Zerbitzua ez den beste zerbitzu batek ematen duenean:

a) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren bestelako esku-hartzerik behar ez denean, kasua ez da bideratuko, baina dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuari emango zaio gertakariaren berri, jakinaren gainean egon dadin;

b) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren beste esku-hartze bat beharrezkoa denean, Oinarrizko Gizarte Zerbitzura bideratuko da kasua, eta prozedura arrunta hasiko da; nolahi ere, kapitulu honetako lehenengo atalean ezarritakoa hartuko da aintzat.

29. artikulua.– Zerbitzua edo prestazioa premiaz lortzeko bestelako egoerak.

1.– Prozedura arruntean aurreikusitako bizkortasuna baino bizkortasun handiagoa eskatzen duten lehentasunezko arreta eskatzen duten egoerei dagokienez, hau da, gizarte-larrialdiko egoerak ez direnei dagokienez, zerbitzua emateari ekingo zaio –dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak edo Udalaren Gizarte Zerbitzuak proposatuta, arreta zuzenean lortzeko zerbitzuetan izan ezik– prozedura arruntean aurreikusitako jardunei hasiera eman aurretik, gizarte-balioespen eta gizarte-diagnostiko espezializatuak barne, eta ondoren espedientea prozedura horretan aurreikusitakoaren arabera izapidetzea bazter utzi gabe.

2.– Adingabeen babesgabetasun-egoeren aurrean, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babes-tereko otsailaren 18ko 3/2005 Legean eta hura garatzen duen araudian xedatutakoari jarraituko zaio. Emakumeen aurkako etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean, etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriaren biktimak diren emakumeei arreta hobea emateko unean-unean indarrean dagoen erakundeen arteko Akordioan edo hura ordezkatzeko duen tresna konbentzionalan edo araudian aurreikusitakoari jarraituko zaio.

3.– Zerbitzua behin-behinean emango da eta zerbitzua premiaz lortzeko baimena ematen duen ebazpena zerbitzu hori lortzeko baldintzak betetzen direla berrestearen mende egongo da, beste eskaera batzuk baino lehenago egin beharko diren balioespen eta/edo diagnostiko espezializatuak barne, hala badagokio.

4.– Zerbitzua lortzeko baldintzen bat betetzen ez dela egiaztatzen bada, zerbitzu hori eten egingo da. Zerbitzua lortzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen bada, behin betiko espedientea izapidetuko da; horretarako, kasu bakoitzerako egokia den larrialdiko arretarako epea ezarriko da, larrialdiko arreta emateko zerbitzu edo programa espezifikoen fitxetan aurreikusitakoa (1 motako 1.9.1, 2.4.4 eta 2.4.6 fitxak) hartuko da kontuan zerbitzu horietakoren batean egiten bada sarrera.

5.– Larrialdiko arreta emateko zerbitzuetako, programetako edo plazetako iraunaldia epe luzeetan ez luzatzeko, arreta hori emateko espedientean aurreikusitako epea amaitzen denean, eta epe hori luzatzen bada, emandako arretaren kostua, epe horretatik aurrera, dagokion pertsona edo familia presarik gabe artatzeko eskumena duen administrazioak finantzatuko du.

### 3. ATALA

#### BALIABIDEAK

30. artikulua.– Administrazio-errekurtsoak eta errekurtsio judizialak.

1.– Zerbitzu edo prestazio ekonomiko bat eman, ukatu, aldatu, eten edo iraungitzeko prozeduran emandako ebazpenen aurka bidezkoa den errekurtsioa (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean araututakoa) jarri ahal izango da ebazten duen administrazioaren aurrean hilabete bateko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

2.– Aurreko paragrafoan adierazitako administrazio-errekurtsoaren ebazpenen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren aurrean bi hilabeteko epean, jarritako berraztertze errekurtsioaren ebazpena jakinarazi eta

hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitakoari jarraiki.

#### IV. KAPITULUA

##### GIZARTE-ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN ZERBITZUAK ETA PRESTAZIO EKONOMIKOAK ARAUTZEA

31. artikulua.– Zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak lortzeko baldintzak –I. eranskinean aipatzen direnak– interpretatzea eta ostatu ematea.

1.– Beharrezkoak diren baldintzen artean beti ulertuko da aipatutako egoeran edo egoeretan egotea eta hartzaileak deskribatzerakoan eskatzen den adina edukitzea.

2.– Administrazio-baldintzen artean, beti ulertuko da mendetasun-egoera edo mendetasun-arriskua, bazterkeria-egoera edo bazterkeria-arriskua, babesgabetasun-egoera edo babesgabetasun-arriskua eta/edo desgaitasuna aitortuta izatea, baldin eta hartzaileen egoera horiek –edo zerbitzu eta prestazio batzuetan, zerbitzu eta prestazio horien zaintzen dituztenen egoerak– beharrezko baldintza badira dagokion zerbitzua edo prestazioa lortzeko eta adierazitako maila edo gradua badute.

3.– Administrazio-baldintza gehigarririk ez dagoela adierazten denean, ulertu behar da nahikoa dela aurreko idatz-zatian aipatutako baldintzak eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 3. artikuluan aipatzen diren titulartasuneko baldintza orokorrak betetzearekin, salbu eta ez direla eskatzeko modukoak izango adierazten denean, artikulua horretan aurreikusitakoaren arabera.

4.– Titulartasun-baldintzak kontuan hartu behar ez direla adierazten denean, errolda-baldintzak ere ez dira kontuan hartu behar.

5.– Administrazio-baldintzarik bete behar ez dela adierazten denean, ulertu behar da premia-baldintzak eta, hala badagokio, preskripzio teknikoak betetzea nahikoa dela dagokion zerbitzua, prestazioa edo laguntza ekonomikoa lortzeko aukera ahalbidetzeko.

6.– Kontrakoa adierazten bada izan ezik, zerbitzuak doakoak dira.

7.– Ostatu-zerbitzuek eta egoitza-zentroek beti ematen dute ostatu.

32. artikulua.– Definizioak.

Dekretu honi dagokionez, honako hauek dira:

a) Bizimodu independentea, desgaitasuna duten pertsonentzat Pertsona Desgaituen Eskubideei eta Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 2. artikulua h) letran aurreikusitakoaren arabera, egoera bat da, zeinean desgaitasunarekiko pertsonak bere existentziaren gainean erabakitzeke duen ahala baliatu eta bere komunitateko bizimoduan aktiboki parte hartzen baitu, nortasuna libreki garatzeko eskubidearen arabera.

b) Bizimodu autonomia, egoera bat da, zeinean pertsonak eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak eta jarduera instrumentalak gauzatzeko behar diren laguntzak baititu.

c) Eguneroko Bizitzako Oinarrizko Jarduerak (EBOJ), Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 2.3 artikuluan definitzen direnak.



d) Eguneroko Bizitzako Jarduera Instrumentalak (EBJI), erabakiak hartzeko eta eguneroko bizitzako arazoak konpontzeko ahalmena izatea eskatzen duten zereginekin lotutakoak. Zeregin horiek honako hauek dira: telefonoa erabiltzea, norberaren janaria prestatzea, bizitzeko behar diren erosketak egitea, komunitatean mugitzea, garraiobideak erabiltzea, diruarekin moldatzea eta etxeko ekonomia administratzea.

e) Laguntzak, pertsonen eskura jartzen diren baliabide formalak (zerbitzuak eta prestazioak) eta informalak (sare soziofamiliarrekoak) haien funtzionamendu indibiduala, garapena eta bizi-kalitatea hobetzeko, baita haien komunitate barruan partaidetza aktiboa, bizimodu independentea eta autonomia izan dezaten sustatzeko ere.

f) Irisgarritasun unibertsala, Pertsona Desgaituen Eskubideei buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 2. artikulua k) letran aurreikusitakoaren arabera, inguruek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek, hala nola objektuek, tresnek, lanabesek eta gailuek bete behar duten baldintza da, segurtasunez eta erosotasunez ulertu, erabil eta gauzatu daitezen, ahal denik eta modurik autonomoen eta naturalenean. Diseinu unibertsalaren edo pertsona guztientzako diseinuaren estrategia dakar berekin, hargatik eragotzi gabe zentzuzko doiketak egin behar direnean hala egitea.

g) Diseinu unibertsala edo pertsona guztientzako diseinua, Pertsona Desgaituen Eskubideei buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 2. artikulua l) letran aurreikusitakoaren arabera, jarduera honen bitartez, hasiera-hasieratik pentsatzen edo proiektatzen dira, ahal den neurrian, inguruak, prozesuak, ondasunak, produktuak, zerbitzuak, objektuak, tresnak, gailuak edo erremintak, pertsona guztiek ahalik eta gehien erabiltzeko moduan, ez egokitzerik ez diseinu espezializaturik beharrik gabe. «Diseinu unibertsala» edo pertsona guztientzako diseinua erabiltzen denean, ez dira baztertzeko desgaitasunen bat duten pertsona jakin batzuen multzoentzako laguntza-produktuak, behar badituzte.

33. artikulua.– Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak Prestazio eta Zerbitzuen Zorroan antolatzea.

1.– Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak I. eranskinean azaltzen dira taldekatuta, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean aurreikusitako eskumen-erregimena aintzat hartuta, eta zerbitzu bakoitzari Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 22. artikuluan ematen zaion zenbakia esleitzen zaio, eta prestazio edo laguntza ekonomikoari, aldiz, Dekretu honetako 4. artikuluan eman zaion zenbakia.

2.– Aurreko idatz-zatian adierazitakoa kontuan hartuta, zerbitzuei eta prestazioei edo laguntza ekonomikoari buruzko fitxak honako ordena honetan azaltzen dira:

a) Udal-eskumeneke zerbitzuak eta prestazio edo laguntza ekonomikoak:

1.1. Informazio-, balioespen-, diagnostiko- eta orientabide-zerbitzua.

1.2. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua – ELZ.

1.3. Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua.

1.4. Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua.

1.5. Gizarte-zerbitzuen eremuko parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua.

1.7. Eguneke arretarako zerbitzuak.

1.8. Gaueko harrera-zerbitzuak.

## 1.9. Ostatu-zerbitzuak:

1.9.1. Ostatu-zerbitzuak / Harrera-etxea.

1.9.2. Ostatu-zerbitzuak / Tutoretzapeko etxebizitza bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzat.

– Adinekoentzako ostatu-zerbitzua:

1.9.3. Tutoretzapeko apartamentuak.

1.9.4. Etxebizitza komunitarioa.

b) Foru-eskumeneko zerbitzuak eta prestazio edo laguntza ekonomikoak:

2.1. Mendetasuna, desgaitasuna, bazterkeria eta babesgabetasuna balioesteko eta diagnostikatzekeko zerbitzua.

2.2. Egunekeko zerbitzuak edo zentroak.

2.2.1. Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko egunekeko zerbitzua edo zentroa.

2.2.2. Arlo okupazionalako zerbitzua edo zentroa.

2.2.3. Gizarteratze-premiei erantzuteko egunekeko zerbitzua edo zentroa.

2.3. Gaueko harrera-zentroak.

2.3.1. Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko gaueko zentroa.

2.3.2. Gizarteratze-premiei erantzuteko gaueko harrera-zentroa.

2.4. Egoitza-zentroak.

2.4.1. Adinekoentzako egoitza-zentroak.

2.4.2. Desgaituentzako egoitza-zentroak.

2.4.3. Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroak.

2.4.4. Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako egoitza-zentroak.

2.4.5. Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak.

2.4.6. Etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza-zentroak eta emakumeentzako beste egoitza-zerbitzu batzuk.

2.5. Atsedenerako zerbitzua.

2.6. Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua.

2.7. Bigarren mailako arretarako beste zerbitzu batzuk.

2.7.2. Autonomia babesteko zerbitzuak.

2.7.2.1. Bizimodu independentea babesteko zerbitzua.

2.7.2.2. Laguntza teknikoak (laguntza-produktuak) emateko eta ingurune fisikora egokitzeko zerbitzua.

2.7.2.3. Pertsona heldu ezinduentzako tutoretza-zerbitzua.

2.7.2.4. Garraio egokituko zerbitzua.

2.7.3. Familian esku hartzeko eta bitartekaritza-lanak egiteko zerbitzuak.

2.7.3.1. Familiekin gizarte- eta hezkuntza-arloan eta/edo arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak.

2.7.4. Arreta goiztiarrerako esku-hartze sozialeko zerbitzua.

2.7.5. Tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren emakumeei, adingabeei, adinekoei eta desgaitasuna duten pertsoneri laguntza psikosoziala eta soziojuridikoa emateko zerbitzuak.

2.7.6. Familia-harrera eta adopzioa sustatzeko eta babesteko zerbitzuak.

2.7.6.1. Familia-harrera sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua.

2.7.6.2. Adopzioa sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua.

3.1. Gizarteratzea eta/edo autonomia errazteko prestazioak, baita gizarte-larrialdiko edo gizarte-premiazko egoeren, mendetasun-egoeren edo babesgabetasun-egoeren ondorio ekonomikoak estaltzeko edo arintzeko ere:

3.1.1. Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa (LPPE).

3.2. Gizarte-babes informala eskaintzen duten pertsonak babesteko eta konpentsatzeko, autonomiaz moldatzeko eta gizarteratzeko laguntza behar duten pertsonak zaintzen dituzten seni-deentzat bideratuta daudenak.

3.2.1. Familia-inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa (FIZPE).

3.3. Prestazio teknologikoak eskuratzeko prestazio indibidualak, laguntza tekniko berreskuraezinak jasotzea edo ohiko bizitza-ingurunean egokitzapenak egitea errazteko.

3.3.1. Berreskuratu ezin diren laguntza-produktuak eskuratzeko laguntza ekonomikoa.

3.3.2. Ohiko etxebizitzan eta ibilgailu partikularretan egokitzapenak egiteko laguntza ekonomikoa.

c) Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko zerbitzuak eta prestazio edo laguntza ekonomikoak:

1.6. Telelaguntza-zerbitzua.

2.7. Bigarren mailako arretarako beste zerbitzu batzuk.

2.7.1. Informazio- eta orientabide-zerbitzuak.

2.7.1.1. Babesgabetasun-egoeran dauden haur eta nerabeentzako informazio-zerbitzua.

2.7.1.2. Etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzako informazio- eta arreta-zerbitzua.

2.7.3. Familian esku hartzeko eta bitartekotza-lanak egiteko zerbitzuak.

2.7.3.2. Familia-elkargunea (FE).

2.7.3.3. Familia-bitartekaritzako zerbitzu integrala.

3.1. Gizarteratzea eta/edo autonomia errazteko prestazioak, baita gizarte-larrialdiko edo gizarte-premiazko egoeren, mendetasun-egoeren edo babesgabetasun-egoeren ondorio ekonomikoak estaltzeko edo arintzeko ere:

3.1.2. Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako ordainketa bakarreko prestazio ekonomikoa.

3.– Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa (ZLPE) (I. eranskineko 3.4.1 fitxa) izeneko aurreko paragrafoko zerbitzuen eta prestazioen zerranda osatzen du, zeina udalaren, foru-aldundiaren edo autonomia-erkidegoaren eskumenekoa izan baitaiteke, hura lotzen den zerbitzuaren eskumena nori esleitu zaion kontuan hartuta.

4.– Lehen mailako arretaren eremuan ez dago zerbitzu espezifikorik desgaitasuna duten pertsonentzat eta gaixotasun mentala duten pertsonentzat.

5.– Udalaren eskumeneko prestazioen edo laguntza ekonomikoen eta zerbitzuen multzoak eta telelaguntza-zerbitzuak osatzen dute Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren lehen mailako arreta-maila, eta foru-aldundiaren edo Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa diren gainerako prestazioek edo laguntza ekonomikoek eta zerbitzuek bigarren mailako arreta-maila.

34. artikulua.– Lehen mailako arretaren eta bigarren mailakoaren arteko bideratze-protokoloak.

1.– Arretari jarraipena emango zaiola bermatzeko, Eusko Jaurlaritzak, gainerako euskal administrazio publikoekin koordinatzeko eskumenak betetzeko, eta Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Organoaren laguntzarekin eta aldeko txostenarekin, bideratze-protokoloak diseinatuko ditu arreta-egoeran eta -premieran izandako aldaketak direla medio maila batetik bestera igarotzea eskatzen duten kasuetarako.

2.– Aldaketa horiek egin direla eta dagokion zerbitzua lortzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak –lekualdaketa egokia dela ezartzen dutenak– bete direla egiaztatu beharko ditu eskaeraren xede diren zerbitzuak emateko zuzeneko ardura duen administrazioak; horretarako, 11. artikuluan aurreikusitako balioespen-tresna, -adierazle eta -irizpidez gain, 12. artikuluan aurreikusitako egokitasun-irizpideak aplikatuko ditu, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 19.4 artikuluan eta, bereziki, a) letran aurreikusitakoarekin bat etorritik.

3.– Arreta maila batean ematea egokiagoa denean beste arreta-maila bateko eguneko zerbitzuetan, gaueko zerbitzuetan edo egoitza-zerbitzuetan ez jarraitzeko eta, horri lotuta, plazen luzaroko okupazio desegokia saihesteko, protokolo horiek ezarriko dute, lekualdaketa egokia dela egiaztatu ondoren, lekualdaketa hori gehienez ere hiru hilabeteko aldi batean egitea.

4.– Protokolo horiek, halaber, konpentsazio ekonomikorako formula bat izan beharko dute, arreta eman beharko lukeen administrazioak arreta benetan ematen ari den administrazioaren kostua finantzatzeko duela bermatzeko, aldi hori igaro ondoren.

5.– Protokoloak dinamikoak eta malguak izango dira bi arreta-mailen arteko lankidetzarako eta koordinaziorako premien bilakaerara egokitzeko, eta, horretarako, protokoloak aldizka berrikus- teko eta, hala badagokio, aldatzeko formulak eta bideak ezarriko dira. Formula eta bide horiek protokoloak egiterakoan ezarriko dira.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren indarreko dekretuak aplikatzeko eremua.

1.– Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua (maiatzaren 31ko 125/2005 Dekretuak eta urriaren 10eko 195/2006 Dekretuak aldatua) I. eranskineko 1.9.3, 1.9.4 eta 2.4.1 fitxetan araututako zerbitzuei aplikatu ahal izango zaie.

2.– Laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentzoei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretua autonomian mugak izatearen ondorioz sortutako premiei erantzuteko eguneko zentzoei edo zerbitzuei –mendeko adineko pertsonentzako modalitatekoak direnei eta I. eranskineko 2.2.1 fitxan araututa daudenei– aplikatu ahal izango zaie.

3.– Gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretua I. eranskineko 2.4.4 fitxan araututako zentzoei aplikatu ahal izango zaie.

4.– Etxeko eremuan tratu txarren biktimak diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituen irailaren 11ko 148/2007 Dekretua 1.9.1 fitxan araututako harrera-pisuei (indarkeriaren biktimak diren emakumeen arretara zuzenduta daudenean) eta I. eranskinaren 2.4.6 fitxan araututako zentzoei aplikatu ahal izango zaie.

5.– Telelaguntza-zerbitzu publikoari buruzko ekainaren 28ko 144/2011 Dekretua I. eranskineko 1.6 fitxan araututako zerbitzuei aplikatu ahal izango zaie.

#### BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Finantza-lankidetzak.

Dekretu honetako prestazio eta zerbitzu berriak edo gutxi samar garatutakoak emateko finantzaketa egokia bermatzeko eta 2015eko abenduaren 31 baino lehen, Administrazio Publiko eskudunek, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluan, eraginkorrenak izango direla uste diren finantza-lankidetzako formulak adostuko dituzte, betiere Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 56. artikuluan eta hirugarren xedapen iragankorrean aurreikusitakoaren arabera eta haietan aurreikusitakoa garatzeko.

#### HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren aplikazioaren eta garapenaren ebaluazioa.

Eusko Jaurlaritzak, gainerako euskal administrazio publikoekin koordinatzeko eskumenak egikaritzuz, Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Organoaren bitartez, Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren aplikazioari eta garapenari buruzko ebaluazio orokorra egingo du Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen lehenengo xedapen iragankorrean Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsalizatzeko aurreikusitako epetik aurrera bi urte igarotzen direnean, eta, hala badagokio, Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa eguneratuko du Lege horretako 24. artikuluan eta Dekretu honetako 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

#### LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA.– Indarreko araudia Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuko aurreikuspenetara egokitzea.

Euskal administrazio publikoek Zorroaren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak eraginpean hartzen dituen araudi erregulatzailerak Dekretu honetara egokituko dute. Bereziki, zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen izena egokitu beharko dute, baita, hala badagokio, zerbitzu modalitateen izena ere, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema lortzeko eskubidea baliatzeko esparruan erraz identifikatzeko.

#### BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Prestazioak eta zerbitzuak ematea.

Administrazio Publiko eskudunek Dekretu honetako bigarren xedapen gehigarrian aipatzen den akordioa Finantza Publikoen Euskal Kontseiluan lortzen ez duten bitartean, Administrazio Publiko bakoitzak Dekretu hau indarrean jartzen denean prestazio eta zerbitzu horiek ematen ziren bezala emango ditu.

2015eko urriaren 29a, osteguna

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Maila bereko edo txikiagoko arauak indargabetuta geratuko dira dekretu honetan xedatutakoaren aurka dauden puntuetan.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko urriaren 6an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,  
ANGEL TARSICIO TOÑA GÜENAGA.



## URRIAREN 6KO 185/2015 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

## ZERBITZUEI ETA PRESTAZIO EKONOMIKOEI BURUZKO FITXAK

## A) Udal-eskumeneko zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak.

## Informazio-, balioespen-, diagnostiko- eta orientabide-zerbitzua (1.1)

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Zerbitzu hau Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eskaintzen dute, eta honako eginkizun hauek ditu:</p> <p>a) Pertsoneri eta familiei honako alderdi hauei buruzko informazioa ematea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazioei buruz: zer premia eta egoerei erantzuten dieten; norentzat diren; haiek lortzeko baldintzak eta prozedurak; hala badagokio, aplikatutako prezio publikoa; eskaintzen duten arretaren intentsitatea; hainbat prestazio eta zerbitzu konbinatzeko aukera; prestazio eta/edo zerbitzu bakoitzaz arduratzen den administrazioa.</li> <li>- Beren eskubideak eta betebeharrak, premien balioespen bat eta, hala badagokio, gizarte-diagnostiko bat eta Arreta Pertsonalizatuko Plan (APP) bat izateko eskubidea bereziki azpimarratuta.</li> <li>- Prestazio eta zerbitzu bakoitzak, eta, hala badagokio, haien modalitateek tartean sartutako pertsona guztiei eragiten dizkieten kostuak eta etekinak, ekonomiari dagokionez ez ezik, denborari, osasunari eta lan-gainkargari dagokionez ere.</li> <li>- Eskaeraren bilakaera.</li> </ul> <p>b) Dagokion pertsonaren eta haren testuinguruaren hasierako balioespena egitea, eta, balioespen horren oinarriaren gainean ondorioztatzen bada beharrezkoa izan litekeela jarraipena egitea eskatzen duen esku-hartze bat, hasierako gizarte-diagnostiko bat egitea; horretarako, pertsona eta familia interesdunen eta haien laguntza-sarearen partaidetza izango da beti, ahal den neurrian.</p> <p>c) Pertsonari edo pertsoneri informazioa ematea Zorroaren prestazio ekonomikoari eta/edo zerbitzuari edota prestazioen eta zerbitzuen konbinazioari buruz, haiek dituzten premiei erantzuteko egokiena zein den jakin dezaten, eta/edo, bidezkoa bada, arreta emateko beste sistema edo politika batzuetako baliabideetara bideratzea.</p> <p>d) Diagnostikoak horrelakorik gomendatzen badu, kasuan erreferente gisa jardungo duen profesional bat izendatzea. Profesional horrek, pertsona eta/edo familia erabiltzailearen partaidetzarekin, Arreta Pertsonalizatuko Plan bat egingo du eta Plan horren kudeaketa hartuko du bere gain, tartean sartutako beste sistema eta agente batzuekin koordinatuta, Arreta Pertsonalizatuko Planean aurreikusitako jardunak abian jarri eta Plan horren jarraipena eta aldizkako ebaluazioa eginez. Hori guztia, kasuaren erantzukizuna erreferentziatzeko beste profesional baten esku uzten ez denean izan ezik, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 19. artikuluan eta Dekretu honetan aurreikusitakoaren arabera.</p> <p>e) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak lortzeko aukera antolatzerara bideratutako izapidetze-, kudeaketa- eta koordinazio-eginkizunak gauzatzea.</p> <p>f) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren arreta eta babesa eska dezakeen biztanleriaren gizarte-premiak atzematea eta behar diren jardunei hasiera ematea.</p> <p>Zerbitzuaren helburu nagusia pertsona eta familia erabiltzaileei Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema lortzeko informazioa ematea da, eta, hala badagokio, beste arreta-sistema batzuetara bideratzea.</p>	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	Informazioa. Premien hasierako balioespena, eta, hala badagokio, jarraipen-balioespena. Hasierako gizarte-diagnostikoa. Orientabidea. Lagun egite soziala.
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	Biztanleria osoa.
<b>Hartzaileak</b>	<i>Adina</i>	Adin-mugarik gabe.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	Baldintzarik gabe, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 3.3 artikuluan araber.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Premiazkoak</i>	Diagnostikoari lotutako prestazioa balioespenetik esku-hartzeak jarraipena beharko lukeela ondorioztatzen den kasuetan baino ez da lortuko. Orientabidea, bideratzea eta lagun egite soziala honako kasu hauetan soilik lortuko da: diagnostikoan egiaztatzen bada jarraipena behar duen esku-hartzea beharrezkoa dela eta, beraz, Arreta Pertsonalizatuko Plan bat egiten bada.

**Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua – ELZ (1.2)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Laguntza- eta prebentzio-izaerako zerbitzu bat da, eta mendetasun-egoeran edo mendetasun-arriskuan dagoen erabiltzaileari bere bizilekuan jarraitzen laguntzea, bizilekuan bertan moldatzeko eta ingurune komunitarioan integratzeko aukera emango dion etxeko arretarako eta arreta pertsonalerako laguntza bat eskaintzea eta, era horretan, isolamendu-egoerak saihestea du xede. Arreta pertsonala jasotzen dutenek edo mendetasun-arriskuan daudenek soilik lortu ahal izango dute etxeko arreta.</p> <p>Honako helburu hauek ditu:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Autonomia pertsonalari eustea edo hura hobetzea, erabiltzaileen narriadura prebenitzea eta erabiltzaileen autonomia-galera konpentsatzea, laguntza partziala edo erabateko laguntza emanaz eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak –zaintza pertsonalerako eta/edo eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak gauzatzeko beharrezkoak direnak– egiteko.</li> <li>Bidezkoa bada, pertsonari bizilekuan bizi-kalitate onargarri batekin ahalik eta denbora gehien jarraitzeko aukera ematea, eta ostatu-zerbitzu edo egoitza-zentro batean sartzeko aukera atzeratzea edo saihestea.</li> <li>Erabiltzaileen segurtasun-sentimendua indartzea.</li> <li>Erabiltzailearen gizarte- eta familia-arloko laguntza-sarea osatzen duten zaintzaileei babes eskaintzea eta arreta-zereginaz partzialki liberatzen laguntzea, garapen pertsonal, profesional eta sozialerako baldintza egokiak izan ditzaten.</li> <li>Erabiltzailea zaindu ohi duen zaintzaile nagusia aldizka ordeztzea, hura aldi batean falta denean (atseden hartzeko modalitatean).</li> <li>Beste zerbitzu batzuen esku-hartzea behar dezaketen premia-egoerak detektatzea.</li> </ol> <p>Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua bateragarria izango da mendetasuna artatzeko zerbitzu guztiekin, ostatu-zerbitzuetan edo egoitza-zentroetan etengabe ematen den arreta-zerbitzuarekin izan ezik.</p> <p>Mendetasun-egoeran dauden pertsonen kasuan, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren gehieneko intentsitatea I. Gradurako aurreikusitako gutxieneko intentsitateara egokituko da.</p> <p>Ekonomikoak ez diren beste prestazio edo zerbitzu batzuekin bateragarri egiten denean, gutxitze bat aplikatuko zaie gehieneko intentsitateei. Gutxitze hori ez da aplikatuko telelaguntza-zerbitzuarekin bateragarri egiten denean.</p> <p>Prestazio ekonomikoekin bateragarri egiten denean, prestazio ekonomikoa gutxituko da eta Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren gutxieneko intentsitatea bermatuko da.</p> <p>Foru Aldundien eskumen-eremuari dagokio Laguntza Pertsonaleko Prestazio Ekonomikoarekin bateragarri dela erabakitzea.</p>	
<b>Atseden hartzeko zerbitzuaren aldaera</b>	Zaintzaile nagusiak atseden hartzeko zerbitzua mendetasun-egoeran edo mendetasun-arriskuan dagoen pertsona Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuan sartuz aldi baterako edo zerbitzu honetan emandako intentsitatea aldi baterako areagotuz.	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	<p>Informazioa.</p> <p>Jarraipen-balioespena.</p> <p>Etxeko arreta.</p> <p>Arreta pertsonala.</p> <p>Lagun egite soziala.</p>
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	Mendetasun-egoeran edo mendetasun-arriskuan dauden pertsonak.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Adina</i>	Adin-mugarik gabe.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	Zerbitzua eskatu deneko bizilekuan erroldatuta egotea eskaera-egunean eta udalerrri berean erroldatuta jarraitzea.
<b>Baterako ordainketa</b>	<i>Premiazkoak</i>	<ol style="list-style-type: none"> <li>Bizileku horretan bizitzea, bizileku hori norberarena den edo zaintzaile nagusi gisa jarduten duen ahaide batena den kontuan izan gabe.</li> <li>Erabiltzaileari bertan bizitzen jarraitzea eragozten edo zailtzen ez dion egoera batean dagoen eta erabiltzailearentzat berarentzat eta etxez etxeko langileentzat arriskurik ez dakarren bizileku bat izatea.</li> <li>Eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak eta/edo jarduera instrumentalak egiteko babes eskatzea.</li> <li>Beharrezkoa izanez gero, ELZren prestazioarekin batera bizilekuan baldintza egokietan jarraitzeko babes nahikoak izatea.</li> <li>Osasun-erakundeetako edo erakunde soziosanitarioetako laguntza jarraitua eskatzen duen osasun-egoera bat ez izatea.</li> <li>Gaixotasun infekzioso eta kutsakor bat edo gaixotasun mental bat izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertzea.</li> <li>Jokabide-nahasterik ez izatea, edota etxez etxeko langileentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez agertzea.</li> </ol>
<b>Baterako ordainketa</b>	Baterako ordainketari lotutako zerbitzua.	

**Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua (1.3)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Zerbitzu hau gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean babesteko harreman-prestazio indibidual, familiako edo taldeko batzuetan datza. Prestazio horiek familiaren bizilekuan (etxeko hezkuntza, familiaren gaineko oinarrizko esku-hartzea) zein ingurune komunitarioan (kaleko hezkuntza, gizarte- eta kultura-arloko bitartekaritza) gara daitezke.</p> <p>Zerbitzu honen helburuak dira erabiltzaileek: a) autonomiaz moldatzea, gizarteratzea eta familia- eta komunitate-ingurune bizikidetzaren egokia bultzatuko duten gaitasun pertsonalak, familiakoak edo taldekoak (jarrerak, gaitasunak, jakintzak, irizpideak, jarraibideak, trebetasunak) eskuratzea eta garatzea; b) ohitura, portaera, pertzepzio, sentimendu eta jarrera desagokiak beste egoki batzuekin ordezkatzeko.</p>	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	<p>Informazioa.</p> <p>Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea:</p> <p>Jarraipen-balioespena.</p> <p>Lagun egite soziala.</p> <p>Bitartekaritza – Bitartekotza.</p>
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	<p>a) Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak.</p> <p>b) Mendetasun-arriskuan dauden pertsonak.</p> <p>c) Babesgabetasun-arriskuko egoera arinean edo neurrizkoan dauden adingabeak; babesgabetasun-arriskuko egoera larrian dauden adingabeak edo helduak zerbitzu honetatik kanpo geratuko dira, pertsona horiek artatzea Familiarekin Gizarte- eta Hezkuntza-arloan eta/edo arlo psikosozialean Esku hartzeko Zerbitzuari dagokiolako (2.7.3.1).</p>
	<i>Adina</i>	Adin-mugarik gabe.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	Ezin izango dira eskatu Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 3. artikuluan aipatzen diren titulartasun-baldintza orokorrak esku-hartzea adingabeen eragiten dieten babesgabetasun-arriskuko egoera arinak edo neurrizkoak artatzera bideratzen bada.
	<i>Premiazkoak</i>	Hezkuntza-arloko babesa eta/edo laguntza psikosoziala behar izatea honako helburu hauetako batekin: a) familia-bizikidetzaren hobetzea; b) familiako kideen arreta eta zaintzarako trebetasunak hobetzea; c) eta/edo autonomiaz moldatzeko aukera erraztea edo ahalbidetzea.

**Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua (1.4)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Zerbitzu honek mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden pertsoneri gizarte- eta familia-arloko babesa emateko sarea osatzen duten zaintzaileei aukera ematen die zaintzarako eta norberaren zaintzarako jakintzak, jarrerak eta trebetasunak eskuratzeko. Honako helburu hauek ditu:</p> <p>a) Zaintzaileek eskainitako zainketen kalitatearen hobekuntza bultzatzea.  b) Zaintzaile nagusien bizi-kalitatearen hobekuntza bultzatzea.  c) Beste zaintzaile batzuen erantzunkidetasuna bultzatzea.  d) Zaintzarako eta norberaren zaintzarako jakintzak, jarrerak eta trebetasunak eskuratzeko aukera ematea.</p>	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	Informazioa, orientabidea eta prestakuntza.
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	Mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden zaintzaile ez-profesionalak, zaintzaile nagusiak diren edo ez eta ahaideak diren edo ez kontuan izan gabe.
	<i>Adina</i>	Adin-mugarik gabe.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	Eskaera aurkezten den udalerrian erroldatuta egoteko eta udalerriri horretan jarraitzeko baldintza zaindutako pertsonak edo zaintzaile nagusiak bete behar du.
	<i>Premiazkoak</i>	<p>a) Norbera zaintzeko eta/edo zaintza-lanak egiteko laguntza behar izatea.  b) Hala badagokio, zaintzeko informazioa, orientabidea eta/edo prestakuntza behar izatea eta haren erantzunkidetasuna (zaintzaileak, egungoak edo zaintzaile izan daitezkeenak eta zaintzaile nagusiak ez direnak) areagotzea.</p> <p>Zerbitzu honek ematen duen babesak ez du esan nahi, inola ere, zaintzailea ordeztuko denik (dagozkion zerbitzuetan aurreikusitako atseden hartzeko zerbitzuaren modalitateek erantzuten diote premia horri).</p>

**Gizarte-zerbitzuen eremuko parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua (1.5)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Zerbitzu honek komunitatearen parte-hartze antolatua sustatzen du, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko helburuak lortzeko eta gizarte-zerbitzuen bidez erantzuteko moduko premiei aurrea hartzeko eta erantzuteko. Bereziki, honako hauen parte-hartzea sustatuko da:</p> <p>a) beste gizarte-zerbitzu batzuen erabiltzaileak izanik edo izan gabe taldeen, sareen edo elkarrekiko laguntzako beste ekimen batzuen bidez premia horiei aurrea hartzen eta erantzuten parte hartu nahi duten pertsonena;</p> <p>b) herritarrena, oro har, helburu horietara bideratutako boluntarioratza-jardueren bidez (gizarte-boluntarioratza);</p> <p>c) toki-eremuan diharduten Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko erakundeena;</p> <p>d) zerbitzuen eta zentroyen erabiltzaileena eta, hala badagokio, ahaideena.</p> <p>Honako jarduera hauek garatzen ditu: a) parte hartu nahi duten pertsonen informazioa eta orientabidea ematekoak; b) sentsibilizatzekoak, herritar guztientzat bideratuta daudenak; c) prestakuntzakoak, hala badagokio.</p> <p>Zerbitzua ematen edo sustatzen deneko udalerria hartzen dute jarduerak jarduteko eremu geografikotzat edo udalerrri hori hartzen dute eremu geografikotzat.</p>	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	<p>Informazioa eta orientabidea.</p> <p>Prestakuntza, hala badagokio.</p> <p>Bestelako prestazio teknikoak: sentsibilizazioa.</p>
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	Biztanleria osoa.
	<i>Adina</i>	Adin-mugarik gabe.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	<p>a) Pertsona fisikoen kasuan: ez da baldintzarik eskatzen.</p> <p>b) Erakundeek beren figura juridikoari dagokion erregistroan erregistratuta egon beharko dute, baita haiek jarduteko lurralde-eremuari dagokion Gizarte Zerbitzuei buruzko Erregistroan ere.</p>
	<i>Premiazkoak</i>	Ez dago baldintza gehigarririk, baldintza bakarra gizarte-zerbitzuen eremuan modu antolatutan parte hartzeko premia eta nahia da.

## Eguneko arretarako zerbitzuak (1.7)

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Zerbitzu hauek egunean zehar erabil dezaketen gailu bat jartzen dute pertsonen eskura. Gailu horren bitartez, pertsona horiei arreta emateko premia espezifikoekin lotutako intentsitate txikiko laguntza eskaintzen zaie; horregatik, zerbitzu honen helburuak aldatu egiten dira xede den kolektiboaren arabera:</p> <p>a) mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran (I. gradua, Mendekotasunaren Balorazio Baremoan 25etik 39ra bitarteko puntuazioa izanik) dauden adinekoei autonomiari eusten laguntzea eta ohiko bizi-ingurunean jarraitzen eta gizarteratzen laguntzea, isolamendu-egoerak konpentsatuz, behar izanez gero;</p> <p>b) zerbitzua premiaz lortu beharra dakarren bazterkeria-egoeran dauden pertsonen eguna igarotzeko eta oinarritzko elikadura- eta higiene-premiak betetzeko gailu bat eskaintzea.</p>	
<b>Zerbitzu motak</b>	<p><b>1.– Adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzua.</b> Zerbitzu hau aldi batean edo modu iraunkorrean erabiltzeko da eta mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden adinekoei (I. gradua, Mendekotasunaren Balorazio Baremoan 25etik 39ra bitarteko puntuazioa izanik) arreta ematen die.</p> <p><b>2.– Bazterkeria-egoeran dauden pertsonen eguneko arreta emateko zerbitzua.</b> Eskakizun txikiko eta aldi baterako erabilerako zerbitzua da, eta honako eginkizun hauek garatzen ditu:</p> <p>a) Oinarritzko premiei erantzutea, eta, horretarako, erabiltzaileei egunean babesteko, garbitzeko eta jateko gailu bat eskaintzea.</p> <p>b) Erabiltzaileei beren eskubideei eta eskuragarri dituzten gizarte-baliabideei buruzko informazioa ematea, eta erabiltzaile horiek beren egoera normalizatzeko kudeaketak egitera bideratzea.</p>	
<b>Atsedeen hartzeko zerbitzuaren aldaera</b>	<p>Atsedeen hartzeko zerbitzua mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dagoen pertsona (I. gradua) adinekoentzako gaueko arretarako zerbitzuan sartuz edo zerbitzu hartan eskaintzen den intentsitatea areagotuz aldi batean.</p>	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	<p>Lehenengo motan:</p> <p>a) Informazioa.</p> <p>b) Jarraipen-balioespena.</p> <p>c) Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Estimulazioa edo errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea: trebetasunen garapena: eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko gaitasunak estimulatzeko jarduerak eta ariketa sinpleak.</li> <li>– Hezitzailea: aisia, hezkuntza- eta kultura-jarduerak.</li> </ul> <p>d) Lagun egite soziala.</p> <p>e) Garraio egokitua, hala badagokio.</p> <p>Bigarren motan: Informazioa. Bitartekaritza – bitartekotza. Hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: arlo psikosozialeko esku-hartzea (entzute aktiboa eta emozioei eustea)</p>
	<i>Osagarriak</i>	<p>Lehenengo motan, hala badagokio: Mantenua. Higiene pertsonala.</p> <p>Bigarren motan: Mantenua, hala badagokio. Higiene pertsonala. Ikuztegia, hala badagokio. Kontsigna.</p>
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	<p>Lehenengo motan: mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden adinekoak (I. gradua, Mendekotasunaren Balorazio Baremoan 25etik 39ra bitarteko puntuazioa izanik).</p> <p>Bigarren motan: gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak.</p>
	<i>Adina</i>	<p>Lehenengo motan: 65 urte edo gehiago izatea.</p> <p>Bigarren motan: 18 urte edo gehiago izatea.</p>
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	<p>Lehenengo motan ez dago baldintza gehigarririk.</p> <p>Bigarren motan eskatuko den baldintza bakarra preskripzio teknikoa da, eta zuzenean lortzeko zerbitzua denez, zerbitzua lortu ahal izango da, beraz, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak aurretik egindako urratsa egin behar izan gabe.</p>
	<i>Premiazkoak</i>	<p>a) Kasu bakoitzean bidezkoa den zerbitzu-modalitatearen bidez erantzuten zaien premien estaldurarako intentsitate txikiko babesa behar izatea.</p> <p>b) Gaixotasun infekzioso eta kutsakor bat eta/edo gaixotasun mentalen bat izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertzea.</p> <p>c) Jokabide-nahasterik ez izatea eta/edo zerbitzuaren funtzionamendua edo zerbitzuko bizikidetzaren normala larriki nahas dezakeen edota pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo profesionalentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez agertzea.</p> <p>d) Zerbitzuaren berezko zuzkiduren irismenetik eta aukeretatik kanpo dagoen osasun-laguntza espezializatu eta/edo iraunkorrik behar ez izatea.</p>
<b>Baterako ordainketa</b>	<p>Lehenengo mota baterako ordainketari lotuta dago.</p>	



**Gaueko harrera-zerbitzuak (1.8)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	Bazterkeria-egoeran dauden pertsoneri, eta bereziki iragaitzazko bidaiariei eta etxerik ez duten pertsoneri eskaintzen zaizkien gailuak dira, laguntza-intentsitate txikikoak, gaua igarotzeko baliabide bat, oinarrizko prestazioak berehala eskaintzen dituztenak ostatuari, mantenuari eta higiene pertsonalari dagokienez.	
	Egonaldia iraupen laburrekoa da, astebeteko gehieneko epea ezartzen baita, baina epe hori luzatu ahal izango da, behar izanez gero, bazterkeria balioesten den arte, eta, hala badagokio, balioespina egin ondoren, bigarren mailako arretarako baliabideak lortu ahal izango dira.	
<b>Prestazioak</b>	Zerbitzu iraunkorrak dira eta urteko gau guztietan eskaintzen dira, baina urteko aldi jakin batzuetan indar daitezke premien igoerari erantzuteko.	
	<i>Gizarte-zerbitzuak</i>	<p>Informazioa.</p> <p>Premien hasierako balioespina, hala badagokio, eta jarraipen-balioespina.</p> <p>Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: arlo psikosozialeko esku-hartzea (entzute aktiboa eta emozioei eustea)</p>
	<i>Osagarriak</i>	Gaua igarotzea. Mantenua (afaria eta/edo gosaria). Higiene pertsonala. Ikuztegia. Urgentziako oinarrizko arropa.
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	Gaua igarotzeko gailu bat behar duten eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonak, premia edo zirkunstantzia bereziak dituzten pertsonak izan ezik (bereziki, jokabide-nahasteak, azkenaldiko ospitaleko alta – gaixondoan laguntza behar duena– eta abstinentzia-sindromea batera gertatzen diren egoerak). Pertsona horiek Gizarteratze-premiei erantzuteko Gaueko Harrera Zentroan (2.3.2) edo Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroan (2.4.5) artatuko baitira.
	<i>Adina</i>	18 urte edo gehiago izatea.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	Eskatuko den baldintza bakarra preskripzio teknikoa da, eta zuzenean lortzeko zerbitzua denez, zerbitzua lortu ahal izango da, beraz, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak aurretik egindako urratsa egin behar izan gabe.
	<i>Premiazkoak</i>	<p>a) Zentroko langileek higiene pertsonalari eta zentroaren higienezko emandako jarraibideak betetzeko konpromisoa hartzea.</p> <p>b) Jokabide-nahasterik ez izatea eta/edo zerbitzuaren funtzionamendua edo zerbitzuko bizikidetzaren normala larriki nahas dezakeen edota pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo profesionalentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez agertzea.</p> <p>c) Ospitaleratzea eskatzen duen gaixotasun fisikorik edo psikikorik ez izatea.</p> <p>d) Zerbitzuaren berezko zuzkiduren irismenetik eta aukeretatik kanpo dagoen osasun-laguntza espezializatu eta/edo iraunkorrik behar ez izatea.</p>

## Ostatu-zerbitzuak / Harrera-etxea (1.9.1)

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Zerbitzu honek ostatu ematen die gizarte-larrialdiko edo gizarte-premiazko egoera baten ondorioz ostaturik ez izateari aurre egin ahal izateko edo etxeko indarkeriaren egoeratik biziberritu eta egoera hori gaintitu ahal izateko iraupen laburreko egonaldia behar duten pertsonen eta bizikidetzaren unitateei, betiere pertsona horiek babes-neurririk behar ez badute.</p> <p>Aldi baterakoa da. Egonaldia gehienez ere 4 hilabetez luzatu ahal izango da, eta salbuespen gisa iraupen bereko aldi batez luzatu ahal izango da.</p> <p>Laguntza-intentsitate txikiko zerbitzua da, harrera-etxean etengabe egon behar duen langilerik eta harrera-etxeari berariaz esleitutako langilerik eskaintzen ez duena, eta, hala badagokio, kanpo-laguntza egokiak antolatzen dituen, baita Udalaren Gizarte Zerbitzuen laguntza ere, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematik beharrezkoak diren zerbitzuak eta/edo prestazioak lortzeko. Hartutako pertsonak etxeko indarkeriaren biktimak diren emakumeak badira, Udalaren Gizarte Zerbitzuak etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko zerbitzu eta programa guztiekin koordinatuta jardungo du.</p> <p>Harrera-etxeak etxebizitza-erakin arrunt batean kokatzen dira normalean. Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxeek emakume horien kokapenaren konfidentzialtasuna bermatzeko neurriak hartu beharko dituzte eta etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzat soilik izango dira.</p> <p>Honako helburu hauek dituzte: a) gizarte-larrialdiko egoeretatik edo etxeko indarkeriako egoeretatik eratorritako ostatu-gabeziak eragindako krisi-egoera jakin batzuk gaintitzen laguntzea erabiltzaileei; b) erabiltzaile horiek segurtasun-sentimendua izan dezaten ahalbidetzea.</p>	
<b>Zerbitzu motak</b>	<p><b>1.– Gizarte-premiako egoerei erantzuteko harrera-etxea.</b></p> <p><b>2.– Etxeko indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako harrera-etxea.</b></p>	
<b>Eskaintzen dituen prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	<p>Informazioa.</p> <p>Jarraipen-balioespena.</p> <p>Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzea, hala badagokio.</p> <p>Lagun egite soziala, hala badagokio.</p> <p>Bitartekaritza – bitartekotza, hala badagokio.</p>
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	<p>Lehenengo motan: Gizarte-urgentziatzko egoera baten ondorioz aldi baterako ostatu behar dute pertsonak edo bizikidetzaren unitateak.</p> <p>Bigarren motan: Genero-indarkeriaren biktima izaki indarkeria gaintitzeko prozesuan dauden emakumeak, baldin eta emakume horiek ostatu hartzeko aldi baterako alternatiba bat behar badute, baina babes-neurririk behar ez badute.</p>
	<i>Adina</i>	<p>18 urteko edo gehiagoko eskatzailea, eta, hala badagokio, eskatzailearen ardurapean, tutoretzapean edo zaintzapean egonik normalean harekin bizi diren pertsonak, adin nagusikoak edo adingabeak izan.</p>
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	<p>Eskatuko den baldintza bakarra preskripzio tekniko da, eta gizarte-urgentziatzko zerbitzuetatik hartuko da Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 3.3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.</p>
	<i>Premiazkoak</i>	<p>a) Langileen etengabeko presentziarik gabe ostatu-zerbitzu batean eman daitekeen intentsitate txikiko laguntza behar izatea.</p> <p>b) Gizarte-zerbitzuen sarearen berezko horniduren aukeretatik edo hedaduratik kanpoko osasun-laguntza espezializatua eta/edo iraunkorra behar ez izatea.</p> <p>c) Jokabide-nahasterik ez izatea eta/edo zerbitzuaren funtzionamendua edo zerbitzuko bizikidetzaren normala larriki nahas dezakeen edota pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo esku har dezaketen profesionalentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez agertzea.</p> <p>d) Gaixotasun infekzioso eta kutsakor bat eta/edo gaixotasun mentalen bat izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertzeara.</p>
<b>Baterako ordainketa</b>	<p>Baterako ordainketari lotutako zerbitzua.</p> <p>Doako zerbitzua genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat.</p>	

## Ostatu-zerbitzuak / Tutoretzapeko etxebizitza bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzat (1.9.2)

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Tutoretzapeko etxebizitzak kolektibo-izaerako eta egonaldi laburreko edo ertaineko ostatu ematen die bazterkeria-arrisku handiko egoeran dauden pertsonari. Laguntza-intentsitate txikiko zerbitzua da, eta langileen etengabeko presentziarik gabe, Udalaren Gizarte Zerbitzuan erreferenteak diren teknikarien laguntza du honako eginkizun hauek gauzatzeko: a) etxebizitzara bertaratuta gainbegiratzea, b) bitartekaritza-bitartekotza, tutoretza eta lagun egitea etxebizitzan edo udalaren gizarte-zerbitzuetan gauzatu ahal izango dira.</p> <p>Etxebizitza-eraikin arrunt batean kokatzen da normalean. Eta honako helburu nagusi hauek ditu: erabiltzaileek trantsizio-prozesuak egitea egoera normalizatuari begira, eta bizimodu autonomoa garatzeko trebetasun pertsonalei, autoestimuari, konfiantza pertsonalari eta gaitasunei eutsiko dieten eta haiek berreskuratzeko eta/garatzeko prozesuak gauzatzeko; horretarako, erabiltzaileei eskatuko zaie Arreta Pertsonalizatuko Planean, eta, hala badagokio, haien programazio indibidualean zehazten diren ekintzak gauzatzeko.</p>	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	<p>Jarraipen-balioespena.</p> <p>Lagun egite soziala.</p> <p>Bitartekaritza – Bitartekotza.</p> <p>Bestelako prestazio teknikoak: tutoretza eta gainbegiratzea.</p>
	<i>Osagarriak</i>	Hala badagokio: Mantenua. Garbitzea.
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	<p>Bazterkeria-arrisku handiko egoeran dauden pertsonak, zerbitzu honen ondorioetarako, erreferentziarako profesionalaren balioespenaren arabera honako ezaugarri hauek dituzten pertsonak halakotzat hartuta: a) egonaldi laburreko edo ertaineko ostatu-alternatiba bat behar dute, etxebizitza norbaitek gainbegiratzen duela, beren gizarteratze-prozesua bizigarritasun-baldintzetan egin ahal izateko ostatu-alternatibarik ez dutelako; b) ez du baliabide ekonomiko pertsonalik; c) eta ez dute laguntza soziofamiliarrik.</p> <p>Egoitza-zentroetan artatu dituzten pertsonak ostatu-zerbitzu hau lortu ahal izango dute, baldin eta bazterkeria-arrisku handian badaude eta haien gizarteratze-prozesua eta bigarren mailako arreta-mailatik ematen zitzaizen arreta eten bada.</p> <p>Bizikidetzaren unitateari eustearren, honako hauek ere lortu ahal izango dute zerbitzu hau: a) ohiko moduan eskatzailearekin bizi den ezkontideak edo izateko bikotekideak, eskatzailea tratatu txarrak jasan dituen emakume bat denean izan ezik; b) eskatzailearen ardurapean dauden adingabeak; c) eskatzailearen tutoretzapean dauden helduak edo, tutoretzapean egon gabe ere, mendetasun-egoeran edo mendetasun-arriskuan daudenak eta ohiko moduan eskatzailearekin bizi direnak.</p>
	<i>Adina</i>	18 urteko edo gehiagoko pertsonak.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administrazioak</i>	Eskaera-dataren aurreko sei hilabeteetan EAEko edozein udalerritan erroldatuta egotea.
	<i>Premiazkoak</i>	<p>a) Egonaldi laburreko edo ertaineko ostatu hartzeko alternatiba bat eskatzea gizarteratzeko ibilbide bat egiteko.</p> <p>b) Bizi duen egoeraz jabetzea eta egoera hori aldatzeko motibazioa izatea.</p> <p>c) Gizarteratzeko eta laneratzeko edo arlo okupazionalerako ibilbide bat egiteko konpromisoa hartzea eta ibilbide hori zerbitzu hau erabiltzen duen bitartean egingo du.</p> <p>b) Intentsitate txikiko babesa behar izatea, gizarte- eta hezkuntza-arlokoa, komunitate-ingurunean bizitza autonomoa izateko eta gizarteratzeko gaitasun pertsonalak garatu edo horiei eutsi ahal izateko.</p> <p>c) Gizarte-zerbitzuen sarearen berezko horniduren aukeretatik edo hedaduratik kanpoko osasun-laguntza espezializatua eta/edo iraunkorra behar ez izatea.</p> <p>d) Jokabide-nahasterik ez izatea eta zerbitzuaren funtzionamendua edo zerbitzuko bizikidetzaren normala larriki nahas dezakeen edota pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo profesionalentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez agertzea.</p> <p>e) Gaixotasun infekzioso eta kutsakor bat eta/edo gaixotasun mentalen bat izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertzeko.</p>

## Adinekoentzako ostatu-zerbitzuak (1.9.3 eta 1.9.4)

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Zerbitzu honek bi ostatu modalitate biltzen ditu, egonaldi luzekoak edo iraunkorrekoak –edo salbuespenez, aldi baterakoak–, mendetasun-egoeran dauden adinekoei bideratuta daudenak (I. gradua).</p> <p>Zerbitzu hau intentsitate txikikoa da eta langileen laguntza du (tutoretzapeko apartamentuen kasuan, langile horiek ez daude derrigorrez zerbitzu honi atxikita) tutoretzako, bitartekaritzako - bitartekotzako, lagun egite sozialeko eta gainbegiratzeko eginkizunak egiteko, baita, hala badagokio, arreta pertsonala eta etxeko arreta emateko ere.</p> <p>Honako helburu hauek ditu:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Erabiltzaileek komunitate-ingurunean jarrai dezaten ahalbidetzea.</li> <li>Erabiltzaileen autonomia pertsonalaren maila hobetzea, mailari eustea eta/edo modu autonomoan moldatzea ahalbidetzen duten gaitasun eta trebetasunen narriaduraren prebentzioa.</li> <li>Isolamendu-egoerak saihestea.</li> <li>Erabiltzaile horiei segurtasun-sentimendua ahalbidetzea.</li> </ol>	
<b>Modalitateak (aldaerak)</b>	<p><b>1.– Tutoretzapeko apartamentuak.</b> Tutoretzapeko apartamentuetan hainbat etxebizitza autonomo izaten dira (kopurua aldatu egiten da); apartamentu baten diseinu funtzionala izaten dute, baita zerbitzu komunak ere, aukeran erabiltzeko.</p> <p><b>2.– Etxebizitza komunitarioa.</b> Kolektibo-izaerako ekipamendua da, ohiko etxebizitzak dituen eraikin batean bildu daiteke, eraikin batean koka daiteke beste gizarte-ekipamendu batzuen ondoan edo helburu horretara bideratutako eraikin berezi batean eratu daiteke.</p> <p>Zerbitzu hau bi modalitate horiek konbinatuz, egokiena dela irizten denaren bitartez ere eman daiteke.</p>	
<b>Atsedean hartzeko zerbitzuaren aldaera</b>	Atsedean hartzeko zerbitzua mendetasun-egoeran dagoen pertsona (I. gradua) adinekoentzako ostatu-zerbitzuan sartuz aldi baterako.	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	<p>Jarraipen-balioespena.</p> <p>Bitartekaritza – Bitartekotza.</p> <p>Lagun egite soziala.</p> <p>Arreta pertsonala, hala badagokio</p> <p>Etxeko arreta, hala badagokio.</p> <p>Tutoretza eta gainbegiratzea.</p>
	<i>Osagarriak</i>	Hala badagokio: Mantenua. Garbitasuna. Ikuztegia.
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	<p>I. graduako mendetasun-egoeran dauden adinekoak, baldin eta:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>erreferentziatzeko profesionalaren balioespenaren arabera, egonaldi luzeko edo etengabeko egonaldiko (edo, salbuespenez, aldi baterako) ostatu-alternatiba bat behar badute irisgarritasunari eta/edo bizigarritasunari dagokionez ostatu-alternatiba egokirik ez dutelako, eta/edo bizikidetzarazoak edo bakardade-arazoak (gizarte-isolamendua) dituztelako;</li> <li>intentsitate txikiko laguntzak behar dituzte, komunitate-ingurunean bizimodu autonomoa egitea ahalbidetuko dieten harreman-arloko trebetasunei eusteko edo trebetasun horiek garatzeko, eta, hala badagokio, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko.</li> </ol> <p>Bizikidetzaren unitateari eusteko, eskatzaileaz gain, honako hauek lortu ahal izango dute zerbitzua: ohiko moduan eskatzailearekin bizi den ezkontideak edo izatezko bikotekideak, eta, salbuespen gisa, haren ardurapean dauden seme-alabak.</p>
	<i>Adina</i>	65 urteko edo gehiagoko pertsonak.

<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	Gizarte- eta familia-arloko laguntza-sareko bizilekuen arteko txandakatze-kasuetan, baldintza hori zaintzen den pertsonak edo haren ahaide zaintzaile orok bete ahal izango dute, betiere eskaera egiten denean elkarrekin bizi baziren edo bizi badira.
	<i>Premiazkoak</i>	a) Gizarte-zerbitzuen sarearen berezko horniduren aukeretatik edo hedaduratik kanpoko osasun-laguntza espezializatua eta/edo iraunkorra behar ez izatea. b) Jokabide-nahasterik ez izatea eta zerbitzuaren funtzionamendua edo zerbitzuko bizikidetzaren normala larriki nahas dezakeen edota pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo profesionalentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez agertzea. c) Gaixotasun infekzioso eta kutsakor bat eta/edo gaixotasun mentalen bat izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertea.
<b>Baterako ordainketa</b>	Baterako ordainketari lotutako zerbitzua.	

**B) Foru-aldundiaren eskumeneko zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak****Mendetasuna, desgaitasuna, bazterkeria eta babesgabetasuna balioesteko eta diagnostikatzeko zerbitzua (2.1)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Zerbitzu honen bitartez, mendetasuneko, desgaitasuneko, babesgabetasuneko eta bazterkeriako egoerak identifikatu eta, hala badagokio, mailakatzeko dira. Halaber, eskatzaileei orientabidea ematen die eta beren premietara hobekien egokitzen den zerbitzura edo prestazio ekonomikora, edo zerbitzu eta/edo prestazio ekonomikoaren konbinaziora bideratzen ditu, betiere baldintzak betetzen badituzte. Honako hauek biltzen ditu:</p> <p>a) Eskaerak balioestea edo, hala badagokio, beste erakunde batzuek jakinarazitako egoerak balioestea, mendetasuneko, desgaitasuneko, babesgabetasuneko eta/edo bazterkeriako egoera posibleei dagokienez;</p> <p>b) Hala badagokio, gizarte-diagnostiko espezializatuak egitea, eta, kasuan kasu, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baliabideetara –egokiak direnetara– bideratzea, eta/edo egokitzen hartzen bada, erabiltzailea beste arreta-sistema edo arreta-politika batzuetako baliabideetara bideratzea.</p>	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	Gizarte-balioespen eta gizarte-diagnostiko espezializatuak.
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	Biztanleria osoa.
	<i>Adina</i>	Adin-mugarik gabe.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 3. artikuluan aurreikusitako titulartasun-baldintzak eta eskaera egiten denean Lurralde Historikoko udalerrri batean erroldatuta egoteko baldintza ezin izango dira eskatu esku-hartzea adingabeei eragiten dieten babesgabetasun-arriskuko edo babesgabezia-arriskuko egoerak artatzeko bada.
	<i>Premiazkoak</i>	Mendetasuneko, desgaitasuneko, babesgabetasuneko edo bazterkeriako egoeran egoteko aukeraren zantzuak izatea, premia-egoerak eta arriskuak balioesteko tresna komunetan zehaztutako baldintzen arabera.



**Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa (2.2.1)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Zerbitzu honek, aldi baterako edo modu iraunkorrean, mendetasun-egoeran dauden pertsoneri arreta indibidualizatua eta integrala eskaintzen die egunez, autonomia pertsonala hobetzeko edo autonomia pertsonalaren ahalik eta maila hoberenari eusteko, muga funtzionalak konpentsatzeko eta ohiko zaintzaileei laguntzeko, prebentzioko, gaikuntzako eta asistentziako prestazioen bitartez. Prestazio horiek gaitzera eta gaitasunak garatzera bideratuta daude autonomia pertsonala lortzeko eta komunitate-ingurunean parte hartzeko.</p> <p>Intentsitate ertain eta handiko zerbitzua da eta honako hauek bermatzen ditu: a) bigarren motako zerbitzuan edo zentroan zaintzailearen – eta hezitzaileen presentzia etengabea izatea; b) zerbitzu medikoa eta erizaintzako zerbitzua eskaintzea, hala badagokio; c) profesionalen diziplina anitzeko talde baten laguntza, ongizate fisikoa, psikologikoa eta soziala xede duen arreta integrala eskaintzeko beharrezkoak diren profilak betez.</p> <p>Zerbitzu honen funtzionamenduan, zerbitzuaren erabilera erabiltzailearen premia eta lehentasunetara ahalik eta gehien egokitzea ahalbidetzen duten malgutasun-irizpideak aplikatuko dira.</p>						
<b>Zerbitzu motak</b>	<p><b>1.–</b> Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko muga fisiko eta/edo psikiko garrantzitsuak dituztelako, ohiko ingurunean beren premiak behar bezala betetzeko zailtasunak dituzten eta <b><i>mendetasun-egoeran dauden adinekoentzako eguneko zerbitzua edo zentroa.</i></b></p> <p><b>2. 3. eta 4.–</b> <b><i>Desgaitasunen bat duten edo gaixotasun mentala duten pertsonentzako eguneko zerbitzua edo zentroa,</i></b> diziplina anitzeko talde profesional batek gauzatutako jardun sorta antolatu eta koordinatu baten bitartez, hartzaileen garapena ahalbidetzera bideratuta eta, ahal den heinean, hartzaileen garapen pertsonal eta soziala, autonomia eta gizarteratzea xede dituen arreta gaitzaile integrala eskainita.</p> <p>Hiru azpimota bereizten dira: a) Autonomia pertsonaleko zentroak, muga fisiko larriak dituztenentzat; b) Eguneko zerbitzua edo zentroa adimen- edo garapen-desgaitasuna dutenentzat; c) Gaixotasun mental kronikoa duten pertsonentzako eguneko zerbitzua edo zentroa.</p>						
<b>Prestazioak</b>	<table border="1"> <tr> <td data-bbox="308 1032 448 1559"><i>Gizarte-zerbitzuenak</i></td> <td data-bbox="456 1032 1463 1559"> <p>Jarraipen-balioespena.</p> <p>Bitartekaritza – bitartekotza.</p> <p>Arreta pertsonala.</p> <p>Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Estimulazioa edo errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea: funtzio kognitiboetako esku-hartzea (psikoestimulazioa, oroimena lantzea, errealitatera bideratzea) eta trebetasunak garatzea (eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko gaitasunak estimulatzeko dituzten jarduerak eta ariketa errazak).</li> <li>– Hezitzailea: aisia eta hezkuntza- eta kultura-jarduerak.</li> <li>– Psikosoziala: funtzio psikoafektiboetako esku-hartzea eta, hala badagokio, portaera-nahasteak kudeatzeko laguntzak ere barnean hartuz.</li> <li>– Arlo okupazionala edo lanaren aurreko esku-hartzea, bigarren motako zerbitzuaren edo zentroaren kasuan.</li> </ul> <p>Lagun egite soziala.</p> <p>Garraio egokitua, behar izanez gero, erabiltzaileen mugikortasun-zailtasunen arabera eta/edo garraio publikoa erabiltzaileentzako zailtasunen arabera.</p> <p>Laguntza-produktuak eskaintzea (autonomia pertsonaleko zentroen kasuan)</p> </td> </tr> <tr> <td data-bbox="308 1563 448 1597"><i>Osagarriak</i></td> <td data-bbox="456 1563 1463 1597"> <p>Garbitasuna. Mantenua, hala badagokio.</p> </td> </tr> <tr> <td data-bbox="308 1601 448 1830"><i>Osasun-sistemarenak</i></td> <td data-bbox="456 1601 1463 1830"> <p>Erabiltzaileen osasun-premien nagusitasuna eta intentsitatea kontuan hartuta, zerbitzu honek osasun-sistemaren berezko prestazioak eskaini ahal izango ditu. Zehazkiago:</p> <p>a) Gaixotasun mental kronikoa duten pertsonentzako eguneko zerbitzuek edo zentroek, beren izaera soziosanitarioa dela medio, honako hauek eskaini ahal izango dituzte: Erizaintzako arreta. Arreta medikoa. Errehabilitazioa, hala badagokio. Terapia. Jarduera terapeutikoak.</p> <p>b) Mendetasuna duten adinekoei eta desgaitasuna duten pertsoneri bideratuta daudenek prestazio horiek berak eskaini ahal izango dituzte, hala badagokio.</p> </td> </tr> </table>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	<p>Jarraipen-balioespena.</p> <p>Bitartekaritza – bitartekotza.</p> <p>Arreta pertsonala.</p> <p>Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Estimulazioa edo errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea: funtzio kognitiboetako esku-hartzea (psikoestimulazioa, oroimena lantzea, errealitatera bideratzea) eta trebetasunak garatzea (eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko gaitasunak estimulatzeko dituzten jarduerak eta ariketa errazak).</li> <li>– Hezitzailea: aisia eta hezkuntza- eta kultura-jarduerak.</li> <li>– Psikosoziala: funtzio psikoafektiboetako esku-hartzea eta, hala badagokio, portaera-nahasteak kudeatzeko laguntzak ere barnean hartuz.</li> <li>– Arlo okupazionala edo lanaren aurreko esku-hartzea, bigarren motako zerbitzuaren edo zentroaren kasuan.</li> </ul> <p>Lagun egite soziala.</p> <p>Garraio egokitua, behar izanez gero, erabiltzaileen mugikortasun-zailtasunen arabera eta/edo garraio publikoa erabiltzaileentzako zailtasunen arabera.</p> <p>Laguntza-produktuak eskaintzea (autonomia pertsonaleko zentroen kasuan)</p>	<i>Osagarriak</i>	<p>Garbitasuna. Mantenua, hala badagokio.</p>	<i>Osasun-sistemarenak</i>	<p>Erabiltzaileen osasun-premien nagusitasuna eta intentsitatea kontuan hartuta, zerbitzu honek osasun-sistemaren berezko prestazioak eskaini ahal izango ditu. Zehazkiago:</p> <p>a) Gaixotasun mental kronikoa duten pertsonentzako eguneko zerbitzuek edo zentroek, beren izaera soziosanitarioa dela medio, honako hauek eskaini ahal izango dituzte: Erizaintzako arreta. Arreta medikoa. Errehabilitazioa, hala badagokio. Terapia. Jarduera terapeutikoak.</p> <p>b) Mendetasuna duten adinekoei eta desgaitasuna duten pertsoneri bideratuta daudenek prestazio horiek berak eskaini ahal izango dituzte, hala badagokio.</p>
<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	<p>Jarraipen-balioespena.</p> <p>Bitartekaritza – bitartekotza.</p> <p>Arreta pertsonala.</p> <p>Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Estimulazioa edo errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea: funtzio kognitiboetako esku-hartzea (psikoestimulazioa, oroimena lantzea, errealitatera bideratzea) eta trebetasunak garatzea (eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko gaitasunak estimulatzeko dituzten jarduerak eta ariketa errazak).</li> <li>– Hezitzailea: aisia eta hezkuntza- eta kultura-jarduerak.</li> <li>– Psikosoziala: funtzio psikoafektiboetako esku-hartzea eta, hala badagokio, portaera-nahasteak kudeatzeko laguntzak ere barnean hartuz.</li> <li>– Arlo okupazionala edo lanaren aurreko esku-hartzea, bigarren motako zerbitzuaren edo zentroaren kasuan.</li> </ul> <p>Lagun egite soziala.</p> <p>Garraio egokitua, behar izanez gero, erabiltzaileen mugikortasun-zailtasunen arabera eta/edo garraio publikoa erabiltzaileentzako zailtasunen arabera.</p> <p>Laguntza-produktuak eskaintzea (autonomia pertsonaleko zentroen kasuan)</p>						
<i>Osagarriak</i>	<p>Garbitasuna. Mantenua, hala badagokio.</p>						
<i>Osasun-sistemarenak</i>	<p>Erabiltzaileen osasun-premien nagusitasuna eta intentsitatea kontuan hartuta, zerbitzu honek osasun-sistemaren berezko prestazioak eskaini ahal izango ditu. Zehazkiago:</p> <p>a) Gaixotasun mental kronikoa duten pertsonentzako eguneko zerbitzuek edo zentroek, beren izaera soziosanitarioa dela medio, honako hauek eskaini ahal izango dituzte: Erizaintzako arreta. Arreta medikoa. Errehabilitazioa, hala badagokio. Terapia. Jarduera terapeutikoak.</p> <p>b) Mendetasuna duten adinekoei eta desgaitasuna duten pertsoneri bideratuta daudenek prestazio horiek berak eskaini ahal izango dituzte, hala badagokio.</p>						

<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	Lehenengo motakoak honako hauek dira: Mendetasun-egoeran dauden adinekoak (Mendekotasunaren Balorazio Baremoan 39 puntutik gorako puntuazioa izanik). Bigarren motakoak, aldiz, honako hauek dira: a) % 60tik gorako desgaitasun-kalifikazioa duten pertsonak edo mendetasuna aitortuta dutenak. b) Gaixotasun mental kronikoaren edo luzaroko nahasmendu mental larriaren diagnostikoa – Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak emandakoa– eginda duten pertsonak edo gaixotasun edo nahasmendu horretatik eratorritako mendetasuna aitortuta duten pertsonak.
	<i>Adina</i>	65 urteko edo gehiagoko pertsonak, lehenengo motako zerbitzuan edo zentroan. 18-64 urteko pertsonak, bigarren motako zerbitzuan edo zentroan, «autonomia pertsonaleko zentroak» azpimotan izan ezik, kasu horretan ez baitago adin-mugarik.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administrazioak</i>	Baldintza gehigarriak ez.
	<i>Premiazkoak</i>	a) Intentsitate ertain edo handiko laguntza behar izatea eguneroko bizitzako jarduerak egiteko. b) Gizarte-zerbitzuen sarearen berezko horniduren aukeretatik edo hedaduratik kanpoko osasun-laguntza espezializatua eta/edo iraunkorra behar ez izatea. c) Gaixotasun infekzioso eta kutsakor bat eta/edo gaixotasun mentalen bat izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertea.
<b>Baterako ordainketa</b>	Baterako ordainketari lotutako zerbitzua.	

## Arlo okupazionalako zerbitzua edo zentroa (2.2.2)

<b>Definizioa eta helburuak</b>	<p>Arlo okupazionalako zerbitzu edo zentro honek desgaitasun bat eta/edo gaixotasun mental bat duten pertsonak gizarte-bizitzan modu aktiboan parte hartzea sustatzen du, produkzio-jardueran oinarritutako garapen pertsonaleko programen bitartez eta enplegurako sarbidea ahalbidetzeko asmoz, betiere sarbide hori lorgarria denean.</p> <p>Erabiltzaileen gizarte- eta lan-arloko garapena erraztera bideratuta dago, pertsona horien autonomia pertsonala eta autodeterminazioa sustatuz eta gizartean onarpen eta balioespen handiagoa lortzea ahalbidetuz. Horretarako, zerbitzu honen esparruan, honako hauek bultzatu, ahalbidetu eta sustatuko dira:</p> <p>a) autonomia pertsonala garatzeko eta gizarteratzea eta laneratzea lortzeko beharrezkoak diren egokitzeko, arlo okupazionalako eta gizarte-arloko trebetasunak eskuratzea eta hobetzea, erabiltzaileek gizarte-bizitzan partaidetza handiagoa eta eraginkorragoa izan dezaten laguntzeko;</p> <p>b) garapen pertsonala, estimulazioko eta/edo errehabilitazioko, arlo okupazionalako edo lanaren aurreko, hezkuntza-arloko eta prestakuntzako edo kultura-arloko jardueren bitartez; jarduera horiek zentro espezifiko batean gauza daitezke, edo bestelako baliabide komunitarioetan, baita ingurune irekian ere;</p> <p>c) autonomia-mailari eustea, narriaduraren prebentzioa eta, hala badagokio, gaitasunak eta trebetasunak (kognitiboak, funtzionalak, sozialak...) berreskuratzea.</p> <p>Zerbitzu honen funtzionamenduan, malgutasun-irizpideak aplikatuko dira, zerbitzuaren intentsitatea erabiltzailearen premia, interes eta lehentasunetara egokitzea ahalbidetzen dutenak; hori izango da laneratze ibilbide pertsonalean egingo den lehen urratsa edo behin betiko alternatiba gisa laneratze zailtasun larriak dituzten pertsonen kasuan, eta funtzionamendu sozialeko programekin osatuko da.</p> <p>Erabiltzaileak ez dira langiletzat hartuko, inola ere; beraz, zerbitzuaren edo zentroaren eta erabiltzaileen arteko harremana ez da lan-harremana izango. Aurrekoa alde batera utzi gabe, erabiltzaileek haborokin edo eskersari ekonomikoa jasoko dute okupazioagatik.</p> <p>Zerbitzu edo zentro hau beste enplegu-programa batzuekin batera kudeatu ahal izango da, lan-merkatu arruntaren laguntzarekin eta enplegu-programa babestuekin, enplegu-zentro berezien edo laneratze-enpresen esparruan eskaintzen diren programekin, alegia.</p>	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	<p>Jarraipen-balioespena.</p> <p>Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: estimulazioa edo errehabilitazioa lantzeko; arlo okupazionalakoa edo lanaren aurrekoa.</p> <p>Bitartekaritza – Bitartekotza.</p> <p>Lagun egite soziala.</p> <p>Garraio egokitua: behar izanez gero, erabiltzaileen mugikortasun-zailtasunengatik eta/edo garraio publikoa erabilita zentrorira iristeko zailtasunengatik.</p>
	<i>Osagarriak</i>	Mantenua, hala badagokio.
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	% 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonak eta gaixotasun mentala duten pertsonak, baldin eta pertsona horiek desgaitasun-maila hori badute edo gaixotasun mental kronikoaren edo luzaroko nahasmendu mental larriaren diagnostikoa –Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak emandakoa– egina badute.
	<i>Adina</i>	18-64 urtekoak.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	Baldintza gehigarririk ez.
	<i>Premiazkoak</i>	<p>a) Balioespenaren eta diagnostikoaren arabera, oro har, autonomia eta gizarteratzea lortzeko eta, bereziki, gizarteratzea eta laneratzea lortzeko gaitasunak eskuratu behar izatea, eta enplegua berehala edo epe laburrean eskuratzeko zailtasunak izatea.</p> <p>b) Oinarritzko gaitasun edo trebetasunak izatea arlo okupazionalako jardueretan eta arlo okupazionalako zerbitzu edo zentroaren gainerako jardueretan parte hartu ahal izateko.</p>
<b>Baterako ordainketa</b>	Baterako ordainketari lotutako zerbitzua, baina baterako ordainketa hori prestazio osgarriei baino ez dagokie.	

**Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa (2.2.3)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Zerbitzu honek eguna igartzeko toki bat eskaintzen die Lurralde Historikoan finkatuta dauden eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonaei; gizarteratzeraz bideratutako zerbitzua ere bada, balio anitzekoa, luzaroko arreta eskaintzen die, betiere pertsona bere ohiko ingurunetik bereizi gabe, baita gizarteratze-ibilbidean laguntza indibidualizatua eskaini ere, ikuspegi integral batetik begiratuta, arlo okupazionalako, hezkuntza-arloko, arlo terapeutikoko eta gizarteratze-arloko esku-hartzeak uztartuta.</p> <p>Hurbileko ekipamenduak dira, malguak eta egun osoan arreta emateko ordutegi zabala dutela; ekipamendu horien helburua honako hau da: pertsonak ahalik eta autonomia-mailarik handiena eskuratzea eta gizarteratzen laguntzea. Babes-intentsitate ertain eta handiko zerbitzua da. Eskakizun-maila txiki, ertain eta handiko zerbitzua da; erabiltzaileei honako konpromiso hau eskatzen zaie: arreta pertsonalizatuko programan eta beraien programazio indibidualean definitzen diren ekintzak gauzatzeko konpromisoa.</p>	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	<p>Jarraipen-balioespena</p> <p>Bitartekaritza – bitartekotza.</p> <p>Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: estimulaziokoa edo errehabilitaziokoa; hezkuntza-arlokoa; arlo psikosozialekoa; arlo okupazionalakoa edo lanaren aurrekoa.</p> <p>Lagun egite soziala.</p>
	<i>Osagarriak</i>	Mantenua. Garbitasuna. Kontsigna. Higiene pertsonala. Ikuztegia.
	<i>Osasun-sistemarenak</i>	Erizaintzako arreta, hala badagokio.
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak.
	<i>Adina</i>	18-64 urtekoak.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	Eskaera-dataren aurreko 6 hilabeteetan EAeko edozein udalerritan erroldatuta egotea.
	<i>Premiazkoak</i>	<p>A) Intentsitate ertain edo handiko babes behar izatea gizarteratze-ibilbidea egiteko.</p> <p>b) Gizarteratzeko eta laneratzeko edo arlo okupazionalako ibilbide bat egiteko konpromisoa hartzea.</p> <p>c) Bere egoeraz jabetzea eta aldatzeko motibazioa izatea.</p> <p>d) Gizarte-zerbitzuen sarearen berezko horniduren aukeretatik edo hedaduratik kanpoko osasun-laguntza espezializatua eta/edo iraunkorra behar ez izatea.</p> <p>e) Gaixotasun infekzioso eta kutsakor bat eta/edo gaixotasun mental bat izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertea.</p> <p>f) Jokabide-nahasterik ez izatea eta/edo zerbitzuaren funtzionamendua edo zerbitzuko bizikidetzaren normala larriki nahas dezakeen edota pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo profesionalentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez agertzea.</p>

**Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko gaueko zentroa (2.3.1)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Mendetasun-egoeran dauden pertsoneri arreta emateko baliabidea da; pertsona horiek, hainbat arrazoi direla-eta (batik bat, jatorri psikikoko edo neurologikoko arrazoiengatik), intentsitate ertain edo handiko gainbegiratzea behar izaten dute gauez loaren erritmoa eta gaueko portaera kontrolatu eta erregulatzeko, baina ohiko zaintzaileek ezin diete gainbegiratze hori etxean eskaini.</p> <p>Familiei babesa ematea du xede, zaintza egokia emateko gaitasuna hobetzearen eta, hartara, familia barruko dinamikan eragin positiboa izateko; izan ere, askotan, zaintza jarraituek eragiten duten estresaren eraginpean egoten baitira. Zerbitzua gaueko zentro batean (egoitza-ekipamendu batean integratuta dagoena edo ez) eman daiteke edo, bestela, 2.4.1, 2.4.2 eta 2.4.3 fitxetan aurreikusitako egoitza-zerbitzu baten esparruan, gaueko arreta-zerbitzu moduan.</p>	
<b>Zerbitzu motak</b>	<p><b>1.– Adinekoentzako gaueko zerbitzu edo zentroa.</b>  <b>2.– Desgaituentzako gaueko zerbitzu edo zentroa.</b></p>	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	<p>Jarraipen-balioespena  Arreta pertsonala.  Garraioa egokitua, behar izanez gero, erabiltzaileen mugikortasun-zailtasunen arabera eta/edo garraio publikoa erabilita zentrora iristeko zailtasunen arabera.</p>
	<i>Osagarriak</i>	Gaua igarotzea- Mantenua (afaria eta/edo gosaria). Garbitzea.
	<i>Osasun-sistemarenak</i>	Erizaintza-zerbitzua.
	<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>
<i>Adina</i>		65 urte eta gehiago dituztenak, 1. modalitatean. 18 urte edo gehiago dituztenak, 2. modalitatean
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	Ez dago baldintza gehigarririk.
	<i>Premiazkoak</i>	<p>a) Intentsitate ertain edo handiko gainbegiratzea behar izatea gauez loaren erritmoa eta gaueko portaera kontrolatu eta erregulatzeko.</p> <p>b) Gizarte-zerbitzuen sarearen berezko horniduren aukeretatik edo hedaduratik kanpoko osasun-laguntza espezializatua eta/edo iraunkorra behar ez izatea.</p> <p>c) Gaixotasun infektioso eta kutsakor bat eta/edo gaixotasun mental bat izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertea.</p>
<b>Baterako ordainketa</b>	Baterako ordainketari lotutako zerbitzua.	

**Gizareratze-premiei erantzuteko gaueko harrera-zentroa (2.3.2)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Gizarte-bazterkeriako egoeran daudenei zuzenduta dago; gaua igarotzeko eta oinarrizko premiak betetzeko toki bat behar duten baina beren premia edo zirkunstantzia berezien ondorioz (bereziki, jokabide-nahasteak, azkenaldiko ospitaleko alta, abstinentsia-sindromea batera gertatzen diren egoerak) lehen mailako arretako gaueko harrera-zerbitzuetan arreta eskaini ezin zaien pertsoneri, hain zuzen ere.</p> <p>Malgutasunez, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeak eta arlo psikosozialeko esku-hartzeak lor ditzakete, narriadura handiagoa saihesten laguntzeko eta, ahal den neurrian, gizareratze-ibilbide baterantz lehen urrats izateko.</p> <p>Eskakizun-maila txikiko zerbitzuak dira. Eta intentsitate ertaineko eta handiko laguntza dira, arreta jasotzen duten pertsonen premia eta zirkunstantzia bereziak kontuan izanik.</p> <p>Zerbitzua gaueko zentro batean (egoitza-ekipamendu batean integratuta dagoena edo ez) eman daiteke edo, bestela, 2.4.5 fitxan eta, hala badagokio, 2.4.4 fitxan aurreikusitako egoitza-zerbitzu baten esparruan, gaueko arreta-zerbitzu moduan.</p>	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	<p>Informazioa.</p> <p>Orientabidea.</p> <p>Jarraipen-balioespena</p> <p>Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Hezkuntza-arlokoa (higienearekin lotutako trebetasunak eta osasun-hezkuntzaren oinarrizko jarraibideak eskuratzea).</li> <li>– Arlo psikosozialekoa (entzutea eta emozioei eustea).</li> </ul>
	<i>Osagarriak</i>	Gaua igarotzea. Mantenua. Higiene pertsonala. Ikuztegia. Premiazko oinarrizko arropa.
	<i>Osasun-sistemarenak</i>	Xiringak trukatzeko zerbitzua droga-mendekotasun arazoak dituztenentzat.
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	Bazterkeria-egoeran dauden pertsonak.
	<i>Adina</i>	18 urte edo gehiago dituztenak.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	Ez da baldintzarik eskatuko, preskripzio teknikoaz gain, eta zuzenean sartzen da zerbitzura (zuzenean lortzeko zerbitzua).
	<i>Premiazkoak</i>	<p>a) Gaua igarotzeko toki bat behar izatea.</p> <p>b) Lehen mailako arretako gaueko harrerako zerbitzu batean arreta ematea eragozten edo oztopatzen duten premiak edo zirkunstantziak (bereziki, definizioan aipatutako hiru egoerak) izatea.</p>



## Adinekoentzako egoitza-zentroak (2.4.1)

<b>Definizioa eta helburua</b>	Zentro horietan ohiko bizitokia edo bizitoki iraunkorra eta, hala badagokio, aldi baterako bizitokia eskaintzen zaie II. eta III. graduako mendetasun-egoeran dauden adinekoei, beren premiak ohiko ingurunean edo ostatu-alternatiba arinagoetan behar bezala bete ezin badituzte intentsitate handiagoko babesak behar dituztelako. Zentro horietan arreta integrala eta jarraitua eskaintzen da.	
	<p>Intentsitate handiko zentroak dira eta honako hauek bermatzen dituzte: a) zaintzaileen presentzia iraunkorra, eguneko 24 orduetan; b) zerbitzu medikoa eta erizaintzako zerbitzua eskaintzea; c) profesionalen diziplina anitzeko talde baten laguntza, ongizate fisikoa, psikologikoa eta soziala xede duen arreta integrala eskaintzeko beharrezkoak diren profilak betetz.</p> <p>Honako helburu hauek ditu:</p> <p>a) Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko beharrezkoa den zainketa eta laguntza pertsonala bermatzea erabiltzaileei, autonomia pertsonalari eusteko eta, ahal den heinean, garapena sustatu eta nariadura saihesteko ahalegina eginda.</p> <p>b) Erabiltzaileek, behar den babesarekin, komunitate-ingurunean parte hartzeari eta ingurune horrekiko harremani eustera bideratutako jarduerak gauzatzea edo egiten jarraitzea.</p> <p>c) Erabiltzaileek familiarekiko, beste egoiliarrekiko edo egoitza-ingurunetik kanpoko jendearekiko harremani eutsi eta harremanak zabaltzea eta, ahal den heinean, zentroaren bizitzan parte hartzea.</p> <p>d) Segurtasun-sentimendua ahalbidetzea.</p> <p>Zentroa edo bertako unitateetakoren bat osasun- eta gizarte-arreta trinkoa, aldiberekoa, koordinatua eta egonkorra behar duten adinekoei zuzenduta daudenean, zentro edo unitate horiek izaera soziosanitarioa izango dute.</p>	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	Informazioa.
		Jarraipen-balioespena.
		Bitartekaritza – Bitartekotza.
		Arreta pertsonala.
		Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>– Estimulazioa edo errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>- funtzio kognitiboetako esku-hartzea: psikoestimulazioa, oroimena lantzea, errealitate bideratzea;</li> <li>- trebetasunen garapena: eguneroko bizitzako oinarriko jarduerak egiteko gaitasunak estimulatu dituzten jarduerak eta ariketa errazak.</li> </ul> </li> <li>– Hezkuntza-arloko esku-hartzea: aisia eta hezkuntza- eta kultura-jarduerak.</li> <li>– Arlo psikosozialeko esku-hartzea: funtzio psikoafektiboetako esku-hartzea eta, hala badagokio, portaera-nahasteak kudeatzeko laguntzak ere barnean hartuz.</li> </ul>
Lagun egite soziala.		
<i>Osagarriak</i>	Mantenua. Ikuztegia. Garbiketa.	
<i>Osasun-sistemarenak</i>	Erizaintzako arreta. Arreta medikoa. Errehabilitazioa. Laguntza psikologikoa.	
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	<p>Mendetasun-egoeran dauden pertsonak (II. eta III. graduak eta, salbuespen gisa, I. gradua aldundiek hala aurreikusten badute eta salbuespen hori preskripzio teknikoan behar bezala justifikatuta geratzen bada).</p> <p>Salbuespen moduan, eta bizikidetzaren unitateari eusteko, honako pertsona hauek ere baliatu daitezke zerbitzu honetatik, hartzailearekin batera, betiere lege zehaztutako baldintzetan:</p> <p>a) ohiko moduan berekin bizi den ezkontidea edo izatezko bikotekidea;</p> <p>b) erabiltzailearekin bigarren mailarainoko odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko harremana duela egiaztatzen duenak, ohiko moduan berekin bizi bada.</p>
	<i>Adina</i>	65 urtetik gorakoak, baina muga hori ez zaio aplikatuko, hala badagokio, erabiltzailearekin batera laguntzaile moduan sartzen den ezkontide edo ahaideari.

<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	Ez dago baldintza gehigarrik.
	<i>Premia-baldintzak</i>	<p>a) Intentsitate handiko babesa behar izatea eguneroko bizitzako jarduerak egiteko.</p> <p>b) Gizarte-zerbitzuen sarearen berezko horniduren aukeretatik edo hedaduratik kanpoko osasun-laguntza espezializatua eta/edo iraunkorra behar ez izatea, egoitza-zentroak edo unitateak izaera soziosanitarioa dutenean izan ezik.</p> <p>c) Gaixotasun infekzioso eta kutsakor bat eta/edo gaixotasun mental bat izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertea.</p> <p>d) Aldi baterako egonaldien kasuan, aldi baterako egoitza-alternatiba behar izatea bere ohiko bizilekuan zaintza egokia jasotzeko aldi baterako ezintasuna edo zailtasun larria eragiten duten egoerei aurre egiteko, zaintzaile nagusi eta ohikoak atsedean hartu ahal izateko.</p> <p>e) Aldi baterako egonaldia premia soziosanitario batek eragin badu edo osasun-arazo batekin lotuta badago, kasu horretan sartzeko ez da eskatuko mendetasuna aitortua izatea baina aldi baterako mendetasun-egoera bat egotea ezinbestekoa izango da eta egoera hori ondoren egiaztatu beharko da.</p>
<b>Baterako ordainketa</b>	Baterako ordainketari lotutako zerbitzua.	

## Desgaituentzako egoitza-zentroak (2.4.2)

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Bizikidetzaz-zerbitzuak dira eta ohiko bizitokia edo bizitoki iraunkorra eta, hala badagokio, aldi baterako bizitokia eskaintzen zaie desgaituei eta mendetasun-egoeran daudenei, beren premiak etxebizitza pertsonalean edo familiaren etxebizitzan behar bezala bete ezin badituzte.</p> <p>Aldizkako laguntza, mugatua, zabala edo orokorra bermatzen dute, indibiduala, eta bere premia aldakorretara egokitua, eta horretarako profesionalen diziplina anitzeko talde baten babesa dute, ongizate fisikoa, psikologikoa eta soziala xede duen arreta integrala eskaintzeko beharrezkoak diren profilak betetz. Honako helburu hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Erabiltzaileen ongizate fisiko eta emozionala hobetzea.</li> <li>b) Autonomia pertsonalari eustea, eta ahal den neurrian horren garapena bultzatzea eta bere narriadura saihestea.</li> <li>c) Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko beharrezkoa den zainketa eta laguntza pertsonala bermatzea.</li> <li>d) Garapen pertsonala, gaitasunak, ahalmenak, trebetasunak eta esperientziak indartzea, bizitza autonomoagoa izatera bideratuak.</li> <li>e) Beren bizitza-proiektu pertsonalarekin eta eguneroko bizitzarekin lotutako erabakiak hartzeko eta hautaketak egiteko aukerak eskaintzea.</li> <li>f) Bizikidetzarekin gogobetetasuna izaten saiatzea, elkartasuna eta elkarren arteko laguntza oinarri izanik.</li> <li>g) Komunitate-ingurunean parte hartzeko eta integratzeko aukerak eskaintzea, baita zerbitzu komunitarioak erabiltzeko ere.</li> <li>h) Bere laguntzarako familia- eta gizarte-sareak mantendu eta indartu daitezzen sustatzea.</li> <li>i) Segurtasun-sentimendua ahalbidetzea.</li> </ul>	
<b>Zerbitzu motak</b>	<p><b>1.– Etxebizitzak laguntzekin.</b></p> <p><b>2.– Egoitza-zentroak.</b></p>	
<b>Prestazioak</b>	<p><i>Gizarte-zerbitzuenak</i></p> <p><i>Osagarriak</i></p> <p><i>Osasun-sistemarenak</i></p>	<p>Informazioa.</p> <p>Jarraipen-balioespena.</p> <p>Bitartekaritza – Bitartekotza.</p> <p>Arreta pertsonala.</p> <p>Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- estimulazioa edo errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea, bereziki: <ul style="list-style-type: none"> <li>- funtzio kognitiboetako esku-hartzea;</li> <li>- trebetasun fisiko eta funtzionalak garatzea;</li> </ul> </li> <li>- arlo okupazionalako esku-hartzea;</li> <li>—hezkuntza-arloko esku-hartzea;</li> <li>- arlo psikosozialeko esku-hartzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>- emozioei eustera eta arriskua murriztera bideratutako esku-hartzeak;</li> <li>- funtzio psikoafektiboetan esku hartzea.</li> </ul> </li> </ul> <p>Lagun egite soziala.</p> <p>Mantenua. Ikuztegia. Garbiketa.</p> <p>2. motan: Erizaintzako arreta. Arreta medikoa. Errehabilitazioa.</p>
<b>Hartzaileak</b>	<p><i>Egoera</i></p> <p><i>Adina</i></p>	<p>Mendetasun aitortua duten desgaituak.</p> <p>Eskuratzeko unean 18 eta 64 urte bitartekoak direnak.</p> <p>Salbuespen gisa, adingabeek ere zerbitzuak eskuratu ahal izango dituzte honako kasu hauetan: a) bere premiek edo gizarte- eta familia-egoeraren larritasunak hala gomendatzen dunenean; b) babesgabetasun-egoera larriko kasuetan, egoera horietara espezifiki bideratutako babes-baliabideetan arreta egokia bermatzea ezinezkoa denean.</p> <p>Bi kasuetan, zerbitzu horren egokitzapen handiagoa, edozein modalitatetan, bere salbuespenezko erabilera bermatzeko arrazoitu egin beharko da.</p>

<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	Ez dago baldintza gehigarririk.
	<i>Premiazkoak</i>	a) Aldizkako laguntza, mugatua, zabala edo orokorra behar izatea. b) Gizarte-zerbitzuen sarearen berezko horniduretatik kanpoko osasun-laguntza espezializatua eta/edo iraunkorra behar ez izatea. c) Gaixotasun infekzioso eta kutsakor bat izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertzea.
<b>Baterako ordainketa</b>	Baterako ordainketari lotutako zerbitzua.	

## Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.3)

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Gaixotasun mental kronikoa duten pertsonen arreta eskaintzen dieten zentro edo zerbitzu soziosanitarioak dira, beren gaitasun eta trebetasun pertsonalak eta harremanetarakoak hobetzera bideratutako prestazioen bitartez, beren garapen pertsonala, gizarteratzea eta ingurunearekiko parte-hartzea bultzatzeko eta, oro har, bizi-kalitatea hobetzeko.</p> <p>Beren ohiko ingurunean bilduta dauden zerbitzuetako berezkoak diren intentsitatea eta laguntza-maila behar ez duten ostatu-alternatibetan beren premiak modu egokian ase ezin dituzten gaixotasun mentala duten pertsonen eskaintzen diete arreta. Aldizkako laguntza, mugatua, zabala edo orokorra bermatzen dute, indibiduala, eta bere premia aldakorretara egokitua. Eta horretarako profesionalen diziplina anitzeko talde baten babesa dute, ongizate fisikoa, psikologikoa eta soziala xede duen arreta eskaintzeko beharrezkoak diren profilak betez.</p> <p>Aldi baterako egonaldiko, egonaldi luzeko edo egonaldi iraunkorreko zerbitzuak dira. Honako helburu hauek ditu:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Erabiltzaileen autonomia pertsonalari eustea, eta ahal den neurrian horren garapena bultzatzea eta bere narriadura saihestea.</li> <li>Garapen pertsonala, gaitasunak, trebetasunak eta esperientziak indartzea.</li> <li>Aukerak eskaintzea ingurune komunitarioan sartzeko eta parte hartzeko eta zerbitzu komunitarioak erabiltzeko, beren ingurune kultura-, gizarte- eta jolas-jardueretan parte hartuz.</li> <li>Bere laguntzarako familia- eta gizarte-sareak mantendu eta indartu daitezen sustatzea.</li> <li>Segurtasun-sentimendua ahalbidetzea.</li> </ol>	
Zerbitzu motak, biak izaera soziosanitariok oak.	<p><b>1.– Etxebizitzak laguntzekin</b>, etengabeko gainbegiratzea behar ez duten, gizarteratze-prozesuan dauden eta, beren gizarteratza eta laneratzera eta bizitza normalizaturako itzulerara orientatutako ibilbide personalizatuaren barruan, egunean zehar zerbitzuetik kanpo eskaintzen diren prestakuntzako eta garapen pertsonaleko jardueretan parte hartzen duten pertsonen eskaintzen diete arreta. Zerbitzu horiek zaintzaileak dituzte, bertan erabiltzaileen bat dagoen orduetan.</p> <p><b>2.– Egoitza-zentroak</b>, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko etengabeko gainbegiraketa eta/edo laguntza behar duten pertsonen arreta eskaintzen dietenak, bertan zaintzaileak egonik modu iraunkorrean.</p>	
<b>Prestazioak</b>	<p><i>Gizarte-zerbitzuenak</i></p> <p><i>Osagarriak</i></p> <p><i>Enpleguak</i></p> <p><i>Osasun-sistemarenak</i></p>	<p>Informazioa.</p> <p>Jarraipen-balioespena.</p> <p>Bitartekaritza – Bitartekotza.</p> <p>Arreta pertsonala.</p> <p>Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: estimulaziokoa edo errehabilitaziokoa; arlo okupazionalakoa; hezkuntza-arlokoa; arlo psikosozialekoa, bereziki (emozioei eustera eta arriskua murriztera bideratutako esku-hartzeak; funtzio psikoafektiboetan esku hartzea).</p> <p>Lagun egite soziala.</p> <p>Mantenua. Ikuztegia. Garbiketa. Segurtasuna (jagoletza)</p> <p>Aurreprestakuntzako eta prestakuntzako prestazioak, laneratzera eta lan-munduratzera bideratuak, hala dagokionean. Lan-bitartekotza, egonez gero.</p> <p>Erizaintzako arreta.</p> <p>2. motan: Arreta medikoa, bereziki arreta psikiatrikoa.</p>
<b>Hartzaileak</b>	<p><i>Egoera</i></p> <p><i>Adina</i></p>	<p>Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak gaixotasun mental kronikoaren edo luzaroko nahaste mental larriaren diagnostikoa eginga izatea, eta gaixotasun horren ondorioz mendetasuna onartuta izatea.</p> <p>Salbuespen gisa, adingabeek ere zerbitzuak eskuratu ahal izango dituzte honako kasu hauetan: a) bere premiek edo gizarte- eta familia-egoeraren larritasunak hala gomendatzen dunenean; b) babesgabetasun-egoera larriko kasuetan, egoera horietara espezifikoki bideratutako babes-baliabideetan arreta egokia bermatzea ezinezkoa denean. Bi kasuetan, zerbitzu horren egokitzapen handiagoa, edozein modalitatetan, bere salbuespenezko erabilera bermatzeko arrazoitu egin beharko da.</p> <p>Eskuratzeko unean 18 urte edo gehiago dituzten pertsonak, aurreko idatz-zatian adierazitako salbuespenekin.</p>

2015eko urriaren 29a, osteguna

<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	Ez dago baldintza gehigarrik.
	<i>Premiazkoak</i>	a) Aldizkako laguntza, mugatua, zabala edo orokorra behar izatea. b) Egoera psikopatologiko egonkortua edukitzea eta krisi psikiatrikoko egoeran ez egotea. c) Baliabidearen berezko horniduren aukeretatik eta hedaduratik kanpoko osasun mentaleko laguntza espezializatua eta iraunkorra behar ez izatea. d) Gaixotasun infekzioso eta kutsakor bat eta/edo gaixotasun mental bat izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertea.
<b>Baterako ordainketa</b>	Baterako ordainketari lotutako zerbitzua.	



## Adingabeentzako egoitza-zentroak (2.4.4)

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Adingabeen egoitza-harrerara bideratutako bizikidetza-zentroak dira, halakotzat hartuz ordeko zaintza-neurri bat, administrazioarena edo epailearena, eta neurri horren xedea da beharizan material, afektibo eta hezkuntzakoak beren familietan (aldi batez behintzat) bete ezin dituzten haurren eta nerabeen erabateko arreta egoitza batean eskaintzea.</p> <p>Egoitza-harrera normalki aldi baterakoa da, eta horrela, familia biologikora itzultzeko edo familiako harrera edo adopzioa bezalako alternatibetara bideratzen da, betiere, eta adingabearentzat kaltegarria ez bada, egoitza-harreraren dagoenean familiako loturei eusteko lan eginez.</p> <p>Oinarrizko helburua garapen afektibo, psikologiko, intelektual eta sozial egokia ahalbidetuko dion babesgune bat eskaintzea da. Eta horretarako, bere esparruan, ondoren azalduko diren eremuetan izan ditzaketen premiei behar bezala eta eraginkortasunez erantzuteko ezinbestekoak diren baliabideak lortzen lagundu behar da. Adierazitako eremuak honako hauek dira: osasuna; ongizate emozionala; elikadura; higieena eta norberaren itxura; loa; autonomia eta erantzukizuna; familia; gizarte-sarea; gizarte- eta kultura-arloko nortasuna; prestakuntza; lana; aisia; laguntza komunitarioa; eta premia berezieko arreta.</p>			
<b>Zerbitzu motak</b>	<p><b>1.– Egoitzak.</b> Jokabide-arazo larriak dituzten nerabeentzako laguntza intentsiboko programa espezializatua aplikatzen den zentroetan, zentroa eraikin independente batean kokatu behar da eta eskusiboki kolektibo horren arretan jardun behar du.</p> <p><b>2.– Harrera-pisuak,</b> lehentasunez etxebizitza arruntetan kokatuak.</p> <p><b>3.– Emantzipaziorako prestatzeko zentroak.</b></p> <p><b>4.– Emantzipazio-pisuak,</b> lehentasunez etxebizitza arruntetan kokatuak.</p> <table border="1" data-bbox="308 909 1463 1021"> <tr> <td data-bbox="308 909 502 1021"><i>Programak</i></td> <td data-bbox="507 909 1463 1021">Larrialdiko harrera. Oinarrizko orokorra. Emantzipaziorako prestatzeko. Emantzipazio-programa. Jokabide-arazoak dituzten nerabeei arreta emateko programa espezializatua. Jokabide-arazo larriak dituzten nerabeei laguntza intentsiboa emateko programa espezializatua.</td> </tr> </table>		<i>Programak</i>	Larrialdiko harrera. Oinarrizko orokorra. Emantzipaziorako prestatzeko. Emantzipazio-programa. Jokabide-arazoak dituzten nerabeei arreta emateko programa espezializatua. Jokabide-arazo larriak dituzten nerabeei laguntza intentsiboa emateko programa espezializatua.
<i>Programak</i>	Larrialdiko harrera. Oinarrizko orokorra. Emantzipaziorako prestatzeko. Emantzipazio-programa. Jokabide-arazoak dituzten nerabeei arreta emateko programa espezializatua. Jokabide-arazo larriak dituzten nerabeei laguntza intentsiboa emateko programa espezializatua.			
<b>Prestazioak</b>	<p><i>Gizarte-zerbitzuenak</i></p> <p><i>Osagarriak</i></p>	<p>Informazioa.</p> <p>Jarraipen-balioespena.</p> <p>Bitartekaritza - Bitartekotza.</p> <p>Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: hezkuntza-arloko esku-hartzea; arlo psikosozialekoa.</p> <p>Lagun egite soziala: tutoretza-ekintza.</p> <p>Arreta pertsonala, adin txikiko haurrei arreta eskaintzen zaienean.</p> <p>Mantenua.</p> <p>Ikuztegia eta garbiketa (prestazio horiek emantzipazio-programetan mugatuta daude, emantzipatzeko beharrezkoak diren trebetasunak eskuratzea ahalbidetzeko).</p>		
<b>Hartzaileak</b>	<p><i>Egoera</i></p> <p><i>Adina</i></p>	<p>a) Aitak, amak edo tutoretza duen pertsonak zirkunstantzia larrien ondorioz bere zaintza-eginkizunak aldi baterako bete ezin izateak eragindako premia-egoerak.</p> <p>b) Babesgabetasun-arrisku larriko egoerak.</p> <p>c) Babesgabezia-egoerak.</p> <p>Adingabeak. Salbuespen gisa, eta zaindutako pertsonak eta Foru Aldundi eskudunak adostu ostean, adin nagusi izan aurretik babes-sareko baliabide batean bizi ziren 18 urte edo gehiago dituzten gazteak izan daitezke egoitza-harrerako baliabideen erabiltzaileak emantzipazio-programaren esparruan, betiere 18 hilabeteko gehieneko aldiaren.</p>		
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<p><i>Administraziokoak</i></p> <p><i>Premiazkoak</i></p>	<p>Egoitza-harrerako neurri administratibo edo judizial baten xede izatea, hala dagokion Foru Aldundiak gazteak eta nerabeak babestearen alorrean tutoretza egikaritzearen esparruan, nola Administrazio horrek zaintza bere gain hartzeko neurri baten esparruan.</p> <p>a) Bere aita, ama edo tutoreak, zirkunstantzia larrien ondorioz, hura aldi baterako zaindu ezin izatea.</p> <p>b) Haurren edo nerabearen zaintza dagokion Foru Aldundiari esleitu izana erabaki judizial baten bitartez.</p> <p>c) Adingabea erantzukizun penalaren eremuan ezarritako neurri judizialei lotuta ez egotea, neurri horiek egoitza batean sartzeari direnean edo hezkuntza-talde batekiko bizikidetza-neurri bat direnean, azken kasuan salbu, adingabea lehendik babesaren eremuko hezkuntza-talde batean baldin bazegoen adingabeen epaileak emandako epai penala baino lehen.</p>		

**Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.5)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Bizikidetzaz-zentroak dira, bazterkeria-egoeran dauden eta pertsonalki, sozialki eta harremani dagokienez narriadura larriak dituzten pertsonen ostatu-zerbitzu bat gizarteratzera bideratutako esku-hartzeak egitera zuzendutako intentsitate ertaineko edo handiko laguntzekin eskaintzera destinatuak.</p> <p>Beren eginkizunak garatzeko profesionalen diziplina anitzeko talde baten laguntza dute, ongizate fisikoa, psikologikoa eta soziala xede duen arreta eskaintzeko beharrezkoak diren profilak betez.</p> <p>Honako helburu hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Erabiltzaileen autonomia pertsonalari eustea eta, ahal den neurrian, horren garapena bultzatzea eta bere narriadura saihestea.</li> <li>b) Garapen pertsonala, gaitasunak, trebetasunak eta esperientziak indartzea.</li> <li>c) Erabiltzaileei aukerak eskaintzea ingurune komunitarioan sartzeko eta parte hartzeko eta zerbitzu komunitarioak erabiltzeko, beren ingurune kultura-, gizarte- eta jolas-jardueretan parte hartuz.</li> <li>d) Bere laguntzarako familia- eta gizarte-sareak mantendu eta indartu daitezen sustatzea.</li> </ul>								
<b>Zerbitzu motak</b>	<p><b>1.– Egoera kronifikatua</b> eta narriadura pertsonala <b>duten pertsonentzako egoitza-zentroak</b>, eta pertsona horiek egonaldi luzeko zerbitzu bat behar dute gizarteratzeko ikuspuntua eta esku-hartze erritmo geldoa konbinatzen dituen ikuspegiarekin.</p> <p><b>2.– Gizarteratzeko egoitza-zentroak</b>, egonaldi ertain edo luzekoak, erabiltzaileak gizarteratzeko eta bizimodu normalizatuan pixkanaka sartzeko xedez beren gaitasunak eta trebetasun pertsonalak eta harremanetarakoak hobetzerako bideratutako laguntza eskaintzen dutenak.</p> <p><b>2.1.– Gizarteratzeko etxebizitzak laguntzekin</b>, gabezia psikosozialak dituzten eta intentsitate ertaineko arlo psikosozialeko laguntza behar duten pertsonen testuinguru komunitarioan bizi ahal izateko aukera ematera zuzenduak.</p> <p><b>2.2.– Gizarteratzeko egoitza-zentroak</b>, gabezia psikosozial larriak dituzten pertsonen gizarteratzea eta/edo etxerik ez duten eta intentsitate handiko arlo psikosozialeko laguntza behar duten pertsonen etxebizitza egonkor baterako trantsizioa errazterako bideratuak.</p>								
<b>Prestazioak</b>	<table border="1"> <tr> <td data-bbox="360 1267 695 1514"><i>Gizarte-zerbitzuenak</i></td> <td data-bbox="695 1267 1463 1514"> <p>Informazioa.</p> <p>Jarraipen-balioespena.</p> <p>Bitartekaritza - Bitartekotza.</p> <p>2. modalitatean: gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzea: estimulazioa edo errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea; arlo okupazionalerako esku-hartzea; hezkuntza-arloko esku-hartzea; arlo psikosozialeko esku-hartzea.</p> <p>Lagun egite soziala.</p> </td> </tr> <tr> <td data-bbox="360 1514 695 1581"><i>Osagarriak</i></td> <td data-bbox="695 1514 1463 1581">Hala badagokio: Mantenua. Ikuztegia. Garbiketa. Segurtasuna (jagoletza).</td> </tr> <tr> <td data-bbox="360 1581 695 1615"><i>Osasun-sistemarenak</i></td> <td data-bbox="695 1581 1463 1615">Intentsitate ertaineko osasun-prestazioak, hala badagokio.</td> </tr> <tr> <td data-bbox="360 1615 695 1697"><i>Enpleguak</i></td> <td data-bbox="695 1615 1463 1697">Aurreprestakuntzako eta prestakuntzako prestazioak, laneratzera eta lan-munduratzera eta, hala dagokionean, lan-bitartekotzara bideratuak, gizarteratzeko egoitza-zentroen kasuan.</td> </tr> </table>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	<p>Informazioa.</p> <p>Jarraipen-balioespena.</p> <p>Bitartekaritza - Bitartekotza.</p> <p>2. modalitatean: gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzea: estimulazioa edo errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea; arlo okupazionalerako esku-hartzea; hezkuntza-arloko esku-hartzea; arlo psikosozialeko esku-hartzea.</p> <p>Lagun egite soziala.</p>	<i>Osagarriak</i>	Hala badagokio: Mantenua. Ikuztegia. Garbiketa. Segurtasuna (jagoletza).	<i>Osasun-sistemarenak</i>	Intentsitate ertaineko osasun-prestazioak, hala badagokio.	<i>Enpleguak</i>	Aurreprestakuntzako eta prestakuntzako prestazioak, laneratzera eta lan-munduratzera eta, hala dagokionean, lan-bitartekotzara bideratuak, gizarteratzeko egoitza-zentroen kasuan.
<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	<p>Informazioa.</p> <p>Jarraipen-balioespena.</p> <p>Bitartekaritza - Bitartekotza.</p> <p>2. modalitatean: gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzea: estimulazioa edo errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea; arlo okupazionalerako esku-hartzea; hezkuntza-arloko esku-hartzea; arlo psikosozialeko esku-hartzea.</p> <p>Lagun egite soziala.</p>								
<i>Osagarriak</i>	Hala badagokio: Mantenua. Ikuztegia. Garbiketa. Segurtasuna (jagoletza).								
<i>Osasun-sistemarenak</i>	Intentsitate ertaineko osasun-prestazioak, hala badagokio.								
<i>Enpleguak</i>	Aurreprestakuntzako eta prestakuntzako prestazioak, laneratzera eta lan-munduratzera eta, hala dagokionean, lan-bitartekotzara bideratuak, gizarteratzeko egoitza-zentroen kasuan.								
<b>Hartzaileak</b>	<table border="1"> <tr> <td data-bbox="360 1709 695 1742"><i>Egoera</i></td> <td data-bbox="695 1709 1463 1742">Bazterkeria-egoeran dauden pertsonak.</td> </tr> <tr> <td data-bbox="360 1742 695 1765"><i>Adina</i></td> <td data-bbox="695 1742 1463 1765">18 urte edo gehiago dituztenak.</td> </tr> </table>	<i>Egoera</i>	Bazterkeria-egoeran dauden pertsonak.	<i>Adina</i>	18 urte edo gehiago dituztenak.				
<i>Egoera</i>	Bazterkeria-egoeran dauden pertsonak.								
<i>Adina</i>	18 urte edo gehiago dituztenak.								

<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	Eskaera-dataren aurreko 6 hilabeteetan EAeko edozein udalerritan erroldatuta egotea.
	<i>Premiazkoak</i>	<p>a) Elkarbizitzarako gutxieneko gizarte- eta harreman-trebetasunak edukitzea.</p> <p>b) Lehen modalitatean gizarteratzeko ibilbide bat egiteko, edo bigarren modalitatean laneratzeko edo arlo okupazionalako ibilbide bat egiteko konpromisoa hartzea.</p> <p>c) Arazoaz jabetzea eta egoera aldatzeko motibazioa edukitzea.</p> <p>d) Laguntza-intentsitate ertaina edo handia behar izatea, eskuratu nahi den zerbitzu-modalitatearen arabera.</p> <p>e) Gizarte-zerbitzuen sarearen berezko horniduren aukeretatik edo hedaduratik kanpoko osasun-laguntza espezializatua eta/edo iraunkorra behar ez izatea.</p> <p>f) Gaixotasun infekzioso eta kutsakor bat eta/edo gaixotasun mental bat izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertzeara.</p>

### Etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza-zentroak eta emakumeentzako beste egoitza-zerbitzu batzuk (2.4.6)

<p><b>Definizioa eta helburua</b></p>	<p>Bizikidetzara-arazo larriak dituzten emakumeei (bereziki emakumeen osotasun fisikoa edo emozionala arriskuan jartzen duten etxeko tratu txarren egoerak) eta kausa sozioekonomiko eta pertsonalekin lotutako egoera kritikoan dauden emakumeei kasu batzuetan urgentziatzko arreta eta bizitokia eta egonaldi laburreko bizitokia eta, beste kasu batzuetan, egonaldi ertaineko bizitokia eskaintzen dieten zentroak dira.</p> <p>Intentsitate ertain eta handiko laguntza eskaintzen dute, eta honako esku-hartze hauek biltzen dituzte: a) lehen harrerako esku-hartzeak egunaren 24 orduetan –balioespena, diagnostikoa, orientabidea eta urgentziatzko bizitokia barne–; b) lehenengo harreraren ondoko esku-hartzeak, bizitokia eta arlo psikosozialeko esku-hartzearen nahiz gizarte- eta hezkuntza-arloko eta gizarte-laguntzako esku-hartzearen inguruko laguntza intentsiboak emateko direnak; nolahi ere, laguntza horiek emateko teknikari espezializatuen presentzia nahitaezkoa izango da.</p> <p>Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartze horiek genero-ikuspegitik eta emakumeen ahalduntzea bultzatzen duen ikuspegiarekin egiten dira.</p> <p>Honako helburu hauek ditu:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Bizikidetzara-arazo larriei, eta bereziki etxeko tratu txarren egoerei lotutako premia-egoera larriei erantzutea berehala.</li> <li>Egoera kritiko horietan egotearen ondorioz, ohiko bizilekurik ez duten edo bizilekua uztera behartuta egon diren emakumeei eta normalki beraiekin bizi diren eta haien mende dauden pertsonen (haien ardurapeko seme-alabak –adin txikikoak direnak zein ez direnak– edo haien mende dauden helduak) aldi baterako bizitokia ematea.</li> <li>Beren egoera pertsonalean, ekonomikoan eta familia-egoeran beharrezkotzat edo egokitatzat hartzen dituzten aldaketak egiteko, eta horretarako erabakiak hartzeko astia eta babes egokiak, ingurune seguru batean, izateko aukera eskaintzea.</li> <li>Beren egoerari egokiro aurre egiten laguntzea, eta, horretarako, beharrezkoa den aholkularitza, informazioa eta laguntza eskaintzea eta babes-baliabiderik egokienak eskuratzeko aukera ematea.</li> <li>Autoestimua eta konfiantza pertsonala ez ezik, bizitza autonomoa garatzeko eta gizarteratzeko ibilbidea bideratzeko norberaren gaitasunak edo trebetasunak ere mantentzen, berreskuratzen eta/edo garatzen laguntzea.</li> <li>Premietara egokitutako lagun egite sozial eta gizarte-babes trinkoa ematea.</li> <li>Segurtasun-sentimendua ahalbidetzea.</li> </ol>				
<p><b>Zerbitzu motak</b></p>	<p><b>1.– Berehalako harrera-zerbitzuak</b>, egonaldi laburrekoak –eguneko 24 orduetan, urteko egun guztietan, balia daitezkeenak–, etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeak berehala eta baliabide egokienera bideratu aurretik haien premiak balioesteko behar den denboran hartzen dituztenak.</p> <p><b>2.– Egonaldi ertaineko harrera-zentroak</b>, honako hauen babes- eta ostatu-eskaerei erantzutera bideratuta daudenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Emakumeak eta haien guraso-ahalaren, zaintzaren eta jagoletzaren mende dauden seme-alaba adingabeak, etxeko eremuan tratu txarren biktima izan direnak eta esku-hartze espezializatu integrala behar dutenak.</li> <li>– Bakarrik dauden, laguntza intentsiboa behar duten eta baliabide pertsonalik eta gizarte- eta familia-laguntzarik ez duten emakumeak –haurdun daudenak edo babesgabetasun-eta/edo bazterkeria-arrisku handiko egoeran dauden seme-alaba adingabeak ardurapean dituztenak–. Laguntza hori gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeetan eta arlo psikosozialeko esku-hartzeetan datza batez ere.</li> </ul>				
<p><b>Prestazioak</b></p>	<table border="1"> <tr> <td data-bbox="296 1648 501 1951"> <p><i>Gizarte-zerbitzuenak</i></p> </td> <td data-bbox="501 1648 1461 1951"> <p>Informazioa.</p> <p>Jarraipen-balioespena. Eta lehen motan, premien hasierako balioespena.</p> <p>Diagnostikoa.</p> <p>Bitartekaritza – Bitartekotza.</p> <p>Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea.</p> <p>Lagun egite soziala.</p> <p>Arreta soziojuridikoa.</p> <p>Segurtasuna (zaintza), hala badagokio.</p> </td> </tr> <tr> <td data-bbox="296 1951 501 1980"> <p><i>Osagarriak</i></p> </td> <td data-bbox="501 1951 1461 1980"> <p>Hala badagokio: Mantenua. Ikuztegia. Zona komunen garbiketa.</p> </td> </tr> </table>	<p><i>Gizarte-zerbitzuenak</i></p>	<p>Informazioa.</p> <p>Jarraipen-balioespena. Eta lehen motan, premien hasierako balioespena.</p> <p>Diagnostikoa.</p> <p>Bitartekaritza – Bitartekotza.</p> <p>Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea.</p> <p>Lagun egite soziala.</p> <p>Arreta soziojuridikoa.</p> <p>Segurtasuna (zaintza), hala badagokio.</p>	<p><i>Osagarriak</i></p>	<p>Hala badagokio: Mantenua. Ikuztegia. Zona komunen garbiketa.</p>
<p><i>Gizarte-zerbitzuenak</i></p>	<p>Informazioa.</p> <p>Jarraipen-balioespena. Eta lehen motan, premien hasierako balioespena.</p> <p>Diagnostikoa.</p> <p>Bitartekaritza – Bitartekotza.</p> <p>Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea.</p> <p>Lagun egite soziala.</p> <p>Arreta soziojuridikoa.</p> <p>Segurtasuna (zaintza), hala badagokio.</p>				
<p><i>Osagarriak</i></p>	<p>Hala badagokio: Mantenua. Ikuztegia. Zona komunen garbiketa.</p>				

<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	<p>Etxean tratu txarren biktima izan diren eta babesgabetasun-egoeran dauden emakumeak.</p> <p>Babesgabetasun- eta/edo bazterkeria-egoeran dauden beste emakume batzuk, bereziki bakarrik eta haurdun dauden edo babesgabetasun- eta/edo bazterkeria-arrisku handiko egoeran dauden seme-alaba adingabeak ardurapean dituzten eta baliabide pertsonalik eta gizartearen nahiz familiaren laguntzarik ez duten emakumeak.</p> <p>Bizikidetz-unitateari eusteko, aurreko taldeetan aipatutako emakumez gain, emakume horien ardurapean dauden eta normalean haiekin bizi diren pertsonak (adingabeak edo adin nagusikoak diren kontuan izan gabe) baita haien ardurapean dauden beste heldu batzuk ere balia daitezke zerbitzu honetaz.</p>
	<i>Adina</i>	<p>a) 18 urte edo gehiago dituzten emakumeak.</p> <p>b) Emantzipatutako emakume adingabeak.</p>
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	<p>1. motan ez da inolako baldintzarik eskatuko preskripzio teknikoaz gain, eta zerbitzu hori gizarte-premiazko zerbitzutzat hartuko da, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 3.3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, baita zuzenean lortzeko zerbitzutzat ere.</p> <p>2. motan, inolako baldintza gehigarriarik ez. Eta etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituzten biktimen kasuan, inolako baldintzarik ez, preskripzio teknikoaz gain.</p>
	<i>Premiazkoak</i>	<p>a) Segurtasun-baldintzetan bizitzeko etxebizitza alternatiborik ez izatea, edo berehala erabili ezin izatea.</p> <p>b) Gizarte-zerbitzuen sarearen berezko horniduren aukeretatik edo hedaduratik kanpoko osasun-laguntza espezializatua eta/edo iraunkorra behar ez izatea.</p> <p>c) Jokabide-nahasterik ez izatea eta/edo zerbitzuaren funtzionamendua edo zerbitzuko bizikidetz normala larriki nahas dezakeen edota pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo esku har dezaketen profesionalentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez agertzea.</p> <p>d) Gaixotasun infektioso eta kutsakor bat eta/edo gaixotasun mental bat izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertzea.</p> <p>e) 1. motan, urgentziako esku-hartze bat behar izatea.</p> <p>f) 2. motan, iraupen ertaineko laguntza intentsiboa, integrala eta espezializatua behar izatea.</p>

## Atsedenerako zerbitzua (2.5)

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Zerbitzu honek aldi baterako egonaldiak eskaintzen dizkie bigarren mailako arreta-zerbitzuetan, zehazki egoitza-zentroetan, eguneko zerbitzu edo zentroetan eta gaueko zentroetan, inoren laguntza behar duten pertsonari, desgaituei edo gaixotasun mental kronikoa duten pertsonari, normalean gizartearen nahiz familiaren laguntza dutenei, zaintzaile nagusiak denbora izan dezan atsedean hartzeko, suspertzeko eta/edo garapen pertsonalerako, edo bere zaintza-zereginak betetzea eragozten dioten premiazko egoera bati aurre egiteko.</p> <p>Bere helburuak dira zaintzaileak:</p> <p>a) Bere denbora izatea atsedean hartzeko, suspertzeko, aisiarako eta, orokorrean, autozainketarako eta garapen pertsonalerako, edo, era berean, bere zaintza-eginkizunek betetzea eragozten dioten premiazko egoeraren bati aurre egiteko.</p> <p>b) Zaintza-lanei lotutako esfortzu txikiagoa izatea; era horretan gainkargako egoerak eta estres-egoerak eta zaintzailearen osasunean sor litezkeen narriadurak prebenituz.</p> <p>Bi helburuek xede bera dute, hau da, zaintzaileak zaintzen duen pertsonak bere ohiko etxebizitzan jarrai dezala, eta atsedeneraren bitartez zaintza-egoera egokia lortzea.</p> <p>Aldi berean, atsedenera-zerbitzuak, eguneko eta egoitzako modalitateetan, zaindutako pertsonengan oinarritutako beste helburu osagarri batzuk ditu:</p> <p>a) Trebetasunak eta gaitasunak sustatzea bere autonomia pertsonalerako eta bizimodu independentea garatzeko.</p> <p>b) Komunitate-ingurunean garatzeko trebetasunak eta pertsonen arteko harremanetarako trebetasunak sustatzea.</p> <p>c) Ingurune berri batera egokitzeko gaitasuna garatzea, etorkizunean izan ditzakeen premiak aurreikusiz.</p>	
<b>Zerbitzuaren aldaerak</b>	Arreta jasotzen duen pertsonaren egonaldiak honako hauetan: bigarren mailako arretako egoitza-zentroak; bigarren mailako arretako eguneko zerbitzuak edo zentroak; bigarren mailako arretako gaueko zentroak.	
<b>Prestazioak</b>	Aldi baterako egonaldia gauzatuko den egoitza-zentroarenak, eguneko zerbitzuarenak edo zentroarenak edo gaueko zentroarenak, kasuan kasu, dira.	
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	Mendetasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaile nagusiak eta ez-profesionalak, edo desgaitasun bat edo gaixotasun mental kroniko bat duten eta bigarren mailako arretarako egoitza-zerbitzuetarako, egunekoak nahiz gauekoak, lortzeko aukera emango dietenak, horien bitartez gauzatzen baita atsedena.
	<i>Adina</i>	Adin-mugarik gabe.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	<p>a) Zaindutako pertsona nahiz zaintzailea dagokion Lurralde Historikoko udalerrietakoren batean eta helbide berean erroldatuta egotea eskaera egiten den datan, eta Lurralde Historiko horretan erroldatuta jarraitzea.</p> <p>b) Zaindutako pertsona nahiz zaintzailea helbide berean erroldatuta egotea eskaera-dataren aurreko 12 hilabeteetan jarraian EAEko edozein udalerritan.</p> <p>c) Kasu bakoitzean atsedean hartzeko egonaldia gauzatzen den bigarren mailako arreta-zerbitzuan –egoitza-zentroan, eguneko zerbitzuan edo zentroan edo gaueko zentroan– sartzeko baldintzak betetzea.</p> <p>d) Zaintzailearen eta arreta jasotzen duen pertsonaren arteko bizikidetzaren egiaztatzea; salbuespen gisa, bizikidetzaren baldintza hori ez da bete behar izango zainketen ohiko prestazio eraginkorra Udalaren gizarte-zerbitzuen txosten sozialaren bidez justifikatuta dagoen kasuetan.</p>
	<i>Premiazkoak</i>	Atsedenera-premia izatea.
<b>Baterako ordainketa</b>	Baterako ordainketari lotutako zerbitzua.	

**Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua (2.6)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Urteko egun guztietan martxan dagoen zerbitzua da, dagokion Lurralde Historikoaren barnean gertatzen diren gizarte-larrialdiko egoerei berehalako arreta emateko.</p> <p>Berehalako arretako edo urgentziatzko lehen arretako zereginak, foru-erantzukizunekoak zerbitzu honen esparruan, honako hauek dira: premien behin-behineko balioespena –ondorengo balioespenarekin lotuta egongo dena– egitea, betiere beharrezkoa bada:</p> <p>a) urgentzia edo larrialdia gertatu den lekura joatea, kaltetutako pertsona edo pertsonen arreta «in situ» egiteko;</p> <p>b) premia-egoerak «in situ» atzematea;</p> <p>c) eraginpeko pertsonari edo pertsonen osasun-zentroetara, polizia-bulegoetara edo bulego judizialetara edo beste bulego batzuetara laguntzea;</p> <p>d) beharrezkoa denean, kasuaren arreta dagozkion zerbitzuetara bideratzea, albait lasterren, eta, bereziki eta hala badagokio, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren ostatu-zerbitzuetara eta egoitza-zentroetara bideratzea, 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.</p> <p>Bere esku-hartzeak antolatzeko, zerbitzuak honako hauek izango ditu gutxienez: alertako telefono-zerbitzu bat eta esku hartzeko zerbitzu bat sustatzea, behar izanez gero, urgentzia edo larrialdia gertatu den lekura joango dena urgentziak edo larrialdiak kaltetutako pertsona edo pertsonen arreta “in situ” egiteko;</p>	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	<p>Informazioa.</p> <p>Premien eta jarraipenaren hasierako balioespena.</p> <p>Diagnostikoa.</p> <p>Orientabidea.</p> <p>Lagun egite soziala.</p> <p>Arlo psikosozialeko esku-hartzea, bereziki emozioei eusteko helburua duenean</p>
	<i>Osagarriak</i>	Hala badagokio: Garraioa. Mantenua. Urgentziatzko bizitokia.
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	<p>a) Gerora sortutako babesgabetasun-egoeran dauden pertsonak, bereziki: galtze-egoera eta/edo orientabidea galtzearen egoera; zaintzaileak utzi izanaren edo gerora sortutako absentziaren egoerak; genero-indarkeriako eta etxeko indarkeriako egoerak.</p> <p>b) Egoera berezien ondoriozko gizarte-larrialdiko egoeretan dauden pertsonak: zirkulazio-istripua, sutea, uholdea edo bestelako ezbeharrak.</p>
	<i>Adina</i>	Adin-mugarik gabe.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	Ez da inolako baldintzarik eskatuko, eta zerbitzu hori gizarte-premiazko zerbitzutzat hartuko da, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 3.3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, baita zuzenean lortzeko zerbitzutzat ere.
	<i>Premiazkoak</i>	Gizarte-zerbitzuen arreta behar duen gizarte-larrialdiko egoera bati aurre egitea, 28.1 artikuluan definitutako moduan.



**Bizimodu independentea babesteko zerbitzua (2.7.2.1)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Zerbitzu hau bizimodu independenteko programa baten bidez bideratzen da, daukaten adimen-desgaitasunaren eta/edo gaixotasun mentalaren ondoriozko mugak direla-eta bizimodu independenterako beren plana zuzenean kudeatu ezin duten eta modu autonomoan moldatzeko eta komunitate-ingurunean modu aktiboan parte hartzeko babes-premiak dituzten pertsonentzat da.</p> <p>Tutoretzako eta lagun egiteko ekintzen multzo antolatua da, babesa ematen diena, dagoeneko modu independentean bizi direnei edo modu independentean bizi nahi dutenei (bakarrik nahiz bikotekidearekin) edo desgaitasunen bat edo gaixotasun mentala duten beste pertsona batzuekin. Babes-sistemaren prestazioa dinamikoa eta malgua izango da, eta pertsona bakoitzaren premietara egokituko da.</p> <p>Honako helburu hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Erabiltzailea etxebizitzan molda dadin ahalbidetzea ikaskuntza erabilgarrien bitartez.</li> <li>b) Komunitate-ingurunean gizarteratzen laguntzea, familiarekin, lagunekin, kideekin, bizilagunekin eta abarrekin pertsonen arteko harreman-sarea sustatuz.</li> <li>c) Segurtasun- eta autoestimua-sentimendua handitzea.</li> <li>d) Beren etxebizitzan bizimodu independentea egiteko gaitasuna duten pertsonak bizitoki-zerbitzu batean edo egoitza-zerbitzu batean sartzeko aukera saihestea; horretarako, behar diren laguntzak emango zaizkie.</li> <li>e) Beren eskubideen erabateko erabilera ahalbidetzea gainerako pertsonekin aukera-berdintasuna izanik.</li> <li>f) Bizi-estilo propioa aukeratzeko aukera ematea, bizimodu independente bat izan dezan erraztuz.</li> <li>g) Komunitate-ingurunean bizitzaren eremu guztietan bere parte-hartze aktiboa erraztea.</li> </ul>	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	Informazioa. Jarraipen-balioespena. Bitartekaritza – Bitartekotza. Gizarte-eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: estimulaziokoa edo errehabilitaziokoa; hezkuntza-arlokoa; arlo psikosozialekoa. Lagun egite soziala. Tutoretza.
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	Desgaitasun intelektuala edo gaixotasun mentala izanik, eta mendetasun-arriskuan edo -egoeran egonik, % 33ko edo hortik gorako desgaitasun-gradua onartu zaien pertsonak.
	<i>Adina</i>	18 urte edo gehiago izatea.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	Mendetasun aitortua duten pertsonen kasuan, eskaera-dataren aurreko 12 hilabeteetan jarraian EAeko edozein udalerritan errolatuta egotea.
	<i>Premiazkoak</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>a) Behar adinako trebetasunak izatea bizimodu independentea garatzeko, betiere behar diren laguntzekin.</li> <li>b) Laguntzak behar izatea honako helburu hauetakoren bat edo batzuk egiteko: komunitatean bere bizitza eta gizarteratzea erraztea eta isolatuta gera dadin saihestea; etxebizitzan, eta/edo komunitatearen, hezkuntzaren edo lanaren ingurunean modu autonomoan molda dadin laguntzea edo ahalbidetzea.</li> <li>c) Laguntza ematen denean eta laguntzaz baliatzen den bitartean etxebizitza egokia izatea bere erabilera pertsonalerako, edozein titulupean, prekariora izan ezik.</li> </ul>
<b>Baterako ordainketa</b>	Baterako ordainketari lotutako zerbitzua.	

**Laguntza teknikoak (laguntza-produktuak) emateko eta ingurune fisikora egokitzeko zerbitzua (2.7.2.2)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Zerbitzuaren helburua eguneroko bizitzako jarduerak egiteari dagokionez autonomia pertsonala eta beren kasa balia daitezzen ahalbidetzea da. Helburu hori izanik: a) dauden laguntzako produktuei buruzko informazioa eta orientabidea ematen du, baita irisgarritasuna hobetzea ahalbidetzen duten ingurune fisikoaren egokitzapenei buruzkoa ere; b) eguneroko bizitzako jarduerak egiteko beharrezkoak diren laguntzako produktu berreskuragarriak lortzen laguntzen du, mailegu-sistemaren bitartez, bai pertsona bere etxebizitzan dagoenean, bai bizitoki- edo egoitza-zerbitzuren batean dagoenean; c) ohiko etxebizitza egokitzeko proposamenak egiten ditu, eta horri esker etxebizitzaren irisgarritasun-maila eta pertsonak haren barruan izango duen autonomia-maila hobetzea ahalbidetuko da.</p> <p>Zerbitzuak bere laguntza-produktuen eskaintza eta ingurune fisikora egokitzeko proposamenak ahalik eta gehien egokitzen ditu irisgarritasun unibertsalaren eta denontzako diseinuaren ikuspegira. Laguntza-produktu berreskuraezinak lortzeko aukera, horiek erosteko emandako laguntza ekonomikoen bitartez bermatu ahal izango da.</p> <p>Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen (17.2 artikulua) eta Dekretu honen ondorioetarako, honako hau ulertzen da <b>laguntza teknikoak</b> (laguntza-produktua): autonomiarako mugak prebenitu, konpentsatu, arindu edo ezabatzeko produktu, tresna, ekipamendu edo sistema tekniko oro, merkatuan lehendik dagoena edo berariaz fabrikatua. Laguntza teknikoak (laguntza-produktuak) izan daitezke: a) <b>berreskuragarriak</b>, onuradun batzuek batak bestearen ostean erabili ahal izateko modukoak direnean eta lekuz aldatzeko modukoak direnean garraioa beste kosturik gabe. Berreskuragarriak diren laguntza teknikoak hornidura-zerbitzuen edo aldi baterako lagapenen bidez emango dira; b) <b>berreskuraezinak</b>, beren ezaugarriak direla-eta eskualdatu ezin direnean eta, ondorioz, onura eskatzaile bakar bati edo, salbuespen gisa, aldi berean hainbati dakarkienez. Berreskuratu ezin diren laguntza teknikoek baliatzeko modua laguntza horiek bermatzeko laguntza ekonomikoak esleituz bermatu ahal izango da.</p> <p>Eta <b>ingurune fisikora egokitzea</b>: arkitektura-oztopoak ezabatzeko modua emango duten obrak diseinatu eta gauzatea eta erabiltzailearen ohiko bizilekuan egokitzeak egitea, haren irismena errazteko eta haren autonomia-pertsonalaren maila hobetzeko. Zerbitzua eman ezin denean, laguntza ekonomikoen bidez bermatuko dira ingurune fisikoan egin beharreko egokitzeak.</p>	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	<p>Informazioa.</p> <p>Orientabidea, honako hauek barne: a) egokitze hartzen diren laguntzako produktuak eta ingurune fisikoaren egokitzapenak agintzea; b) laguntza-produktu berreskuraezinak eskuratzeko eta/edo ohiko etxebizitzan eta ibilgailu partikularretan egokitzapenak egiteko laguntza ekonomikorantz orientatzea (3.3.1 eta 3.3.2 fitxak).</p> <p>Laguntza-produktuak eta horiek erabiltzeko hasierako oinarriko entrenamendu bat ematea.</p> <p>Ingurune fisikora egokitzea</p>
	<i>Osasun-sistemarenak</i>	Osasun-katalogoan bilduta dauden laguntza-produktuak, osasun-araudian aurreikusitakoaren arabera.
	<i>Etxebizitza</i>	Egokitzapenak ohiko etxebizitzan, etxebizitza-araudian aurreikusitakoaren arabera.
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	% 33ko edo gehiagoko desgaitasuna dutenak Mendetasun-egoeran dauden pertsonak.
	<i>Adina</i>	Adin-mugarik gabe, honako hauentzat salbu: a) motordun ibilgailuak plataforma jasotzaileen bitartez egokitzea (3 urte edo gehiago izatea); b) entzumen-protesiak (16 urte edo gehiago izatea).
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	<p>a) Eskaera-dataren aurreko 12 hilabeteetan jarraian EAEko edozein udalerritan erroldatuta egotea.</p> <p>b) Kontzeptu berarengatik azken 6 urteetan ez jaso izana laguntzako produkturik edo laguntza teknikorik, entzumen-protesiak izan ezik, betiere dagokion txosten teknikoaren bitartez behar bezala justifikatutako salbuespenezko kausaren bat ez bazegoen.</p> <p>c) Ingurunea egokitzeko zerbitzua eskuratu ez izana aurretik, salbu eta bitartean, mugitzeko zailtasunak nabarmen areagotu badira eta egoera berriaren ondorioz egokitzapen berriak egin behar badira.</p>
	<i>Premiazkoak</i>	<p>a) Eskatutako laguntza-produktua behar izatea desgaitasunaren edo mendetasunaren ondorioak arintzeko.</p> <p>b) Egokitzapenak egin behar izatea ohiko etxebizitzan, etxebizitza irisgarria izateko eta haren barruan autonomia-maila hobetzeko, eta egiaztatutako desgaitasunaren edo mendetasunaren ondorioak arintzeko.</p>
<b>Baterako ordainketa</b>	Baterako ordainketari lotutako zerbitzua.	

**Pertsona heldu ezinduentzako tutoretza-zerbitzua (2.7.2.3)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Zerbitzu hau bizitzako eremu batzuetan edo guztietan beren erabakiak hartzeko gaitasunik ez duten eta judizialki ezindutzat hartu diren edo ezintasun-prozesuetan dauden helduentzat da; zerbitzu honen helburua pertsonaren eskubideak babestea ez ezik, eskubideak egiaz baliatzen direla sustatzea eta ahalbidetzea ere izanik.</p> <p>Ezinduen mesederako gauzatu behar ditu beti bere eginkizunak, ezintasuna ematen duen ebazpen judizialean definitutako mugekin. Subsidiarioki soilik esku hartzen du, hots, dagokion pertsonak bere gizarte- eta familia-arloko babes-sarean ez duenean tutoretzako eginkizun horiek bere gain har ditzakeen pertsonarik.</p> <p>Ezintasuntzat jo aurreko eginkizunak garatzen ditu:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Ezindutzat jo dezaten bultzatzea behar duten pertsonen kasuan.</li> <li>Pertsonaren balioespena egitea jarduteko gaitasunean, hau da, dagokion eskubideak baliatzeko eta defendatzeko gaitasunean dituen mugak ezartzeko.</li> <li>Ezindutzat hartzeko prozedurari eta tutoretzako eginkizunak gauzatzeari buruzko informazioa eta aholkuak ematea Kode Zibilararen arabera ezintasun-prozedurari hasiera eman diezaioketen ahaideei.</li> <li>Informazioa eta aholkuak ematea heldu bati buruzko tutoretza gauzatzen duten ahaideei, familia-unitatearen osaera dela-eta aurreikusten bada ahaide horiek hiltzen direnean tutoretza-erakunde batek hartu beharko duela heldu horren tutoretza.</li> <li>Defentsa judiziala.</li> </ol> <p>Eta beste batzuk dagoeneko ezinduta dauden helduentzat:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li><b>Tutoretza</b>, hau da, ezindutzat hartutako pertsona ekintza guztietan ordezkatzeko, betiere ezintasun-epaiaren arabera pertsona horrek ezin baditu ekintza horiek bere kabuz egin, bai ekintza horiek esfera pertsonala hartzen badute eraginpean, bai haren ondasunak administratzeko ekintzak badira.</li> <li><b>Kuradoretza</b>, hots, dagokion pertsonaren ondasunak administratzea eraginpean hartzen duten ekintzetan laguntzea pertsona, epaiak pertsona bere bizitzaren esfera honetan soilik ezgaitzen duenean.</li> </ol> <p>Tutoretzapeko pertsonari dagokienez, bere helburuak honako hauek dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Zaintzea arlo guztietan (osasuna, hezkuntza, lana, etxebizitza, aisia eta astialdia, eta abar) ahalik eta laguntza hoberenak izan ditzan, baita behar dituen baliabide ekonomikoak izan ditzan ere.</li> <li>Behar diren ekintza eta jarduera guztietan ordezkatzeko eta bere eskubide guztiak baliatzea eskubide horiek defendatuz (dagokion ebazpen judizialean kasu bakoitzean ezartzen diren mugen arabera eta horien barmean).</li> <li>Bere ondasunen administrazioan laguntzea leialtasun eta gardentasun osoz, agintaritza judizial eskudunak emandako mandatuaren arabera.</li> <li>Garapen pertsonal handiena lortzea, bere bizitzan eragina duten erabakiak hartzerakoan bere parte-hartze aktiboa erraztuz ahal den guztian.</li> <li>Bere gizarteratzea eta komunitate-inguruneko bizitzan erabateko parte-hartzea sustatzea.</li> </ol> <p>Eta heldu ezinduen familiei dagokienez: a) ezinduarekiko legezko erantzukizuna gauzatzen laguntzea; b) lasaitasuna ematea bere ahaidearen etorkizuneko zaintzari buruz.</p>	
<b>Prestazioak</b>	<b>Gizarte-zerbitzuenak</b>	Informazioa. Jarraipen-balioespena. Orientabidea. Bitartekaritza – Bitartekotza. Arreta soziojuridikoa (tutoretza eta kuradoretza gauzatzea).
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	Beren eskubideak defendatzeko eta baliatzeko eta beren erabakiak hartzeko gaitasunik ez izateagatik babesgabetasun-egoeran dauden pertsonak.
	<i>Adina</i>	18 urte edo gehiago dituztenak

<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	<p>a) Tutoretzako eta kuradoretzako zerbitzuak egikaritzeko: ezintasun-epaia, eta eginkizun horiek bere gain har ditzakeen ahaiderik ez duela egiaztatzen duen dokumentazioa.</p> <p>a) Balioespena egiteko, informazioa emateko eta aholkularitzako eginkizunak gauzatzeko: ezintasun-prozedura bat abian jarrita egotea edo prozedura hastea aurreikusita egotea.</p>
	<i>Premiazkoak</i>	<p>a) Tutoretzako eta kuradoretzako zerbitzuak lortzeko: interesdunak ez izatea bere eskubideak defendatzeko eta baliatzeko eta bere erabakiak hartzeko gaitasunik. Hori ematen duen epai judiziala izatea, baita tutoretza edo kuradoretza zerbitzuari esleitzen diona ere. Tutoretza- edo kuradoretza-eginkizunak bere gain har ditzakeen ahaiderik edo bestelako hurbilekorik ez izatea.</p> <p>b) Informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak lortzeko: Ezintasun-prozeduraren xede izan daiteken heldua izatea. Edo Kode Zibilaren arabera, ezintasun-prozedura bati hasiera eman diezaiokeen ahaide bat izatea.</p>
<b>Baterako ordainketa</b>	Baterako ordainketari lotutako zerbitzua (ondare-egoera kontuan hartuta).	

**Garraio egokituko zerbitzua (2.7.2.4)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Bere autonomian mugikortasunik ezaren ondoriozko mugak dituzten pertsonentzako atez ateko garraio-zerbitzua. Mugikortasunari laguntzeko produktuak erabiltzen dituzten pertsonen premietara egokitutako ibilgailuen bitartez ematen da (gurpil-aulkiak, ohatilak, taka-takak edo bestelakoak). Pertsona horiek garraio-sare publikoaren bitartez egin ezin izango lituzketen bidaiak egitea ahalbidetzen du, ohikoak ez diren jarduerak egiteko joan-etorriak egin behar dituztenean.</p> <p>Aurrekoaren ondorioetarako, honako hauek jotzen dira ohiko jardueratzat: a) lanegunetan egunero egiten direnak (lanera, eskolara, prestakuntza-zentrora, eguneko zentrora edo beste batzuetara joatea); b) asteburuan egiten direnak (aisia eta astialdia); c) lanegunetan maiz eta erregulariki egiten direnak, baina ez egunero (medikuarengana joatea, kudeaketak egitea, edo antzeko beste batzuk).</p> <p>Zerbitzu honek pertsonen autonomia bultzatu nahi du, administrazio publikoetan mugikortasunaren eta garraioaren arloan eskumena duten arlo edo sailen beharrezko lankidetzaz izanik.</p>	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	Garraio egokitua.
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	Mugikortasunean muga larriak dituzten eta II. eta III. graduko mendetasun-egoeran dauden pertsonak.
	<i>Adina</i>	Adin-mugarik gabe.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	Eskaera-dataren aurreko 12 hilabeteetan jarraian Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egotea.
	<i>Premiazkoak</i>	<p>a) Etxebizitzan bertan edo lehen mailako arreta emateko bizitoki-zerbitzu batean bizitzea.</p> <p>b) Behar bezala egokitutako ibilgailu propioa ez izatea eta, aldi berean, ohiko etxebizitzan eta ibilgailu partikularretan egokitzapenak egiteko laguntza ekonomikoa ez eskatzea (3.3.2).</p> <p>c) Garraio-sare publikoa erabiltzeko aukerarik ez izatea.</p>
<b>Baterako ordainketa</b>	Baterako ordainketari lotutako zerbitzua.	

**Familiekin gizarte- eta hezkuntza-arloan eta/edo arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak (2.7.3.1)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Zerbitzu hauek harreman-prestazioen multzo bat dira, familia-unitateei edo bizikidetz-unitateei gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntza eta/edo arlo psikosozialeko laguntza ematera bideratuta daudenak, honako helburu hau izanik:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Ohitura, portaera, iritzi, sentimendu eta jarrera desegokien ordeztu ohitura, portaera, iritzi, sentimendu eta jarrera egokiagoak izaten laguntzea, baita bizikidetz egokia izateko eta/edo kargura ditzuten pertsonak behar bezala zaintzeko beharrezkoak diren gaitasunak (jarrerak, jakintzak, irizpideak, jarraibideak, trebetasunak) hartzen edo garatzen laguntzea, eta hala badagokio, gurasoen, ahaideen eginkizunak eta erantzukizunak nahiz bizikidetz-arlokoak behar bezala gauzatzea eragozten duten alderdiak aldatu egingo dira.</li> <li>– Bizikidetz-testuinguruaren narriadura handiagoa izateko aukera prebenitzea; horretarako, portaera desegokiak edo krisi-egoerak geldiarazi egingo dira eta ekin egingo zaie.</li> </ul> <p>Eginkizun horiek gauzatzeko, zerbitzuak banako, familiako eta taldeko esku-hartzeak antola ditzake, eta esku-hartze horiek familiako etxebizitzan (etxeko hezkuntza eta familiako hezkuntza) nahiz etxebizitzatik kanpo gara daitezke, arlo psikosozialeko esku-hartzeen bitartez eta/edo, hala badagokio, esku-hartze terapeutikoaren bitartez. Bereziki Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 55.3 b) artikuluan aurreikusitako programen bitartez: a) arazoak ditzuten familietan esku-hartze terapeutikoak egiteko zerbitzuak; b) tratu txarrak, abandonua edo esplotazioa dauden egoeretan –lan-esplotazioa barnean izanik– esku hartzeko zerbitzuak; c) sexu-abusuak daudenean esku hartzeko zerbitzuak.</p>	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuak</i>	<p>Informazioa.</p> <p>Jarraipen-balioespena.</p> <p>Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: hezkuntza-arloko esku-hartzea; arlo psikosozialekoa.</p> <p>Lagun egite soziala.</p> <p>Bitartekaritza – bitartekotza.</p>
	<i>Osasun-sistemarenak</i>	Laguntza psikologikoa (terapia psikologikoa).
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	Babesgabetasun larriko egoeran dauden adingabeak edo adinekoak ditzuten familia-unitateak edo bizikidetz-unitateak, genero-indarkeriako egoerei aurre egiten dietenak barne.
	<i>Adina</i>	Adin-mugarik gabe.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	<p>a) Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea eta arlo psikosozialeko esku-hartzea adingabeen babesgabetasun larriko egoeretara bideratzen denean, ez da aurretiazko erroldatzealdirik behar izango.</p> <p>b) Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 3. artikuluan aurreikusitako titulartasun-baldintza orokorrak aplikatuko dira gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea eta arlo psikosozialeko esku-hartzea helduen babesgabetasun-egoeretara bideratzen denean.</p> <p>c) Ez zaie inolako administrazio-baldintzarik genero-indarkeriaren biktimei (Emakumeak eta horien guraso-ahalaren, zaintzaren eta jagoletzaren mende dauden seme-alaba adingabeak).</p>
	<i>Premiazkoak</i>	<p>Honako hauek biltzen dituen familia- edo bizikidetz-unitate bat izatea:</p> <p>a) babesgabetasun-egoera larriari dagoen adingabe bat edo batzuk, eta gizarte- eta hezkuntza-arloko eta/edo arlo psikosozialeko laguntza behar izatea familia-bizikidetz eta guraso-trebetasunak hobetzeko; b) edo babesgabetasun-egoeran dauden heldu batek edo batzuk, eta gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntza eta/edo arlo psikosozialeko laguntza behar izatea familia-bizikidetz hobetzeko eta kide kalteberenak zaintzeko eta arreta egiteko eginkizunak eta erantzukizunak hobeto gauzatzeko.</p>

**Arreta goiztiarrerako esku-hartze sozialeko zerbitzua (2.7.4)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Honako hau hartzen da arreta goiztiartzat: 0-6 urteko haurrei, familiari eta inguruneari zuzendutako esku-hartzeen multzoa, ikuspegi sanitario, sozial eta hezkuntza-arlokoetik begiratuta helburutzat nahasmenduak dauzkaten haurrek beren garapenean agertzen dituzten, edo horiek pairatzeko arriskua duten, premia iragankor edo iraunkorrei al bait lasterren eta modu integratuean erantzutea duena.</p> <p>Arreta goiztiarrak honako helburu hauei erantzuten die:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Gabeziak edo eskasiak haurraren osotasun globalean dituen ondorioak murriztea.</li> <li>Bigarren mailako edo nahaste bati edo arrisku handiko egoera bati lotutako gabeziak edo eskasiak ager daitezen saihestea edo murriztea.</li> <li>Haurraren garapena optimizatzea, ahal den neurrian.</li> <li>Konpentsatzeko, oztopoak ezabatze eta premia espezifikoei erantzuteko beharrezkoak diren mekanismoak sartzeari.</li> <li>Familiaren eta haurra bizi den ingurunearen premiak eta eskariak kontuan hartzea eta betetzea.</li> </ol> <p>Jardun horiek, diziplinarteko izaera duen eta osasun-, hezkuntza- eta gizarte-eremuko profesionalen osatuta dagoen Arreta Goiztiarreko Balorazio Lantaldeak planifikatzen ditu (AGBL), eta Esku-hartze Lantaldeek (AGEL) garatzen dituzte.</p>	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuak</i>	<p>Informazioa.</p> <p>Orientabidea.</p> <p>Balioespen espezializatua eta jarraipen-balioespena.</p> <p>Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku hartzea:</p> <p>Lagun egite soziala.</p>
	<i>Osasunari eta hezkuntzari lotuta</i>	Informazioa. Diagnostikoa. Balioespena. Orientabidea. Esku-hartzea.
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	Garapenaren nahasteak dituzten edo nahaste horiek izateko arriskua duten pertsonak.
	<i>Adina</i>	6 urteko edo hortik beherako pertsonak.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	Diagnostikatuta izatea garapenaren nahaste fisikoa, psikikoa edo zentzu-menezkoa, edo nahaste hori izateko arriskuan egotea, prematuritatea, sortzetiko asalduek, entzefalopatiak, atzerapen psikomotorra edo bestelako kausak direla medio.
	<i>Premiazkoak</i>	Arreta goiztiarreko zerbitzuak behar izatea Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldeak (AGBT) ezarritako balioespen teknikoaren arabera.



**Tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren emakumeei, adingabeei, adinekoei eta desgaitasuna duten pertsonei laguntza psikosoziala eta soziojuridikoa emateko zerbitzuak (2.7.5)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Zerbitzu horiek bere osotasunean ekiten diete gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzean, arlo psikosozialeko esku-hartzean eta, hala badagokio, esku-hartze terapeutikoan dauden premiei, baita aholkularitza soziojuridikoko premiei ere, tratu txarren egoeren eta sexu-askatasunaren aurka egon litezkeen ekintzen ondoriozkoak direnei, edozein izanik ere horiek gertatu diren eremua.</p> <p>Esku-hartze horiek:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Hala biktimei –bikoteak edo bikote ohiak eragindako indarkeriaren kasuan, erasoia jasan duen pertsonaren guraso-ahala, zaintza eta jagoletzaren pean dauden seme-alabak ere zuzeneko biktima direla ulertuz– nola erasotzaileei daude zuzenduta.</li> <li>– Eta bi kasuetan genero-ikuspegitik eta indarkeriaren biktima diren emakumeen ahalduntzea bultzatzen duen ikuspegiarekin egiten dira.</li> </ul> <p>Honako helburu hauek ditu:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>a) Biktimak babestea.</li> <li>b) Biktimei, eta haiekin bizi ohi diren beste pertsona batzuei, tratu txarren edo beren sexu-askatasunaren aurkako ekintzaren ondorioz pairatutako kalte traumatikotik errekuperatzen laguntzea.</li> <li>c) Emozionalki errekuperatzen laguntzea, baita autoestimua hobetzen ere, distantzia jarritz eta erasotzaileengandik urruntzeari aurre egiteko nahiz etorkizunean sor litezkeen eraso-saialdiei aurre egiteko beharrezkoak diren gaitasunak hartuz edo garatuz.</li> <li>d) Erasotzaileari tratamendu bat ahalbidetzea, bere portaera erasokorra desagerraraztea edo eustea ahalbidetuko duena.</li> <li>e) Erasotzaileari laguntzea tratu txarren edo sexu-askatasunaren aurkako ekintzen sorburu izan diren alderdiei buruzko kontzientzia hartzen eta beharrezkoak diren gaitasunak garatzen bere portaera aldatzeko, etorkizuneko gertaerak saihesteko eta, hala badagokio, familia-edo bizikidetzaren nukleoaren urruntzea errespetatzeko.</li> <li>f) Laguntza soziojuridikoa emateko zerbitzu baten bitartez tratu txarren eta sexu-erasoen kasuetatik eratorritako gatazka prebenitu eta arintzea.</li> </ol>	
<b>Prestazioak</b>	<p><i>Gizarte-zerbitzuenak</i></p> <p><i>Osasun-sistemarenak</i></p>	<p>Informazioa.</p> <p>Jarraipen-balioespena.</p> <p>Orientabidea.</p> <p>Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: hezkuntza-arloko esku-hartzea; arlo psikosozialekoa.</p> <p>Lagun egite soziala.</p> <p>Laguntza soziojuridikoa ematea biktimei prozesu aurreko eremuan.</p> <p>Laguntza psikologikoa (terapia psikologikoa).</p>
<b>Zerbitzu motak</b>	<p><b>1.– Laguntza soziojuridikoa eta psikosoziala emateko zerbitzua, tratu txarren edo sexu-askatasunaren aurkako ekintzen biktima direnentzat.</b></p> <p><b>2.– Arlo psikosozialeko laguntza emateko zerbitzua erasotzaileentzat, tratu txarreko ekintzen edo sexu-askatasunaren aurkako delituen egileentzat.</b></p>	
<b>Hartzaileak</b>	<p><i>Egoera</i></p> <p><i>Adina</i></p>	<p>a) Tratu txarren edo sexu-askatasunaren aurkako ekintzen biktima izatea.</p> <p>b) Tratu txarren edo sexu-askatasunaren aurkako ekintzen egile izatea.</p> <p>Adin-mugarik gabe.</p>
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<p><i>Administraziokoak</i></p> <p><i>Premiazkoak</i></p>	<p>Ez da inolako administrazio-baldintzarik eskatuko preskripzio teknikoaz gain.</p> <p>a) Lehen mota lortzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Tratu txarren edo sexu-askatasunaren aurkako ekintzen biktimak izatea edo noizbait izana izatea, betiere horien pisuzko zantzuak baldin badaude.</li> <li>– Tratu txarreko ekintzen edo sexu-indarkeriaren aurkako ekintzen biktima denaren edo diren bizikidetzaren unitateko kide izatea, bereziki mendetasun-egoeran edo -arriskuan dauden helduak badira.</li> </ul> <p>b) Bigarren mota lortzeko: tratu txarren edo sexu-askatasunaren aurkako ekintzen egile izatea.</p>

**Familia-harrera sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua (2.7.6.1)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Zerbitzu hau haurrak eta nerabeak babesteko lurralde-zerbitzu espezializatuan txertatuta dago eta honako eginkizun orokor hauek ditu:</p> <p>a) Familia-harrera sustatzea, familia hartzaileak erakartzeko zabalkunde-kanpainen bitartez (gizarte osoari zuzenduta egongo lirateke kanpaina horiek).</p> <p>b) Familia hartzaile izateko izangaiak hautatzea, haurra edo nerabea hartzea eskatu duten pertsonen edo familia-unitateen zirkunstantziak balioetsiz, haurraren edo nerabearen premiak betetzea bermatzeko egokiak ote diren eta ezarritako lege-betebeharrak betetzen ote dituzten zehazteko.</p> <p>c) Familia hartzaileen zerrenda eguneratu bat izatea.</p> <p>d) Familia-harrerari buruzko informazioa ematea: prozedura, harrera gauzatzea eta harreraren ondorioak edo eragina.</p> <p>Eta familia-harrera bat formalizatu den haur edo nerabeei bereziki zuzendutako beste batzuk:</p> <p>a) Familia hartzaileei laguntzea, beren gain hartzen dituzten eginkizunak gauzatzeari nahiz orientatzeari dagokionez, eta hala badagokio, harrera-aldia amaitzen denean edo adin-nagusitasuna amaitu ondoren bizikidetzak jarraitzen duenean, laguntzea.</p> <p>b) Eraturako familia-harrerak aldi behin gainbegiratzea, hartutako haurraren edo nerabearen premietara eta interes handienera egokitzuz garatzen ari ote diren zehazteko.</p> <p>c) Familia-harrerarekin lotutako gastuak konpentsatzeko laguntza ekonomikoak izapidetzea.</p> <p>d) Familia biologikoari laguntza ematea.</p>	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	<p>Informazioa.</p> <p>Jarraipen-balioespena.</p> <p>Bitartekaritza – Bitartekotza.</p> <p>Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: hezkuntza-arloko esku-hartzea (familientzako prestakuntza); arlo psikosozialekoa.</p> <p>Lagun egite soziala.</p> <p>Arreta soziojuridikoa.</p> <p>Prestakuntza.</p>
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	<p>a) Adingabeak, betiere horientzat familia-harrera babes-alternatiba egokitzat jotzen bada, administrazio-erabaki edo erabaki judizialen bati erantzuten dionean nahiz arrazoi larriak direla-eta borondatezko zaintza-eskaeraren bati erantzuten dionean.</p> <p>b) Haur edo neraberen bat hartu nahi duten familia- edo bizikidetz-unitateak, dagozkien egokitzapen-baldintzak betetzen badituzte.</p>
	<i>Adina</i>	<p>a) 18 urtetik beherako pertsonak, hartutako pertsonen kasuan.</p> <p>b) 18 urte edo gehiago dituzten pertsonak, hartzaileen edo izangaien kasuan.</p>
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	<p>Hautatua izateko eta familia hartzaileen zerrendan egoteko:</p> <p>a) Familia-harrera eskatu duen Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta egotea eskaera egiteko eta familia-harrera formalizatzeko uneetan. Eta EAEko edozein udalerritan erroldatuta egotea eta legez eta egiaz udalerriri horretan bizitzea edo eskaera-dataren aurreko 12 hilabeteetan jarraian EAEko edozein udalerritan erroldatuta egotea. Bi kasuetan, hartutako haur edo nerabearen interesak beste autonomia-erkidego batean bizi den familia zabal batean edo besteren familia batean harrera egitea gomendatzen duenean salbu.</p> <p>b) Familia-harrera eskatzea.</p> <p>Laguntza- eta jarraipen-zerbitzuak eskuratzeko, familia-harrera formalizatuta egotea.</p>
	<i>Premiazkoak</i>	<p>Hautatua izateko eta familia hartzaileen zerrendan egoteko Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 73. artikuluan aurreikusitako egokitzapen-irizpideak betetzea.</p> <p>Laguntza- eta jarraipen-zerbitzuak eskuratzeko:</p> <p>a) Familia-harrerako egoeran edota familia-harreraren formalizazioaren aurreko edo prestaketarako faseetan dagoen adingabea izatea.</p> <p>b) Familia hartzailearen bateko kidea izatea, familia-harrera formalizatu denean nahiz aurreko edo prestaketako faseetan dagoenean.</p> <p>c) Hartutako adingabearen familia biologikoa izatea.</p>

**Adopzioa sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua (2.7.6.2)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Zerbitzu hau haurrak eta nerabeak babesteko lurralde-zerbitzu espezializatuan txertatuta dago eta eginkizun orokor berdinak ditu:</p> <p>a) Adopzioa –bereziki, premia bereziak dituzten haurrena– sustatzea, orokorrean biztanleria osoari zuzendutako kanpainen bitartez, dibulgazioko eta familiak erakartzeko kanpainen bitartez, hain zuzen.</p> <p>b) Familia adoptatzaile izateko izangaiak hautatzea, haurra edo nerabea adoptatzea eskatu duten pertsonen edo familia-unitateen zirkunstantziak balioetsiz, haurraren edo nerabearen premiak betetzea bermatzeko egokiak ote diren eta ezarritako lege-betebeharrak betetzen ote dituzten zehazteko.</p> <p>c) Familia adoptatzaileen zerrenda eguneratu bat izatea.</p> <p>d) Adopzioaren inguruan informatzea: prozedura, adopzioa gauzatzea eta adopzioaren ondorioak edo eragina.</p> <p>Eta adopzio bat formalizatu den haur edo nerabeei bereziki zuzendutako beste batzuk:</p> <p>a) Familia adoptatzaileei laguntzea, adopzio-prozeduran aholkatzeko.</p> <p>b) Eratutako familia-adopzioak aldi behin gainbegiratzea, adoptatutako haurraren edo nerabearen premietara eta interes handienera egokituz garatzen ari ote diren zehazteko.</p> <p>c) Adoptatuari laguntza eta babesa ematea bere jatorriari buruzko informazioa bilatzeko prozeduran.</p>	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	<p>Informazioa.</p> <p>Jarraipen-balioespena.</p> <p>Bitartekaritza – Bitartekotza.</p> <p>Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: hezkuntza-arloko esku-hartzea (familientzako prestakuntza); arlo psikosozialekoa.</p> <p>Lagun egite soziala.</p> <p>Arreta soziojuridikoa.</p> <p>Prestakuntza.</p>
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	<p>a) Adingabeak, betiere horientzat adopzioa babes-alternatiba egokitza jotzen bada.</p> <p>b) Haur edo neraberaren bat adoptatu nahi duten familia- edo bizikidetz-unitateak, dagozkien egokitasun-baldintzak betetzen badituzte.</p> <p>c) Adoptatutako adinekoak, beren jatorriaren bila dabiltzanak.</p>
	<i>Adina</i>	<p>a) 18 urtetik beherako pertsonak, adoptatutako pertsonen kasuan.</p> <p>b) 18 urte edo gehiago dituzten pertsonak, adoptatzaileen edo beren jatorria bilatzen ari diren adoptatuen kasuan.</p>
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	<p>Ahaide adoptatzailea edo izangaia izateko:</p> <p>a) Adoptatzailea edo adoptatzaileak adopzioa eskatu duen Lurralde Historikoko udalerrri batean erroldatuta egotea eskaera egiteko eta adopzioa formalizatzeko uneetan.</p> <p>b) Egokitasun-deklarazioa eskatzea.</p> <p>c) Adopzio-prozedura hastea.</p>
	<i>Premiazkoak</i>	<p>Ahaide adoptatzailea izateko, haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 83. artikuluan adopziorako aurreikusitako egokitasun-irizpideak betetzea.</p> <p>Laguntza- eta jarraipen-zerbitzuak eskuratzeko:</p> <p>a) Adopzioko egoeran edota adopzioaren formalizazioaren aurreko edo prestaketarako faseetan dagoen adingabea izatea.</p> <p>b) Familia adoptatzaile bateko kidea izatea, adopzioa formalizatu denean nahiz aurreko edo prestaketako faseetan dagoenean.</p> <p>c) Adoptatutako adinekoa izatea, eta bere jatorriaren bila dabilena.</p>

**Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa – LPPE (3.1.1)**

<b>Helburuak</b>	Prestazio horren helburua, batetik, mendetasuna duten pertsonen autonomia sustatzea da, eta bestetik, laguntza pertsonala kontratatzen laguntzea, onuradunari hezkuntza jasotzen eta lanera joaten lagunduko diona, baita bere eguneroko bizitzako oinarritzako jarduerak gauzatzean bizitza autonomoagoa izaten lagunduko diona ere.	
<b>Prestazioaren ezaugarriak eta hura jasotzeko baldintzak</b>	<p>Aldian behingoa da.</p> <p>Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren (AMAS) barruan dago eta haren prestazio ekonomikoekin bateraezina da, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa salbu ostatu- edo egoitza-plaza baten gastuak ordaintzeko bideratzen ez denean, Mendetasunari arreta emateko zerbitzu guztiekin bateragarria da, egoitza-zentroetako edo ostatu-zerbitzu publikoetako, itundu pribatuetako edo itundu gabeko pribatuetako egonaldiak salbu.</p> <p>Ostatu-zerbitzu bateko bi hilabetetik gorako aldi baterako egonaldiren batekin bateragarri egiten badira, etenda geratuko da aldi baterako, egoitza-egonaldia amaitzen den arte.</p> <p>Etkez etxeko Laguntza Zerbitzuarekin bateragarria ote den erabakitzea Foru Aldundien eskumena da.</p>	
<b>Zenbatekoa</b>	<p>Gehieneko zenbatekoa urtean behin finkatuko dute Foru Aldundiek mendetasun-gradu bakoitzerako, eta estatuak ekitaldi bakoitzerako ezarritakoa hartuko da gutxieneko erreferentziatzat. Gehieneko zenbateko hori murriztu egiten da honako hauek kontuan izanik:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Laguntza pertsonalaren kontratazioaren kostua, aipatutako gehieneko zenbatekoaren mugarekin.</li> <li>Eskatzailearen banako gaitasun ekonomikoa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen finantzaketan ordaintzera behartuta dauden pertsonen partaidetza ekonomikorako irizpide orokorrak erregulatzeko araudian horri dagokionez zehaztutako moduan.</li> <li>Mendetasun-egoerei arreta emateko beste gizarte-zerbitzu batzuk aldi berean erabiltzea, telelaguntza-zerbitzuaren kasuan izan ezik; telelaguntza-zerbitzua prestazio ekonomikoarekin batera egin daiteke, horren zenbatekoan eraginik izan gabe.</li> <li>Antzeko izaera eta helburua duten bestelako prestazioak –gizarte-babeserako erregimen publikoetan ezarritakoak– kobratzea: a) baliaezintasun handiko osagarria; b) % 75eko edo hortik gorako desgaitasun-gradua duen 18 urtez gorako ardurapeko seme edo alaba bakoitzarengatiko esleipen ekonomikoaren gehigarria; c) hirugarren pertsonak kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioa behar izateagatiko gehigarria.</li> </ol>	
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	Mendetasun-egoeran dauden pertsonak.
	<i>Adina</i>	3 urteko edo gehiagoko pertsonak
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<p>Mendetasuna duen pertsonari aplikatzeko baldintzak:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Eskaera aurkezten den egunean, prestazioa eskatzen den Foru Aldundiari dagokion Lurralde Historikoko udalerriren batean errolatuta egotea eta bertan errolatuta egoten jarraitzea prestazioa jasotzen den denbora guztian.</li> <li>Behar dituen zerbitzuak erabakitzeko, kontrolatzeko eta laguntzaile pertsonalari zerbitzu horiek nola eman behar diren adierazteko jarraibideak emateko gaitasuna izatea, honako kasu hauek salbu: <ul style="list-style-type: none"> <li>– onuradunak 18 urte edo gehiago ez dituen; kasu horretan, guraso-ahala edo tutoretza duen pertsonari eskatuko zaio gaitasun hori;</li> <li>– eginkizun horiek modu autonomoan betetzeko gaitasun intelektuala ez duenean; kasu horretan, erabaki-hartze lagundurako beharrezko laguntzekin gauzatu ahal izango ditu.</li> </ul> </li> <li>Hezkuntza- edo lan-jarduerak edota eguneroko bizitzarako jarduerak egiteko laguntza behar izatea.</li> </ol> <p>Laguntzaile pertsonal gisa diharduen pertsonari aplikatzeko baldintzak:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Adin nagusikoa izatea.</li> <li>Zerbitzuak ematen dituen eta behar bezala homologatuta eta baimenduta dagoen enpresarekin formalizatutako kontratu baten bitartez ematea zerbitzuak, edo bestela, zuzenean laneko edota zerbitzuak emateko kontratu baten bitartez.</li> <li>Estatu-lurraldean legez bizitzea.</li> <li>Gizarte Segurantzako afiliazio-, alta- eta kotizazio-baldintzak betetzea.</li> <li>Laguntza pertsonaleko zerbitzuak emateko egokitasun-baldintzak betetzea, prestakuntzari dagokionez beharrezko prestakuntza egiaztatuz.</li> <li>Onuradunaren ezkontidea, eta/edo odol-ahaidetasun, ezkontza-ahaidetasun edo adopzio-ahaidetasunezko hirugarren mailara arteko ahaidea ez izatea, eta familia-harreraren ondoriozko loturarik ez izatea.</li> </ol>	

### Familia-inguruneke zainketetarako eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa – FIZPE (3.2.1)

<b>Helburuak</b>	Bere gizarte- eta familia-arloko babes-sareko pertsona batek mendeko pertsonari emandako arretaren ondoriozko gastuak betetzen laguntzeko helburua du, betiere haren zaintzaile nagusi eta ohiko gisa badihardu eta arreta bere kabuz nahiz beste pertsonaren batek lagunduta (hots, beste pertsona hori ikuskatuz) ematen badu.	
<b>Prestazioaren ezaugarriak eta hura jasotzeko baldintzak</b>	<p>Aldian behingoa da. Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren (AMAS) barruan dago eta haren prestazio ekonomikoekin bateraezina da (zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa salbu), baina mendetasunari arreta emateko zerbitzu guztiekin bateragarria da, egoitza-zentroetako edo estatu-zerbitzu publikoetako, itundu pribatuetako edo itundu gabeko pribatuetako egonaldiak salbu. Egoitza-izaerako zerbitzu bateko aldi baterako egonaldiren batekin bateragarri egiten bada, prestazio ekonomikoa etenda geratuko da aldi baterako, egonaldia amaitzen den arte, Foru Aldundi bakoitzak araututako moduan.</p> <p>Onuradunari emandako arretaren kalitatea bermatzeko, prestazioaren ematea honako elementu hauek txertatuz antolatuko da: a) prestazioaren erabilera eta etxean emandako arretaren egokitasuna gainbegiratzea; b) zaintzaile nagusiak arretaren karga bere gain hartzeko, eta hala badagokio, bestelako zaintzaileak ikuskatzeko gauzatutako prestakuntza eta gaikuntza.</p>	
<b>Zenbatekoa</b>	<p>Gehieneko zenbatekoa urtean behin finkatuko dute Foru Aldundiek mendetasun-gradu bakoitzerako, eta estatuak ekitaldi bakoitzerako ezarritakoa hartuko da gutxieneko erreferentziatzat. Zenbateko hori murriztu egiten da honako hauek kontuan izanik:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa.</li> <li>Mendetasun-egoerei arreta emateko beste gizarte-zerbitzu bat edo batzuk aldi berean erabiltzea, telelaguntza-zerbitzuaren kasuan izan ezik; telelaguntza-zerbitzua prestazio ekonomikoarekin batera egin daiteke, horren zenbatekoan eraginik izan gabe.</li> <li>Antzeko izaera eta helburua duten bestelako prestazioak –gizarte-babeserako erregimen publikoetan ezarritakoak– kobratzea: a) baliaezintasun handiko osagarria; b) % 75eko edo hortik gorako desgaitasun-gradua duen 18 urtez gorako ardurapeko seme edo alaba bakoitzarengatiko esleipen ekonomikoaren gehigarria; c) hirugarren pertsonak kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioa behar izateagatiko gehigarria.</li> </ol>	
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	Mendetasun-egoeran dauden pertsonak.
	<i>Adina</i>	Adin-mugarik gabe.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<p><b>Arreta emandako pertsonari aplikatzeko baldintzak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Eskaera aurkezten den egunean, prestazioa eskatzen den Foru Aldundiari dagokion Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta egotea eta bertan erroldatuta egoten jarraitzea prestazioa jasotzen den denbora guztian, Lurralde Historiko desberdinetan bizi diren ahaideen etxeetan arreta txandakatzen denean salbu.</li> <li>Mendetasun-egoeraren aitopene-eskaera egin baino lehen familia-ingurunean zaintzak jaso izana.</li> <li>Zaintza egokiak emateko bizigarritasun- eta irisgarritasun-egoera egokietan dagoen etxebizitza bat edukitzea.</li> <li>Administrazio publiko eskudunei mendetasun-egoeran dagoen pertsonaren etxebizitzan sartzeko erraztasunak ematea, baldintzak betetzen direla edo zirkunstantziak aldatu direla egiaztatzeko.</li> </ol> <p><b>Zaintzaileari aplikatzeko baldintzak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Adin nagusikoa izatea.</li> <li>Estatu-lurraldean legez bizitzea.</li> <li>Mendeko pertsonaren eguneroko bizitzako jarduerak egiteko arreta-, zaintza- eta laguntza-eginkizunak bere kabuz betetzeko gaitasun fisikoa, mentala eta intelektuala daukala egiaztatzea.</li> <li>Onuradunari arreta emateko nahikoa dedikazio-denbora izatea.</li> <li>Zaintzak ohiko etxebizitzan ematea.</li> <li>Mendeko pertsonari egokitzen zaizkion arreta eta zaintza motak –arreta pertsonalizatuko planean zehaztutakoak– eskaintzea.</li> <li>Gizarte-zerbitzuek zaintzak ematearen alorrean agindutako laguntza- eta prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko prest egotea.</li> <li>Gainbegiratze-baliabideak, edo hala badagokio, etxer etxeko laguntza-zerbitzuak edota eguneko zerbitzuak edo zentroak emandako jarraibideak, irizpideak edo gomendioak betetzea.</li> <li>Mendetasun-egoeran dagoen pertsonaren arreta eta zaintzarako beharrezkoak diren konpromisoak bere gain hartzea.</li> </ol>	

**Baldintza komunak:**

- a) Mendeko pertsonaren eta zaintzailearen artean ahaidetasun-lotura egotea: ezkontidea, izatezko bikotea edota hirugarren mailara arteko odol-ahaidetasunezko, ezkontza-ahaidetasunezko edota adopzioagatiko ahaideak izatea.
  - b) Bizikidetzat-lotura egotea.
  - c) Helbide berean erroldatuta egotea.
  - d) Ahaidetasun-baldintzak salbuetsita geratu ahal izango dira zaintza horiek erlijiosoen bere komunitateko pertsonen ematen badizkiete, eta bizikidetzat luzeko eta familia-tratuko beste kasu batzuetan.
  - e) Mendetasun-egoeran dagoen pertsona bizi den ingurunean baliabide publiko edo pribatuak urriak badira (egiaztatutako urritasuna) edota despopulazioa badago, eta zirkunstantzia horiek, geografia-zirkunstantziak edota beste motaren batekoek bestelako laguntza-modalitateak galarazi edo oztopatzen badituzte, ahaidetasun- eta bizikidetzat-betebeharrak salbuetsita geratuko dira. Horrelako kasuetan, mendeko pertsonarekin ahaidetasun-loturarik ez duten eta harekin bizi ez diren zaintzaile ez-profesionalek zaindutako mendeko pertsonen ere eman ahal izango zaie prestazioa, betiere udalerrin berean edo alboko udalerriren batean bizi badira, eta baita aurretiko urtebeteko denbora-tartean bertan bizi ere.
- Aurreko paragrafoak aipatzen duen ingurunea, gainera, landa-ingurunezkat jo beharko da I. mailako mendetasun-egoeran daudenentzat.

**Berreskuratu ezin diren laguntza-produktuak eskuratzeko laguntza ekonomikoa (3.3.1)**

<b>Helburuak</b>	<p>Autonomia pertsonaleko mugak dituzten pertsonen laguntzeko produktu berreskuraezinak erostea, eta hala badagokio, instalatzea erraztea, pertsona horiek autonomiaz moldatzeko dituzten aukerak ahalik eta gehien faboratzeko eta/edo beste pertsonaren batek eguneroko oinarritzko jarduerak gauzatzen emandako laguntza faboratzeko.</p> <p>Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 17.2.a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, berreskuratu ezin direnak izango dira beren ezaugarriak direla medio besterenezinak diren laguntzeko produktuak, eta, hortaz, erabiltzaile bakar batentzat onuragarriak direnak edo, salbuespenez, aldi berean hainbat pertsonarentzat onuragarriak direnak.</p>	
<b>Prestazioaren ezaugarriak eta hura jasotzeko baldintzak</b>	<p>Ordainketa bakarrekoa da.</p> <p>Eskatzaileak xede berbererako lortutako bestelako prestazio ekonomikoekin edo laguntzekin bateragarria da, betiere jasotako prestazio ekonomikoen eta laguntzen guztizko zenbatekoak ez badu gainditzen eskuratutako gailuaren guztizko kostua. Eta beste edozein zerbitzuekin bateragarria da.</p>	
<b>Zenbatekoa</b>	Gehieneko zenbatekoa Foru Aldundiek finkatzen dute laguntza-produktu mota bakoitzerako.	
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	<p>Mendetasun-egoeran dauden pertsonak. Eta % 33ko edo hortik gorako graduako desgaitasunen bat duten pertsonak.</p>
	<i>Adina</i>	Adin-mugarik gabe.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<p>a) Eskaera-dataren aurreko 12 hilabeteetan jarraian EAEko edozein udalerritan erroldatuta egotea.</p> <p>b) Eskatutako laguntza-produktua behar duela aitortuta edukitzea, Laguntza Teknikoak Emateko eta Ingurune Fisikora Egokitzeko Zerbitzuen (2.7.2.2) balioespen-txostenaren bitartez eskatua.</p> <p>c) Mota bereko laguntza-produkturen bat erosteko prestazio ekonomikorik edo laguntzarik ez jaso izana eskaeraren aurreko 6 urteetan, betiere dagokion txosten teknikoaren bitartez behar bezala justifikatutako salbuespenezko kausaren bat ez bazegoen.</p> <p>d) Laguntza-produktuak eskuratzeko ezarritako gehieneko muga baino banako gaitasun ekonomiko txikiagoa izatea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen finantzaketan ordaintzera behartuta dauden pertsonen partaidetza ekonomikorako irizpide orokorrak erregulatzeko araudian horri dagokionez zehaztutako moduan.</p>	



**Ohiko etxebizitzan eta ibilgailu partikularretan egokitzapenak egiteko laguntza ekonomikoa (3.3.2)**

<b>Helburuak</b>	<p>Autonomia pertsonaleko mugak dituzten pertsonen ohiko etxebizitzan eta/edo ibilgailu partikularretan egokitzapenak egitea erraztea, pertsona horien irisgarritasuna hobetzeko, pertsona horiek autonomiaz moldatzeko dituzten aukerak ahalik eta gehien faboratzeko eta beste pertsonaren batek eguneroko oinarritzko jarduerak gauzatzen emandako laguntza faboratzeko.</p> <p>Etxebizitzan egindako egokitzapenen kasuan, ohiko etxebizitza baino ez dute hartuko eraginpean, etxebizitzaren barnean nahiz etxebizitza dagoen eraikineko elementu komunetan. Egokitzapen-obra egiturazko egokitzapenentarako obrak izan daitezke, edo bestela, laguntzeko produktuak instalatzeko obra osagarriak.</p> <p>Ibilgailuan egindako egokitzapenen kasuan, ibilgailu partikularra baino ez dute hartuko eraginpean, onuradunarena nahiz familiako norbaitena.</p>				
<b>Prestazioaren ezaugarriak eta hura jasotzeko baldintzak</b>	<p>Ordainketa bakarrekota da.</p> <p>Eskatzaileak xede berbererako lortutako bestelako prestazio ekonomikoekin edo laguntzekin bateragarria da, betiere jasotako prestazio ekonomikoen eta laguntzen guztizko zenbatekoak ez badu gainditzen egokitzapenaren guztizko kostua.</p> <p>Etxebizitzan egokitzapenen bat egiteko prestazio ekonomikoaren kasuan, desgaitasunen bat duten pertsonentzat gordetako etxebizitza gisa kalifikatutako etxebizitzak baliatzearekin (lehen okupazioan) bateraezina da.</p>				
<b>Zenbatekoa</b>	Gehieneko zenbatekoa Foru Aldundiek finkatzen dute egokitzapen mota bakoitzerako.				
<b>Hartzaileak</b>	<table border="1"> <tr> <td data-bbox="323 999 435 1055"><i>Egoera</i></td> <td data-bbox="443 999 1461 1055">Mendetasun-egoeran dauden pertsonak eta % 33ko edo hortik gorako graduako desgaitasunen bat duten pertsonak.</td> </tr> <tr> <td data-bbox="323 1061 435 1093"><i>Adina</i></td> <td data-bbox="443 1061 1461 1093">Adin-mugarik gabe.</td> </tr> </table>	<i>Egoera</i>	Mendetasun-egoeran dauden pertsonak eta % 33ko edo hortik gorako graduako desgaitasunen bat duten pertsonak.	<i>Adina</i>	Adin-mugarik gabe.
<i>Egoera</i>	Mendetasun-egoeran dauden pertsonak eta % 33ko edo hortik gorako graduako desgaitasunen bat duten pertsonak.				
<i>Adina</i>	Adin-mugarik gabe.				
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<p>a) Eskaera-dataren aurreko 12 hilabeteetan jarraian EAeko edozein udalerritan erroldatuta egotea.</p> <p>b) Eskatutako egokitzapena behar duela aitortuta edukitzea, Laguntza Teknikoak Emateko eta Ingurune Fisikora Egokitzeko Zerbitzuaren (2.7.2.2) balioespen-txostenaren bitartez eskatua.</p> <p>c) Indarreko araudian markatutako irisgarritasun-irizpide guztiak betetzen dituen egokitzapen-proiektua aurkeztea, Foru Aldundiak aurretiaz onetsitako ezintasun nabarmeneko kasuetan izan ezik.</p> <p>d) Mota bereko egokitzapenen bat egiteko prestazio ekonomikorik ez jaso izana eskaeraren aurreko 10 urteetan, betiere dagokion txosten teknikoaren bitartez behar bezala justifikatutako salbuespenezko kausaren bat ez bazegoen.</p> <p>e) Egokitzapen mota desberdinak eskuratzeko ezarritako gehieneko muga baino banako gaitasun ekonomiko txikiagoa izatea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen finantzaketan ordaintzera behartuta dauden pertsonen partaidetza ekonomikorako irizpide orokorrak erregulatzeko araudian horri dagokionez zehaztutako moduan.</p>				

## C) Eusko Jaurjaritzaren eskumeneko zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak

## Telelaguntza-zerbitzua (1.6)

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Telelaguntza-zerbitzuak telealarmako komunikazio-baliabidea barne hartzen du, telefono-linearen bitartez eta ekipamendu informatiko espezifiko bati esker erabiltzaileei etengabeko arreta-zerbitzu batekin berehala harremanetan jartzeko aukera emango diena (24 ordu egunean eta urteko egun guztietan arreta eskaintzen du) eta, beharrezkoa izanez gero, behar den arreta mota berehala jasotzeko aukera erraztuko duena, autonomia- eta segurtasun-sentimendua indartzen laguntzeko.</p> <p>Sistema horien bidez, arreta-taldearen eta premia-egoeran dagoen pertsonaren arteko harremana aktiba daiteke, bai azken horrek eskatuta, bai zerbitzuak berak eskatuta, baldin eta arrisku-egoera bat gertatzen ari dela pentsatzeko arrazoiak badaude.</p> <p>Bere jardunak antolatzeko, honako zerbitzu hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– <i>harreman-zerbitzua</i>, instalatutako baliabideen bitartez aktibatuko dena eta larrialdietarako sistemaren alertari eragiteko gizarte-premiaren edo larrialdiaren izaera zehaztuko duena.</li> <li>– <i>datuak erregistratzeko zerbitzua</i>, pertsona identifikatzeko eta pertsonaren aurrekari soziosanitarioak ezagutzeko aukera emango duena.</li> <li>– <i>arreta pertsonaleko zerbitzua</i>, beharrezkoa den kasuetan premia gertatu den tokian bertaratuko dena eta pertsonari zuzeneko arreta bermatuko diona.</li> </ul> <p>Honako helburu hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Autonomia mugatua dutelako edo gizartean isolatuta geratzeko arrisku-egoeran daudelako bizilekuan zein bizilekutik kanpo premia-zerbitzu arreta eta/edo ohiko zein etengabeko gainbegiratzea behar duten pertsonak ohiko familia- eta gizarte-ingurunean geratzeko eta integratzeko aukera erraztea, egoitza-zerbitzuetara jo beharrik izan ez dezaten.</li> <li>– Laguntza-sareekiko etengabeko harremana eskaintzea, bizi-kalitatea hobetzeko eta bizilekuan autonomia- eta segurtasun-sentimendua indartzeko.</li> <li>– Gizarte-premiako edo larrialdiko egoeretan berehalako esku-hartzea eskaintzea.</li> <li>– Erabiltzaileak zaintzeko ardura bere gain hartzen duen gizarte- eta familia-arloko babes-sareari euskarria eskaintzea, beste eginkizun batzuk egiteko autonomia handiagoa izan dezaten ahalbidetuz, eta gainera beren ahaideak zailtasun-egoeraren bat jasaten badu arreta eskainiko zaiola jakitun izanik.</li> </ul> <p>Zerbitzuak premia-egoera Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean gertatzen denean esku hartuko du.</p>	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuak</i>	<p>Informazioa (Baliabide teknologikoen erabilerrari eta ezaugarriei buruzkoa).</p> <p>Jarraipen-balioespina.</p> <p>Orientabidea.</p> <p>Arlo psikosozialeko esku-hartzea, hala badagokio (emozioei eustea).</p> <p>Laguntza teknikoak (laguntza-produktuak) ahalbidetzea: telelaguntza-sistema erabiltzeko instalazioa ematea.</p>
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	<p>a) Mendetasun-arriskuan edo -egoeran dauden pertsonak.</p> <p>b) Bakarrik bizi diren adineko autonomoak.</p> <p>c) Gizarte-isolamenduko arrisku-egoeran dauden eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren arabera telelaguntza-zerbitzuak erantzuteko moduko premiak dituzten pertsonak.</p>
	<i>Adina</i>	<p>a) Adin-mugarik gabe mendetasuna aitortua duten pertsonentzat eta gizarte-isolamenduko arriskuan dauden eta oinarrizko gizarte-zerbitzuaren arabera telelaguntza-zerbitzuaren bidez erantzuteko moduko premiak dituzten pertsonentzat.</p> <p>b) 65 urte edo gehiago izatea, mendetasun-arriskuan dauden pertsonen kasuan.</p> <p>c) 75 urte edo gehiago izatea, bakarrik bizi diren pertsona autonomoen kasuan.</p>
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	Ez dago baldintza gehigarririk.
	<i>Bestelako baldintzak</i>	<p>a) Interesdunak edo, hala badagokio, interesdunarekin bizi den pertsonak, ahaideak edo ohiko zaintzaileak telelaguntza-ekipoa behar bezala erabiltzeko gaitasuna izatea.</p> <p>b) Bizilekuan telefono-linea bat edukitzea, horren ezaugarriek telelaguntza-ekipoaren eta arreta-zentroaren artean elkarreragitea ahalbidetu behar dutela aintzat hartuta.</p>
<b>Baterako ordainketa</b>	Baterako ordainketari lotutako zerbitzua.	

**Babesgabetasun-egoeran dauden haur eta nerabeentzako informazio-zerbitzua (2.7.1.1)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Haurrei eta nerabeei eskainitako orientabideko, aholkularitzako eta informazioko zerbitzua da, telefono bidez edo modu telematikoan eskaintzen dena, anonimoa eta isilpekoa, babesgabetasun-egoerekin lotutako edozein zalantzaren edo arazoren gainean hitz egin nahi duten, informazioa eta/edo aholkularitza eta/edo orientabidea jaso nahi duten haur eta nerabe guztientzat.</p> <p>Egon litezkeen haurren edo nerabeen babesgabetasun-egoerei buruzko informazioa jaso nahi duten eta/edo kasu horietan gauzatu beharreko jardunei buruzko orientabidea behar duten heldu guztiei ere arreta egiten zaie. Zerbitzu horretan babesgabetasun- edo babesgabezia-arriskua egon litekeela atzematen diren kasuak dagozkion agenteei jakinaraztea biltzen da, agente horiek balioespena egin dezaten.</p> <p>Zerbitzu hori diziplina anitzeko talde espezializatu batek ematen du urteko 365 egunetan. Eta honako helburu hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Haurrei eta nerabeei entzutea behar dutenean.</li> <li>b) Informazio egokia, argia eta erabilgarria ematea.</li> <li>c) Kontsulta egin duen pertsona baliabide egokienetara bideratzea pertsona horrek daukan premiari erantzuteko.</li> <li>d) Egon litezkeen babesgabetasun-egoerak atzematea.</li> <li>e) Haurrei eta nerabeei orientabidea eta aholkuak ematea eta lagun egitea.</li> </ul>	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	<p>Informazioa.</p> <p>Orientatzea, eta hala badagokio, bideratzea.</p> <p>Premien hasierako balioespena eta jarraipen-balioespena.</p> <p>Arlo psikosozialeko esku-hartzea: emozioei eustea.</p>
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>a) Babesgabetasun-egoerekin lotutako arazoak edo egoerak direla-eta informazioa, orientabidea eta aholkularitza jasotzeko premia duten haurrak eta nerabeak.</li> <li>b) Haurren edo nerabeen babesgabetasun-egoeren berri dutela uste duten eta/edo jarduteko moduari buruzko orientabidea behar duten helduak.</li> </ul>
	<i>Adina</i>	Adin-mugarik gabe.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	Ez da inolako administrazio-baldintzarik eskatuko preskripzio teknikoaz gain. Zuzenean lortzen den zerbitzua da.
	<i>Premiazkoak</i>	Ez dago baldintza osagarririk.

**Etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzako informazio- eta arreta-zerbitzua (2.7.1.2)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	Telefono bidez edo modu telematikoan urruneko arreta emateko zerbitzua da, genero-indarkeriako egoerak pairatzen dituzten eta egoera horien ondorioz biktimizazio- edo kalteberatasun-egoeran dauden emakumeei informazioa, orientabidea eta laguntza psikologikoa ematen die.	
	Isilpeko zerbitzua da eta modu anonimoz deitu daiteke bertara. Egunean 24 orduz dago jardunean, urteko 365 egunetan. Eta honako eginkizun hauek ditu:	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	Informazioa.
		Orientatzea, eta hala badagokio, bideratzea.
		Premien hasierako balioespena eta jarraipen-balioespena.
		Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: arlo psikosozialeko esku-hartzea (entzute aktiboa eta lagun egitea; emozioei eustea).
		Arreta soziojuridikoa: informazioa.
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	a) Etxeko edo sexu-arrazaingatiko indarkeriaren biktima izan diren emakumeak. b) Egoera horiei buruzko edo kasu horietan bidezkoak diren jardunei buruzko informazioa lortu nahi izango luketen pertsona guztiak.
	<i>Adina</i>	Adin-mugarik gabe.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	Ez da inolako administrazio-baldintzarik eskatuko preskripzio teknikoaz gain. Zuzenean lortzen den zerbitzua da.
	<i>Premiazkoak</i>	Ez dago baldintza osagarririk.

**Deribazio judizialaren bidezko Familia Elkargunea – FE (2.7.3.2)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Adingabeen eta horien bizitza-unitatea osatu duten pertsonen (aita eta/edo ama, anai-arrebak, eta abar) eta beste ahaide batzuen (berezi aitona-amonak) eta tutoreen edo zaintzaileen eta beste hurbileko batzuen arteko harremanak bermatzera eta ahalbidetzera zuzendutako aldi baterako zerbitzua da, horien arteko elkargunea ahalbidetuz, erabateko segurtasun- eta ongizate-bermeekin, gune neutral eta egoki batean.</p> <p>Zerbitzu hori egitura independente batean edo beste gizarte-zerbitzu batzuekin partekatutako egitura batean kokatu ahal izango da; nolahi ere, kasu guztietan behar diren neurriak hartu beharko dira irisgarritasun- eta pribatutasun-baldintzak bermatzeko elkargunean sartzean. Zerbitzu horrek diziplina anitzeko talde tekniko baten laguntza du; talde hori zerbitzuarena soilik izan daiteke edo beste gizarte-zerbitzu batzuekin partekatu ahal izango da.</p> <p>Bisitak egiteko hainbat <i>formula</i> eskaini ditzake:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– <i>Tutoretzapeko bisitak Familia Elkargunean</i>, Familia Elkargunean egingo direnak zerbitzuko langileen presentziazko eta etengabeko gainbegiratzea izanik.</li> <li>– <i>Gainbegiratzerik gabeko bisitak Familia Elkargunean</i>, Familia Elkargunean gauzatuko direnak zerbitzuko langileen zuzeneko gainbegiratzerik edo etengabeko presentziarik gabe.</li> <li>– <i>Familia Elkargunetik kanpo egindako tutoretzako bisitak</i>, puntualki egingo direnak, eta ahal dela, gainbegiratzerik gabeko bisitak egin aurreko egokitzeko tarteko fasea izango direnak.</li> <li>– <i>Elkartrukeak</i>, Familia Elkarguneak haurrak eta nerabeak hartu eta jasotzen direla gainbegiratzeko bakarrik erabiliko direnak; bisita zerbitzutik kanpo egingo da.</li> <li>– <i>Lagun egiteak</i>, adingabeak profesionalak lagun egingo diote Familia Elkargunetik adingabearen aita edo ama, tutorea edo zaintzailea, beste ahaide batzuk edo beste hurbileko batzuk dauden espetxera, ospitalera edo egoitza-establezimendura, betiere horien guztien arteko harremana baimenduta badago eta pertsona horiek ezin badira Familia Elkargunera bertaratu. Aurrekoa bazter utzi gabe, lagun egiteak beste gizarte-zerbitzu batzuetako profesionalak ere egin ditzakete, betiere profesional horiek adingabeak zaintzeko eta babesteko eremuan jarduten badute.</li> </ul> <p>Honako helburu hauek ditu:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>a) Adingabeen segurtasuna eta ongizatea bermatzea bisita-erregimenak irauten duen bitartean.</li> <li>b) Haurren eta/edo nerabeen eta horien aitaren, amaren, amonen, aitonen eta bestelako ahaideen edo beste hurbileko batzuen arteko harremanei eustea.</li> <li>c) Guraso eta seme-alaben arteko harremanak hobetzea.</li> <li>d) Hazteko eta/edo harremanetarako trebetasunak eskura daitezten ahalbidetzea.</li> <li>e) Akordioetara iristea haurren eta nerabeen garapenari eta ongizateari dagokionez.</li> </ol>	
<b>Eskaintzen dituen prestazioak</b>	<p><i>Gizarte-zerbitzuenak</i></p> <p><i>Osagarriak</i></p>	<p>Informazioa.</p> <p>Jarraipen-balioespena.</p> <p>Gizartearen eta hezkuntzaren arloko esku-hartzea.</p> <p>Gainbegiratzea, hala badagokio.</p> <p>Segurtasuna (zaintza).</p>
<b>Hartzaileak</b>	<p><i>Egoera</i></p> <p><i>Adina</i></p>	<p>a) Bisita-eskubidea bermatuta ez daukaten edo segurtasun- eta ongizate-baldintzei dagokienez bermatuta ez daukaten adingabeak.</p> <p>b) Bisita-eskubideari lotutako helduak.</p> <p>a) 18 urtetik beherako pertsonak.</p> <p>b) 18 urte edo gehiago dituzten pertsonak, bisita-eskubideari lotuta daudenak.</p>
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<p><i>Administraziokoak</i></p> <p><i>Premiazkoak</i></p>	<p>Adingabea edo, hala badagokio, zaintza edo tutoretza gauzatzen duen pertsona Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan errolatuta egotea eta benetan bizi izatea zerbitzua eskuratzen denean, eta ez da alde aurreko errolatzealdirik eskatuko.</p> <p>Familia Elkargunea erabili behar dela agintzen duen ebazpen judiziala egotea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Adingabea bikotearen hausturaren gatazkak eta bisita-erregimena ez betetzearekin lotutako arazo larriak dituen familiako kide izatea.</li> <li>– Edo, bikotearen hausturaren gatazkak izatea eta etxeko tratu txarren egoeretan biktima urruntzeko eta babesteko neurri bat indarrean edo izapidetzen hasita egotea.</li> </ul>

**Familia-bitartekaritzako zerbitzu integrala (2.7.3.3)**

<b>Definizioa eta helburua</b>	<p>Familia-bitartekaritza borondatezko prozedura da. Prozedura horretan profesional batek edo gehiagok laguntza eta orientabidea jartzen dute gatazkan dauden alderdien eskura, haien familia-gatazka konpontzeko irtenbide onargarriak aurkitzeko elkarriketa-prozedurari dagokionez. Profesional horiek bitartekaritzan prestakuntza izango dute, inpartzialak izango dira eta ez dute erabakiak hartzeko ahalmenik izango. Esparru horretan, honako hau hartzen da familia-bitartekaritza integraltzat: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gainerako zerbitzuekiko eta gizarte-babesera bideratutako beste sistema publiko batzuekiko jardun koordinatua familia- edo bizikidetzaren unitate bateko kideen arteko gatazkei erantzuteko beharrezkoak diren eremu guztietan.</p> <p>Honako hauek izan daitezke familia-bitartekaritzako zerbitzu integralak arreta egindako gatazkek:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Bikotearen hausturaren ondorioz sortutako gatazkek, honako hauekin lotuta daudenak: seme-alaben zaintza eta babespea esleitzea; babespe partekatua esparruan adostu beharreko alderdiak zehaztea; babespea ez duen gurasoarentzako edo beste ahaide batzuentzako bizikidetzaren denborak; mantenu-pentsioak; etxebizitzaren erabileraren esleipena; konpentsaziozko pensioa; eta bitartekaritzaren bitartez landu daitezkeen hezkuntza- nahiz bizikidetzaren jarraibideekin eta seme-alabei arreta egiteko jarraibideekin eta abarrekin lotutako edozein alderdi.</li> <li>– Bikotearen hausturarekin lotuta ez dauden familia-gatazkek, honako hauekin lotuta daudenak: adin nagusiko seme-alabekin izandako bizikidetzaren arazoak; mendetasun-arriskuan edo -egoeran dauden adin nagusikoei ahaideek arreta egitea eta zaintzea; belaunaldien arteko gatazkek, bizikidetzaren arlokoak izan edo ez; bitartekaritzaren bitartez landu daitezkeen beste familia-egoera batzuk.</li> </ul> <p>Familia-bitartekaritzatik kanpo geratzen dira bikotekidearen, seme-alaben edo familia-unitateko edozein kideren gaineko indarkeria edo tratu txarrak dauden kasuak, edo ez-zilegi penaltzat har daitezkeen beste edozein jardun.</p> <p>Honako helburu hauek ditu:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>a) Gune neutrala eskaintzea, familia-gatazkan protagonista diren pertsonen arteko elkarriketa ahalbidetuko duena.</li> <li>b) Familia-gatazkan sartuta dauden pertsonen ardura ematea beren jardunen ondorioei buruzko kontrola izan dezaten eta gatazkan protagonista diren aldetik konpromiso handiagoa har dezaten, erabakiak hartzeko gaitasuna eta erantzukizuna hirugarren pertsonen esku utzi ordez.</li> <li>c) Haustura-prozesuetan adostutako erabakiak hartzen laguntzea eta baterako gurasotasuna sustatzea.</li> <li>d) Haustura onartzeko prozesua eta egoera berrira egokitzeko aukera ahalbidetzea.</li> </ol>	
<b>Prestazioak</b>	<i>Gizarte-zerbitzuak</i>	Bitartekotza. Jarraipen-balioespena.
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	Familia- edo bizikidetzaren gatazkan dauden pertsonak.
	<i>Adina</i>	Adin-mugarik gabe.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<i>Administraziokoak</i>	<ol style="list-style-type: none"> <li>a) Familia-gatazkan sartuta dauden pertsonen artean gutxienez bat Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta egotea.</li> <li>b) Gatazkan sartuta dauden pertsonen artean ezkontza-lotura edo horren antzeko loturaren bat, edo odol-ahaidetasunezko laugarren mailarainoko familia-lotura bat, adopzioa edo ezkontza-ahaidetasuna izatea.</li> </ol>
	<i>Premiazkoak</i>	<ol style="list-style-type: none"> <li>a) Zuzenbide pribatuko arlo jakin batzuei buruzko familia- edo bizikidetzaren gatazka izatea. Arlo horiei dagokienez, indarreko antolamendu juridikoak prestasun librea, edo, hala badagokio, judizialki homologatuak izateko aukera onartu behar die interesdunei.</li> <li>b) Erabakiak hartzea ahalbidetuko duen eta bide judizialera jo behar izatea saihestuko duen esku-hartze profesionala eskatzea.</li> </ol>

**Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako ordainketa bakarreko prestazio ekonomikoa (3.1.2)**

<b>Helburuak</b>	Genero-indarkeriaren biktimak izanik lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten emakumeei zuzenduta daude eta diru-sarreraren falta aldi baterako arintzeko jomuga dute, denbora-tarte horretan pertsonak bere egoera egonkortzea eta berari nahiz bere kargura dauden pertsonen dagozkien pentsioak edota prestazio ekonomikoak izapidetzea lortzeko.				
<b>Prestazioaren ezaugarriak eta hura jasotzeko baldintzak</b>	<p>Ordainketa bakarrekoa da.</p> <p>Administrazio publikoek edo haien edozein erakunde edo sozietatek nahiz edozein entitate pribatuk helburu horretarako ezarritako beste edozein laguntza jasotzearekin bateraezina da.</p> <p>Indarkeriazko Delituen eta Sexu Askatasunaren kontrako Delituen Biktimentzako Laguntzei eta Sorospenei buruzko abenduaren 11ko 35/1995 Legean aurreikusitako laguntzekin bateragarria da, eta baita diru-sarreraren maila bermatzeko bestelako prestazioekin ere, betiere kontuan hartuz horiek diru-sarrera gisa zenbatuko direla, premia-baldintzetan lortzeko baldintza gisa eskatutako errenta-maila finkatzeko.</p>				
<b>Zenbatekoa</b>	<p>Langabezia-subsidioaren zenbatekoa izango da haren erreferentea eta, oro har, subsidioko 6 hilabeteren baliokidea izango da. Modu espezifikoan:</p> <p>a) Biktimak % 33ko edo hortik gorako graduako desgaitasunen bat ofizialki aitortuta duen kasuan, subsidioko 12 hilabeteren baliokidea izango da prestazioaren zenbatekoa.</p> <p>b) Biktimak berekin bizi diren pertsonaren bat bere kargu badu, prestazioaren zenbatekoa subsidioko 18 hilabeteren baliokide izatera iritsi ahal izango da.</p> <p>c) Familia-erantzukizunak izanik, biktima edo bere kargura egonik berarekin bizi diren pertsonetako batek % 33ko edo hortik gorako desgaitasunen bat ofizialki aitortuta badu, prestazioaren zenbatekoa subsidioko 24 hilabeteren baliokidea izatera iritsi ahal izango da.</p>				
<b>Hartzaileak</b>	<table border="1"> <tr> <td data-bbox="323 1059 443 1081"><i>Egoera</i></td> <td data-bbox="451 1059 1461 1081">Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak.</td> </tr> <tr> <td data-bbox="323 1093 443 1115"><i>Adina</i></td> <td data-bbox="451 1093 1461 1149"> <p>a) 18 urte edo gehiago dituzten emakumeak.</p> <p>b) Emantzipatutako emakume adingabeak.</p> </td> </tr> </table>	<i>Egoera</i>	Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak.	<i>Adina</i>	<p>a) 18 urte edo gehiago dituzten emakumeak.</p> <p>b) Emantzipatutako emakume adingabeak.</p>
<i>Egoera</i>	Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak.				
<i>Adina</i>	<p>a) 18 urte edo gehiago dituzten emakumeak.</p> <p>b) Emantzipatutako emakume adingabeak.</p>				
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<p>a) Genero-indarkeriaren biktima izatea ziurtatzea, honako bitartekoren bat baliatuta:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Genero-indarkeriako gertakariak eragindako kondena-epaia, biktimaren aldeko babes-neurriak hitzartzen duena, babes-neurriak indarrean jarri diren egunaren eta laguntza eskatu den egunaren artean bi urte baino gehiago ez badira igaro.</li> <li>– Laguntza eskatu den egunean indarrean dagoen babes-agindua.</li> <li>– Salbuespen gisa, Fiskaltzaren txostena, salatzailea genero-indarkeriaren biktima delako seinaleak daudela jasotzen duena.</li> </ul> <p>b) Lana lortzeko zailtasun bereziak izatea eta zailtasun horiek Enplegu Zerbitzu Publikoak emandako Txostenaren bitartez egiaztatuta edukitzea.</p> <p>c) Indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75etik gorako errentarik ez izatea (hilabeteko zenbaketan), bi aparteko ordainsarien zati proportzionala kontuan izan gabe.</p> <p>d) Laguntza hori aurretik jaso ez izana.</p> <p>e) Onuraduna eta bere kargura dauden pertsonak elkarrekin bizi direla egiaztatzea, hala dagokionean.</p>				



**D) Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa****Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa – ZLPE (3.4.1)**

<b>Eskumena</b>	Udalena, aldundiena edo Eusko Jaurlaritzarena, lotzen den zerbitzuaren eskumena nork duen kontuan izanik.	
<b>Helburuak</b>	Prestazio honen helburua honako hau da: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarik kanpo sistema horren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko prestazio edo zerbitzu baten antzeko ezaugarriak dituen eta erabiltzaileak horretarako eskubidea duen baina sistema horretan bildutako zerbitzuen esparruan une jakin batean, adibidez zerbitzu hori behar adina ezin denean estali, lortzeko aukera bermatu ezin zaion prestazioa edo zerbitzua lor dezan erraztea. Aurrekoa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren plangintzan aurreikusitakoaren arabera beren hornidura garatzen ari den zerbitzuei bakarrik aplikatuko zaie.	
<b>Prestazioen ezaugarriak eta haiek jasotzeko baldintzak</b>	<p>a) Mendetasun-egoeran dagoen pertsonaren bati arreta emateko bada, Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren barruan kokatuta dago. Beste prestazio ekonomiko edo zerbitzu batzuekin bateragarria edo bateraezina den erabakitzeko, bateragarritasun- eta bateraezintasun-araubidean lortu nahi duen zerbitzuari dagokionez ezarrita dagoena izango da kontuan.</p> <p>b) Aldian behingoa da.</p> <p>c) Aldi baterakoa eta salbuespen modukoa da, eta erabiltzailearen eskubidea aitortzen den unetik Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barnean dagokion prestazioa edo zerbitzua efektiboki lortzen duen unera bitarteko aldirako bakarrik ematen da, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 16.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.</p> <p>d) Prestazioa pertsonak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren txertatutako zerbitzuren bat lortzen duenean iraungitzen da.</p>	
<b>Zenbatekoa</b>	<p>Gehieneko zenbatekoa urtero finkatzen dute administrazio eskudunek.</p> <p>Mendetasun-egoeran dauden pertsonentzat denean, Estatuak ekitaldi bakoitzerako ezarritakoa hartuko du zenbateko horrek erreferentziazat.</p> <p>Gehieneko zenbateko horiek murriztu egiten dira honako hauek kontuan izanik:</p> <p>a) Zerbitzuaren kostua, aipatutako gehieneko zenbateko-mugarekin.</p> <p>b) Eskatzailearen banako gaitasun ekonomikoa, erabiltzaileek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen finantzaketan ordaintzera behartuta dauden pertsonen partaidetza ekonomikorako irizpide orokorrak erregulatzeko araudian horri dagokionez zehaztutako moduan.</p> <p>c) Arreta emateko gizarte-zerbitzu bat edo bestelakoren bat aldi berean erabiltzea, telelaguntza-zerbitzuaren kasuan izan ezik; telelaguntza-zerbitzua prestazio ekonomikoarekin batera egin daiteke, horren zenbatekoan eraginik izan gabe.</p> <p>d) Antzeko izaera eta helburua duten bestelako prestazioak –gizarte-babeserako erregimen publikoetan ezarritakoak– kobratzea: a) baliaezintasun handiko osagarria; b) % 75eko edo hortik gorako desgaitasun-gradua duen 18 urtez gorako ardurapeko seme edo alaba bakoitzarengatiko esleipen ekonomikoaren gehigarria; c) hirugarren pertsonak kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioa behar izateagatiko gehigarria.</p>	
<b>Hartzaileak</b>	<i>Egoera</i>	Kasu bakoitzean prestazio ekonomikoa lotuta dagoen zerbitzuari dagozkion egoerak aplikatuko dira.
	<i>Adina</i>	Kasu bakoitzean prestazio ekonomikoa lotuta dagoen zerbitzuari dagozkion adin-mugak aplikatuko dira.
<b>Lortzeko baldintzak</b>	<p>a) Prestazioari lotutako zerbitzuak eskuratzeko baldintza propioak betetzea.</p> <p>b) Eskaera aurkezten den egunean, prestazioa eskatzen den administrazioari dagokion Lurralde Historikoko udalerriren batean errolatuta egotea eta bertan errolatuta egoten jarraitzea prestazioa jasotzen den denbora guztian, prestazioa lortzen duten pertsonak gizarte-premiazko egoeran daudenean salbu, betiere 1.9.1 fitxan biltzen diren terminoetan.</p> <p>c) Izaera horretako behar bezala baimendutako zerbitzu batean plaza edo zerbitzu pribatua duela egiaztatzea.</p>	

## URRIAREN 6KO 185/2015 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

## GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN BITARTEZ AUTONOMIAREN ALDEKO ETA MENDEKASUNARI ARRETA ESKAINTZEKO SISTEMAREN ZERBITZUAK ETA PRESTAZIOAK LORTZEKO KORRESPONDENTZIEN TAULA

Taulak zehazten du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zer zerbitzu eta prestazio ekonomiko datozen bat Autonomiaren aldeko eta Mendekasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoekin, edota Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zer zerbitzuek eta prestazio ekonomikok ematen duten horiek lortzeko aukera.

Azken horiek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuen bitartez lortu badaitezke, mendekasun-graduaren eta hartzaileei buruzko aurreikuspenen (Dekretu honen I. eranskinaren barnean hartutako zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen fitxetan bilduta daude horiek) arabera zehaztuko da zerbitzua.

	Autonomiaren aldeko eta Mendekasunari Arreta Eskaintzeko Sistema	Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema
Zerbitzuak	Mendekasun-egoerak prebenitzeko eta autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak	
	<i>Gaikuntzako eta terapia okupazionalako zerbitzua.</i>	2.2.1. Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa.
	<i>Arreta goiztiarra emateko zerbitzua.</i>	2.7.4 Arreta goiztiarrerako esku-hartze sozialeko zerbitzua.
	<i>Estimulazio kognitiborako zerbitzua.</i>	1.7. Eguneko arretarako zerbitzuak. 2.2.1. Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa.
	<i>Autonomia funtzionala sustatzeko, mantentzeko eta berreskuratzeko zerbitzua.</i>	1.7. Eguneko arretarako zerbitzuak. 2.2.1. Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa.
	<i>Gaixotasun mentala edo desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako gaikuntza psikosozialeko zerbitzua.</i>	2.2.1. Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa.
	<i>Bizitoki berezietan laguntza pertsonaleko eta zaintzen zerbitzuak.</i>	2.4.2. Desgaituentzako egoitza-zentroak. 2.7.2.1. Bizimodu Independentea Babesteko zerbitzua.
	Telelaguntza-zerbitzua.	1.6. Telelaguntza-zerbitzua.
	Etxez etxeko laguntza-zerbitzua.	1.2. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua.
	Eguneko eta gaueko zentroyen zerbitzua	
	<i>Adinekoentzako eguneko zentroa.</i>	1.7. Eguneko arretarako zerbitzuak.
	<i>65 urte baino gutxiagokoentzako eguneko zentroa.</i>	2.2.1. Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa.
	<i>Arreta espezializatuko eguneko zentroa.</i>	
	<i>Gaueko zentroa.</i>	2.3.1. Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko gaueko zentroa.
	Egoitza-arreta emateko zerbitzua	
<i>Mendekasun-egoeran dauden adinekoentzako egoitza.</i>	1.9. Adinekoentzako ostatu-zerbitzua: – 1.9.3. Tutoretzapeko apartamentuak. – 1.9.4. Etxebizitza komunitarioa. 2.4.1. Adinekoentzako egoitza-zentroak.	
<i>Mendekasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko egoitza, dauden desgaitasun moten arabera.</i>	2.4.2. Desgaituentzako egoitza-zentroak. 2.4.3. Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroak.	
Prestazio ekonomikoak	Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa.	3.4.1. Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa.
	Familia-inguruneke zaintzarako prestazio ekonomikoa.	3.2.1. Familia-inguruneke zainketetarako eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa.
	Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa.	3.1.1. Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa.

## URRIAREN 6KO 185/2015 DEKRETUAREN III. ERANSKINA

## PRESTAZIO TEKNIKOEN DEFINIZIOAK

1.– Informazioa: erabiltzaileei (pertsonek, familiak eta taldeak) gizarteratzea, autonomia eta gizarte-ongizatea erraztu ditzaketen eskubide, zerbitzu eta prestazio ekonomikoei buruz jakin behar duten guztia garaiz eta behar bezala jasotzeko aukera ematen dien prestazioa da. Nork eskaintzen duen:

– Informazio, Balioespen, Diagnostiko eta Orientabide Zerbitzuak (1.1 fitxa), erabiltzaileei beharrezko informazioa emango diena, ezarritako baldintzak betez gero Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoak lortzeko aukera izan dezaten.

– Kolektibo espezifikoei bideratutako bigarren mailako arretarako Informazio eta Orientabide Zerbitzuek (2.7.1.1 eta 2.7.1.2 fitxak), pertsonari informazioa eskainiko diote zer jardun komeniko litzazkiokeen jakinarazteko, eta harentzat egokitzat jotzen diren gizarte-zerbitzuetara edo bestelako zerbitzuetara bideratzeko.

– Gainerako zerbitzuek, dagokion zerbitzuari buruzko informazio espezifikoa eskainiko dutenak, beste prestazio eta zerbitzu batzuei buruzko informazioa ere eman dezaketela aparte utzi gabe.

2.– Premien balioespena. Hiru balioespen mota bereizten dira:

– Premien hasierako balioespena: pertsonen, familien eta taldeen premien eta gaitasunen oinarritzko identifikazioa egiten da ikuspegi integralarekin, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak esku hartu beharko lukeen erabakitzeko, eta, esku-hartzea bidezkoa bada, erabiltzaileak balioespen espezializatu batera bideratzeko eta/edo esku-hartzearen premia egiaztatzen duen diagnostikoa egiteko eta orientabidea emateko. Oinarritzko Gizarte Zerbitzutik egiten da.

– Balioespen espezializatua: balioespen honen barnean mendetasun-egoeraren, desgaitasun-egoeraren, bazterkeria-egoeraren eta babesgabetasun-egoeraren baremazioa sartuko da, edo hala badagokio, mendetasun-arriskuaren, bazterkeria-arriskuaren eta babesgabetasun-arriskuaren egoerak. Mendetasuna, desgaitasuna, bazterkeria eta babesgabetasuna balioesteko eta diagnostikatzeko foru-zerbitzuek egiten dute. Balioztatzen bada balioetsi behar diren egoerak bazterkeria-arriskuko edo babesgabetasun-arriskuko egoerak izan daitezkeela, Udalaren Gizarte Zerbitzuak egin ahal izango du baremazioa.

– Jarraipen-balioespena: Arreta Pertsonalizatuko Planaren aldizkako ebaluazioak sakontasun handiagoarekin ala txikiagoarekin egitea dakar.

3.– Gizarte-diagnostikoa: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren arreta eskatzen duten pertsonak eta familiek dituzten gizarte-premien eta gaitasunen eta haien testuinguruaren deskribapen eta balioespen profesionala da, Arreta Pertsonalizatuko Plan baten esparruan esku-hartze egokia zein den erabakitzeko, betiere diagnostikoaren ondoren plan hori egin behar dela eta jarraipena eskatzen duen esku-hartze bat egin behar dela berresten bada.

Hiru gizarte-diagnostiko mota bereizten dira: a) Hasierakoa, premien hasierako balioespena bezala Oinarritzko Gizarte Zerbitzutik egiten dena eta izaera orokorra duena; b) Espezializatua, behar izanez gero mendetasuna, desgaitasuna, bazterkeria eta babesgabetasuna balioesteko eta diagnostikatzeko foru-zerbitzu sozialek egiten dutena, eta kontingentzia jakin batean oinarritu daiteke.

Gainera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzko 353/2013 Dekretuaren artikuluko 4. eta 5. idatz-zatietan aurreikusitakoaren arabera, udaletako gizarte-zerbitzuek diagnostiko sakoak egingo dituzte, intentsitate handiagoko esku-hartzea egiteko edo bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuetara bideratzeko. Sakonagoak izango diren eta hala badagokie bigarren mailako arretako zerbitzuen kontuan izan beharko dituzten gizarte-diagnostiko horiek, Dekretuak arautzen duen tresnan ezarritako adierazle guztiak aplikatuz egingo dira; hasierako diagnostikoa, aldiz, babes-sistemarekin, bizikidetza pertsonalarekin, familia-bizikidetzarekin, gizarte-bizikidetzarekin eta iraupeneko baliabideekin zerikusia duten adierazle orokorretan oinarrituko da.

4.– Orientabidea: prestazio bat da, eta, horri jarraiki, erabiltzaileek, preskripzio tekniko profesional baten esparruan, hainbat proposamen eta aholku jasotzen dituzte egin beharreko ibilbideen inguruan eta modu autonomoan moldatzeko eta gizarteratzeko premietara ondoen egokitzen diren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen inguruan, egindako diagnostikoarekin edo balioespenaren bat etorritz, hala badagokio. Orientabidearen barnean arreta pertsonalizatuko plan bat landu daiteke, halaber, baldin eta diagnostikoak horrelakorik eskatzen badu, eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 19.1 artikuluekin bat etorritz, esku hartzea eskatuko dutela aurreikusten diren zerbitzuen eta prestazioen multzoa definituko du. Orientabideak beste zerbitzu eta prestazio ekonomiko batzuetara bideratzea hartuko du barnean, baita, hala badagokio, arreta-arloko beste sistema edo politika publikoetako zerbitzu eta prestazioetara ere.

#### 5.– Bitartekaritza.

– Familia-bitartekaritza, borondatezko prozedura da. Prozedura horretan profesional batek edo gehiagok laguntza eta orientabidea jartzen dute gatazkan dauden alderdien eskura, haien familia-gatazka konpontzeko irtenbide onargarriak aurkitzeko elkarriketa-prozedurari dagokionez. Profesional horiek bitartekaritzan prestakuntza izango dute, inpartzialak izango dira eta ez dute erabakiak hartzeko ahalmenik izango.

– Bitartekaritza-Bitartekotza: prozedura horri jarraiki, gizarte-zerbitzuetako profesionalak erabiltzaileari orientabidea ematen diote gizarte-gaitasunak garatzeko eta hurbileko ingurunearekiko (familia, taldea edo komunitatea) elkarrengana hobetzeko egin beharreko urratsen inguruan

6.– Etxeko arreta: prestazio bat da, eta, horren bitartez, erabiltzaileek laguntza partziala edo osoa jasotzen dute eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak egiteko, eta bereziki elikatzearekin, janztearekin eta bizi den etxeko instalazioen mantentze-garbitzarekin zerikusia duten etxeko lanak egiteko, etxearen antolaketa erraztuz, eta, hala badagokio, lan horiek egiteko beharrezko trebetasunak eskuratzeko entrenamendua barne.

7.– Arreta pertsonala: prestazio bat da, eta, horren bitartez, pertsonak laguntza partziala edo osoa jasotzen dute honako jarduera hauek egiteko: a) eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak, erabiltzailearen zaintza pertsonalerako beharrezkoak direnak, eta bereziki, altxatzeko eta etzateko, bere burua garbitzeko, ibiltzeko, jateko edo oinarritzko beste eginkizun batzuetarako beharrezkoak direnak; b) ingurunearekin lotzeko jarduera instrumentalak, eta bereziki, komunikatzeko (telefonoz hitz egiteko edo gutun bat idazteko) eta familia eta komunitatearengana iristeko beharrezkoak direnak. Era berean, hala badagokio, jarduera horiek egiteko beharrezko trebetasunei dagokien entrenamendua barnen hartuz.

8.– Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: prestazio teknikoak dira, eta prozesu luzeago edo laburrago bat ezartzea eskatzen dute. Prozesu horretan zehar, erabiltzaileak hainbat jakintza, jarrera, ohitura edo gaitasun jasotzen dituzte, modu autonomoan moldatzeko edo gizarteratzeko lagungarri. Prestazio horien barnean hartuta daude; estimulazioa

edo errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea; arlo okupazionalako esku-hartzea; hezkuntza-arloko esku-hartzea; arlo psikosozialeko esku-hartzea.

Estimulazioa edo errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea: prestazio honen bitartez, erabiltzaileek laguntza edo estimulazioa jasotzen dute eguneroko bizitzako jarduerak, oinarrizkoak eta instrumentalak, egiteko beharrezkoak diren jarrera eta trebetasun edo gaitasun kognitibo zein jokabidezkoak jasotzeko, garatzeko, berreskuratzeko edo horiei eusteko, horrela beren autonomiari eutsi ahal izateko. Zehazki, errehabilitazioa edo estimulazioa lantzeko esku-hartzeak honako jarduera hauek dira: errealitatera bideratzea; eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak garatzeko trebetasunak estimulatzeko ariketa errazak; eta terapia okupazionala.

Arlo okupazionalako esku-hartzea: prestazio bat da, eta horren bitartez, erabiltzaileek, gaitasun-jardueretan parte hartuz, modu autonomoan moldatzeko edo gizarteratzeko baliagarri diren jarrerak, jakintzak eta trebetasunak jasotzen dituzte, lan-eremuan ere aplikatu daitezkeenak. Gaitasun integralko jardueren bitartez, lan-eremukoak izaki eremu horretara mugatzen ez diren egokitze-trebetasunak garatu eta hobetu nahi dira, autonomia pertsonalaren garapena eta erabiltzaileek gizarteratzea errazten duten aurrerapenak bilatuz.

Hezkuntza-arloko esku-hartzea (edo gizarte- eta hezkuntza-arlokoa): prestazio bat da, eta, horren bitartez, erabiltzaileek, hezkuntza jasotzeko profesional batekin harremanetan jarriz, jarrera eta ohitura desagokiak aldatzen dituzte, eta edozein testuingurutan gizarteratzeko eta modu autonomoan moldatzeko egokiak diren jarrera eta ohiturak jasotzen dituzte. Bakarka, familia-arloan, taldeka eta/edo komunitatean gara daitezke, eta hainbat testuingurutan: familiaren etxebizitzan, komunitate-ingurunean eta gizarte-zerbitzuen baliabideetan. Prestazio honen barnean hartuko dira, besteak beste, hezkuntza-aisiako jarduerak, kaleko hezkuntza, familiako hezkuntza, etxeko hezkuntza eta krisi-egoeran dauden pertsona eta familientzako orientabidea.

Era berean, prebentzio-eginkizuna beteko du, hartzaileak bizi diren testuinguruetan atzemateko mekanismoak sortuz, agertzen diren testuinguruetan premiak eta gabeziak identifikatuz eta prebentzio-ekintzak garatuz.

Arlo psikosozialeko esku-hartzea: esku-hartze honen bitartez pertsona, familia edo talde erabiltzaileei laguntza eskaini nahi zaie, gizarteratzeko edo modu autonomoan moldatzeko baliagarri diren pertsonen jokabideak eta ingurune testuinguru eta egoerak aldatzeko eta hobetzeko bidean.

Bereziki honako hauek lortu nahi dira:

– Bizimodu egokigarria eta autonomia errazten eta indartzen duten pertsona, familia, gizarte, komunitate eta ingurune mailako baldintzak sustatzea. Baita pertsonarengan, familian edo komunitatean beharrezkoak diren aldaketak ere, gizarte-kalteberatasun edo -zailtasuneko egoera bat sortzen edo mantentzen duten alderdiak murrizteko eta/edo ezabatzeko helburuarekin.

– Gizarte-kalteberatasun edo -zailtasuneko egoeretatik eratorritako ondorio psikologikoak prebenitzea eta arintzea.

– Pertsonari edo familiari gizarteratzea eta, ondorioz, bizimodu egokigarri eta autonomia gartzea oztokatzen dioten alderdi eta zailtasun psikologikoak aztertzea.

– Babes profesionalaren laguntza-eginkizuna optimizatzea, eskuragarriago eginez eta hobetuz, baita babes naturaleko sare eta sistemak optimizatzea ere, estresa arintzeko eragina maximizatzeke.

9.– Lagun egite soziala: gizarte-zerbitzuetako prestazioetan egiazkoena eta bereizgarriena da, eta horren bitartez pertsona profesional kalifikatu batekin harremanetan jartzen da, harekiko elkarrengin lagundu egiten diola modu autonomoan moldatzen eta gizarteratzen.

Lagun egite sozialari esker erabiltzaileak bere egoera egiazta dezake, bere autonomia pertsonala eta gizarteratzea mantentzeko edo garatzeko dagokienez (gizarteratzeko lagun egitea) dituen helburuak azal ditzake; eta prozesuan zehar helburu horiek lortzen lagunduko dion erreferentziako pertsona bat eduki dezake eskura, honako hauen inguruko laguntza eta babes eskainiko diona:

– instrumentala (informazioa, orientabidea eta bitartekaritza beste sistema batzuetako baliabide eta zerbitzuak eskuratzeko eta gizarte- eta familia-arloko laguntzarako –familia, lagunak, komunitatea– eta harremanetarako sareetara iristeko);

– emozionala (kaltea murriztea, eustea, emozioei eustea eta krisi-egoeretan orientatzea, eta abar);

– hezkuntza-arlokoa (eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak, jarduera instrumentalak eta aurreratutako egiteko eta gizarteratzeko trebetasunak eskuratzeko, jarrerak aldatzea eta abar);

– harremanetarako (entzute aktiboa, harreman sozial eta/edo pertsonalak mantentzeko edo ezartzeko trebetasunak eskuratzeko, harremanak ezartzeko aukerak sortzea).

Neurri handiagoan edo txikiagoan ezarriko da pertsonaren babes-premiaren arabera. Zenbait ibilbide ezar daitezke, erabiltzaileak poliki-poliki lagun egitearen intentsitatea alda dezan, eta, ahal dela, murriz dezan.

10.– Arreta soziojuridikoa: orientabide juridikoaren alorreko prestazio bat da, eta, horren bitartez, erabiltzaileei informazioa eta orientabidea ematen zaie, tresna juridikoen bitartez, mendetasun,- babesgabetasun- edo bazterkeria-egoerei erantzuteko eta egoera horiek konpontzeko, baita beste egoera batzuen (gizarte-premiazko egoerak adibidez) gizarte-ondorioei erantzuteko eta ondorio horiek konpontzeko ere, erabiltzailea gizarteratzeko eta modu autonomoan moldatzeko prozesua errazteko.